

Zu hemen zaude. goiena




MANU GOMEZ
ZINEMAGILEA

"80KO HAMARKADAKO GARAI AZTORATU HURA BIZI ZUTENAK FILMAREKIN IDENTIFIKATZEA ESPERO DUT"

Manu Gomez arrasatearrak 'Érase una vez en Euskadi' pelikula aurkeztuko du Donostia Zinemaldian irailaren 22an; Debagoieneko hainbat herritan filmatu du / 40

LA CANICA FILMS








Auzoko ekoizleez gain, Euskal Herriko 25 ekoizle eta artisau Elorregiko lehen azokan zapatuan / 4

Udal euskaltegiek eta AEK-k zabalik dute izen emate epea; iraila amaitu aurretik egin beharko da / 6

Berriz abiatu dituzte Juan Arzamendi Musika Eskolako lanak, martxoan amaitzeko asmoz / 12

SINADURAK

 VALEN MORLUX / 8	 JOANES PLAZAOLA / 26
 JOHANNA SANCHEZ / 12	 AITOR UGALDE / 34
 JOKIN LARRAÑAGA / 17	 MIKEL IRIZAR / 48

Kurtzebarriko gurutzeari argiztatuz ekingo die UDAk 75. urteurreneko ospakizunei / 18

puntuwa

Euskal musika eta Debagoiena: lotura bitxiak

Jesus Mari Ganuza erraldoi egileari elkarrizketa

Arrasatekoak gara
zure leialtasuna eskertu nahi dugu

%20-ko
deskontua
ukipen
lenteetan

%50-eko
deskontua
eguzkitako
betaurrekoetan

%20-ko
deskontua
kristaletan

Otalora Lizentziaduna, 18
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

MULTIÓPTICAS
50 urte zuen ikusmena zaintzen


www.multiopticas.com



KORONABIRUSA

Intzidentzia-tasaren eboluzioa

DATUEN ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA ETA NAFARROAKO GOBERNUA



Positibo kasuak eta intzidentzia

	Positiboak aste honetan	Positiboak aurreko asteen	Positibo metatuak	Positiboak biztanleekiko	Intzidentzia tasa 14 eguneko, 100.000 biztanleko
Aretxabaleta	13	12	976	%13,79	352
Arrasate	12	11	3.520	%15,94	104
Eskoriatza	6	6	519	%12,65	292
Oñati	6	13	1.677	%14,62	165
Bergara	6	8	1.837	%12,22	93
Aramaio	3	6	228	%15,41	608
Antzuola	1	3	294	%13,49	183
Elgeta	0	1	84	%7,43	88
Gatzaga	0	0	13	%5,2	0
DEBAGOIENA	47	60	9.148	%14,12	165

OHARRA: EGUAZTENERA ARTEKO DATUAK

ITURRIA: OSASUN SAILA

Kutsatu kopuruak eta intzidentziak behera egiten jarraitzen dute

Aurreko astean baino 13 positibo gutxiagorekin, Debagoieneko intzidentzia-tasa 232tik 165era jaitsi da astebetean, nahiz eta oraindik EAEko bario handiagoa izan. Pandemia hasi zenetik, 9.148 debagoiendar kutsatu ditu COVID-19ak bailaran

Jone Olabarria ARRASATE

Asteko balantzea eginda, hilaren 9tik eguaztenera arte, 47 positibo erregistratu dira bailaran, aste bat lehenago egun tarte berean erregistratutakoak baino 13 gutxiago, guztira.

Azken asteetako joerarekin jarraituz, egoerak hobera egiten jarraitzen du bailaran, baina, hala ere, kontuan izan behar da oraindik ere Gipuzkoak eta Euskal Autonomia Erkidegoak baino intzidentzia altuagoa duela Debagoienak: une honetan 165ekoa da tasa eskualdean, eta 152koa eta 147koa Gipuzkoan eta Euskal Autonomia Erkidegoan, hurrenez hurren. Azpimarratzekoa da, eguazteneko datuekin, 100.000 biztanleko 14 eguneko intzidentzia-tasa meta-

tua 150 kasutik jaitsi dela EAEan, eta, hortaz, Bizi Berri IV planaren arabera, eta intzidentzia-tasaren adierazleari erreparatuta, transmisio-egoera tentsionatua izatetik moderatura pasa da.

HERRIZ HERRIKAKO EGOERA

ARAMAIO DA GORRIZ DAGOEN HERRI BAKARRA BAILARAN

Pandemia hasi zenetik, 9.148 lagun kutsatu ditu gaitzak Debagoienean. Herriko, Aretxabaletan erregistratu dituzte kutsatu gehien azken astean, hamahiru. Arrasaten hamabi izan dira positiboak, eta sei Oñati, Bergara eta Eskoriatzan. Aramaion hiru atzeman dituzte, eta bat Antzuolan.

Eskualdeko mapari dagokionez, Aramaio izan da aste honetan eremu gorritik ezin irtenda geratu den herri bakarra. Laranja dagoen herri bakarra -300dik gorako intzidentziarekin- Aretxabaletan da une honetan. Hilaren 10ean 8 positibo baieztatu ziren bertan eta orduan pasatu zen Aretxabaleta eremu gorrira, baina handik hiru egunera lortu zuen tasa 400dik jaitsi eta eremu laranja kokatzea.

Bestalde, aipatzekoa da Eskoriatzaren kasua: abuztua ezkerreko zegoen intzidentzia-tasa 400dik jaitsi ezin, eta azken astean lortu du eremu gorritik horira igarotzea. Irailaren 14an igarotzen eremu laranja, 15ean horira. Antzuola ere hilaren 12an igarotzen eremu horira.

BESTELAKO ADIERAZLEAK

PERTSONA BAT HIL DA BAILARAN GAITZAK JOTA, ARRASATEN

Hilaren 6tik 12ra, 36 lagun zendu dira EAEan koronabirusaren eraginez -aurreko astean baino hamabi gehiago-, eta horietako bat debagoiendarra izan da; Arrasatekoa, hain zuzen ere. Datuak aztertuta, pandemia hasi zenetik, 175 heriotza erregistratu dira bailaran; horietatik 88, Arrasaten. Bergaran 40 izan dira, hemeretzi Aretxabaletan, hamazazpi Oñatin, zortzi Eskoriatzan eta bana Antzuola, Aramaio eta Elgetan.

Debagoieneko Ospitaleko egoerari erreparatuta, bi lagun daude gaitzaren eraginez ingratuta une honetan -joan den asteko kopuru bera da-. Zuzendaritzaren arabera, ez da gora-behera azpimarragarririk izan eta egoerak azken asteetako "joera lasaiarekin" segitzen du.

TXERTAKETA-KANPAINA

HERRITARREN %85EK BUKATU DU EAE-N TXERTAKETA ZIKLOA

Eguaztenera arteko datuen arabera, 3.235.543 dosi jarri dira Euskal Autonomia Erkidegoan; momentura arte iritsitakoan

%90,7, hain zuzen. Gauzak horrela, 12 urtetik gorako 1.686.015 herritar dira txertaketa-zikloa bukatu dutenak -%85,2- eta 1.766.617 lagunek jaso dute gutxienez lehenengo ziztada -%89,3- Azpimarratzekoa da dagoeneko gazteen taldean -12 eta 15 urte artekoak- %83k hartu duela ziztada bat eta %51k bukatu duela zikloa.

Bestalde, adinekoren egoitzetako egoiliarrei COVID-19aren aurkako txertoaren hirugarren dosia ematea onartu zuen atzo Espainiako Osasun Ministerioaren osasun publikoko batzordeak. Adinekoei soilik ez, immunitate baxua duten pertsonen ere hirugarren dosia emango diete; tartean, minbizia duten eta Downen sindromea duten 40 urtetik gorako pertsonen.

OSASUN NEURRIAK

LABIK GAUR NEURRI BERRIAK IRAGARTZEA AURREIKUSTEN DA

Labi instituzionala gaur 09:00etan batuko da, eta azken egunetan pandemiaren adierazleek izandako bilakaera kontuan izanda -batez ere, intzidentzia-tasei dagokienez-, indarrean dauden neurriak arintzea erabaki lezake; ekitaldien edukieran eta ostalaritzaren ordutegietan aurreikusten dira aldaketak.

"Baikortasuna da egoera honi erantzuteko gakoa"

GARBIÑE AGIRIANO PSIKOLOGOA

Osasunaren gaia goren-gorenean dagoen honetan, birusez hitz egiteaz gain, sententzioez jardutea ere tokatzen da. Nola eragin du pandemiak buru-osasunean?

UXUE IGARZA LOIOLA DEBAGOIENA
COVID-19aren pandemiak ertz asko ditu, eta sistemaren alor guztietan eragin du: ekonomian, hezkuntzan, aisian, kulturean eta, jakina, osasunean; baina ez bakarrik osasun fisikoa. Gaitzak berak eragin dituen kalte zuzenez gain, pandemia-egoerak, itxialdiak eta normaltasun berriak herritarren buru-osasunean erasan dute.

Ezbairik gabekoa da gaitzak uste baino gehiago eragin duela alor psikologikoan, ezta?

Argi dago buruko osasunean eragin itzela izan duela pandemiak; denbora luze egon gara etxean eta gure bizi-ohiturak asko aldatu dira. Itxialdia etorri zenean, erabat berria zen egoera: telelana –edo online ikasketak–, sozializazio murrizta, gure familia eta lagunak ikusteko aukerarik eza, bakardadea zenbait kasutan... Horrek guztiak eragin latzak izan ditu gugan, norbanakoengan. Baina norbanakoaz, itxialdiaz eta musukoaz harago, gizarte-taldea aldatzen ari da.

Zertan edo non antzematen duzu aldaketa hori?

Adibide garbiena sozializatzeko modua da. Erabat aldatu gaitu. Gainera, gu, euskaldunak, oso kale-zaleak gara; jendearekin egotea gustatzen zaigu...

Zein joera negatibo indartu dira gure alderdi psikologikoan?

Antsietate egoerek eta nahasmendu obsesibo konpulsiboek bereziki egin dute gora. Depresioa eta antsietatea pairatzen zituztenek sintoma markatua goak erakutsi dituzte pandemian zehar. Gauza bera gertatu da obsesioekin, baina, kasu honetan, aurretik gisa horretako nahasmendurik ez zutenek ere nahasmendu obsesibo konpulsiboak garatu dituzte denbora honetan; batez ere, garbitasunari edo desinfekzioari lotutakoak.

Adin-tarteei erreparatuta, nortzuk izan dira kaltetuenak?

Gehiago edo gutxiago, denon buru-osasunean eragin du pandemiak, baina kalte esanguratsuenak bi populazio-taldetan hauteman ditugu: nerabeengan eta adinekoengan. Nerabezaroan irtetea tokatzen da, gauzak egitea, esperimintatzea, eta bat-batean etxean geratu behar izan dute gazteek. Halaber, kalera irteteko aukera izan dutenean, neurri oso zorrotzak errespetatu behar izan dituzte. Horrek antsietatea sortu die. Gainera, eskolak etxetik jarraitu behar izateak ere ezinegona sortu du hainbatengan, eta hori ere izan da estresaren eta bestelako gaitzen iturri.

Bestetik, adineko jendea dago kionez, 65 eta 70 urtetik gorako pazienteak etorri dira nire kontsultara. Adierazgarria da datua; izan ere, pandemia baino lehen, nire inguruan, behintzat, ez zen batere ohikoa adin horretako jendea psikologoarengana joatea. Beldurtuta, bakardade sentimendurekin eta egoerak gaituta etorri dira. **Pandemiaren testuinguruan, hila-beteek aurrera egin ahala, etsipena nagusitzea 'normala' da?**

Bai. Denok egon gara saturatuta, eta normala da gaizki sentitzea, baina, etsipen hori desgertzen ez dela ikusten badugu, laguntza eskatu beharko genuke. **Erraza da urrats hori egitea ala errotuta dago oraindik psikologoarengana joatearen estigma?**

Belauneko mina dugunean inongo arazorik gabe joaten gara traumatologoarengana. Bada, emozionalki kili-kolo gaudenean

"PANDEMIAREN AURRETIK EZ ZEN HAIN OHIKOA ADINEKO JENDEA KONTSULTARA ETORTZEA"

ere, beharrezkoa da psikologoarengana joatea; laguntza profesionala eskatzea. "Hau nik bakarrik gaitutuko dut" pentsatzeko joera izaten dugu, baina, sarritan, ondoan profesional bat izateak asko errazten du bidea. Hala ere, zuk esan bezala, estigma eta lotsa kontuak beti egon dira hor... Aitortu behar dut pandemiak, behintzat, erakutsi digula egoera jakin batek gure ongizate mentala hankaz gora jar dezakeela.

Esan daiteke pandemiak arazo psikologikoak sozializatzeko bide eman duela?

Pandemiak arazo horiek ikusarazten lagundu du; besteak bes-



Agiriano, Arrasateko Udalaiz zentroan duen kontsultan.

te, oso kolektiboa izan delako. Lagunartean, familian, kalean, jendeak asko hitz egin du norberaren sententzioei buruz. Estigma gabe jardun dugu, oro har. Nolanahi ere, oraindik ez dugu lortu buru-osasunari behar duen tokia ematea.

Zein da egoera zailei aurre egiteko erreminta?

Baikortasuna. "Zein gaizki gauden", "nazkatuta nago egoerare-

kin", "ezin dugu ezer egin" eta horrelakoak pentsatu beharrean, baikorrak izatean dago gakoa. Adibidez, konturatu behar dugu mundu mailako pandemia bati aurre egiten ari garela, eta hori gure osasun sistemari esker. Apurka-apurka ari gara beste normaltasun batera iristen. Azken finean, gauza negatiboak ez dira hain negatiboak gure jarrerara positiboak bada.

LANBIDEko doako ikastaroak

FMD10409
Urraduraren, elektrohidraduraren eta prozedura berezien bidezko mekanizazioa

IMAA00105
Tresneria industrialaren mantentze eta muntatze mekanikoa

FMEM0411
Pieza polimerikoak eta aleazio arinak ekoizteko moldeak fabrikatzea

FMEM0209
Mekanizazio, konformazio eta muntaketa mekanikoko produkzioa

ELEM0110
Industria-automatizazio sistemaren proiektuak garatzea

FMEH0109
Txirbil-harroketak bidezko mekanizazioa

Mondragon Unibertsitatea
Profesionalentzako Prestakuntza

Eman izena

Informazio Saioa

Irailak 22

15:00 - 16:00

Iturripeko campusean / *Online*
(Loramendi kalea 4, Arrasate)

Informazioa eta laguntza.

664 26 50 68
cursosingenieria@mondragon.edu
www.mondragon.edu/cursos/etu/foako-ikastaroak

Lanbide
Euskal Enpresa Antzinaro
Berria, Inisa eta Giza

Euzko Unibertsitatea
Euzko Unibertsitatea
Euzko Unibertsitatea

European Union
Erasmus+ Programme
2014-2020



Elorregiko auzo-alkate Jon Mujika, zapatuko azokako kartela eskuan duela. X.G.

Elorregiko lehen azoka egingo dute zapatuan

Auzoko ekoizleez gain, Euskal Herriko 25 ekoizle eta artisau elkartuko dira Gurutze Gorriko aterpean jarriko dituzten postuetan. Urtean bi azoka egiteko gogoz daude, eta komuna eta halako azpiegiturak jartzea eskatu dute, "auzoari zuku gehiago ateratzeko"

Xabi Gorostidi DEBAGOIENA

Elorregiko auzo alkate Jon Mujikari ez zaio ekimenik falta, besteak beste, bera delako Sanprubusaren kudeatzailea. Ez zen horrekin konformatu, eta auzoko lehen azoka antolatu berri du, auzokideekin elkarlanean. "Auzoan badauzkagu ekoizle batzuk, bizpahiru dira, guztira, eta gure artean askotan aipatu izan dugu Elorregi plaza polita izan daitekeela Bergarako, Arrasateko eta Oñatiko herritarrak azoka baten baitan batzeko".

Zer-nolako postuak egongo diren galdetuta, zera azaldu du: "Elorregin bertan egindako ogia egongo da, bisuteriarekin lotutako postuak ere bai, arotz bat, poltsa ekoizleak, bordatuen postu bat, Nafarroatik etorritako lagun batzuek piper erreak egingo dituzte... Denetik egongo da bertan jarriko ditugun postuetan zehar", azaldu du Mujikak.

Guztira 25 postu inguru egongo dira, eta bi erataria lortu dute horiek Elorregira erakartzea:

"Kasu batzuetan, gu joan gara artisau edo nekazari konkretuen bila. Baina beste kasu batzuetan, eurak izan dira gure atea jo dutenak; handik edo hemendik azokaren berri izan eta bertan egoteko gogoz deitu digutenak, alegia".

Estalpean

Elorregiko aparkalekua baliatzea zen asmoa hasieran, baina eguraldi iragarpen eskasa ikusita Gurutze Gorriaren estalpean egitea erabaki dute: "Eguraldi txarra egiteko aukera beti dago hor, eta horretarako kokaleku bat irudikatu genuen hasieratik. Hala, Gurutze Gorriak anbulantziak gordetzeko Elorregin duen estalpean jarriko ditugu postuak."

ELORREGIKO OGIA ETA MOMENTUAN ERRETAO PIPERRAK EGONGO DIRA SALGAI, BESTEAK BESTE

Hori bai, noranzko bakar bat markatuko dugu postuak ikusteko. COVID-19a dela-eta, jende pilaketak saihestea lortu nahi dugu noranzko bakarrek zirkuituarekin".

Leku "estrategikoa"

Zapatuko lehen azoka izango da, baina urtero bi azoka antolatzeko gogoz dago Elorregiko auzo-alkatea: "Leku estrategikoa da, bailarako hiru herri handien topaleku eta pasea-leku dena. Era honetako azokak egiteko potentziala daukan gunea da, eta, hiru herri horiek nahi izanez gero, beste hainbat gauzarako ere bai. Hemen, adibidez, belardi eder batzuk daude, barbakoa eta antzerakoak egiteko oso aproposa izan daitezkeenak. Inguru honi guztioni indar gehiago eman diezaiokegu, azpiegitura falta estaliz gero; komunak, esaterako. Bidegorria jarri zutenetik sekulako erabilera maila du, eta horren arabera azpiegiturak jartzea komeni da".



Arizmendiarrieta plazan egindako omenaldi bat. INTXORTA 1937

1936an tropa faxisten eraso jasan zutenei omenaldia

Irailaren 26an 85 urte beteko dira faxistak Debagoienera sartu zirela, eta Arrasaten egingo diete aitortza ekitaldia

X.G. DEBAGOIENA

Intxorta 1937 Kultur Elkartek beste urte batez omenduko ditu faxisten eraso jasan zuten debagoiendarrak. Irailaren 26an 85 urte beteko dira tropa faxistak bailaran sartu zirela, eta, urtero legez, egutegiko egun horretan egingo dute aitortza ekitaldia. 12:00etan hasiko da, Arrasateko Arizmendiarrreta plazan, gerran hildakoen omen-dejarritako eskulturaren alboan. "Ekitaldian, errepresaliatutako pertsona guztiak izango dira protagonista, eta, haien izenean, errepresaliatua izan

zen herri bakoitzeko pertsona batek edo haien senideek hitza hartuko dute", azaldu dute antolatzaileek. Horien artean konfirmatuta daude: Ixa Aranguren antzuolarra; Olga Etxeberria aretxabaletarra; Jose Mari Velez de Mendizabal aramaioarra; Mari Nati eta Isabel Urionabarrenetxea arrasatearrak; Luzia Farras bergararra; Anttoni Telleria elgetarra; Arantza Sasian eskoriatzarra; eta Manttoni Galdos oñatiarra.

Omenaldian bertsolariak, dantzariak, musika bandak eta abeslariak parte hartuko dute.



MIREIA BIKUÑA

Pentsiodunen protesta berezia

"Enpresa elektrikoan irabaziak iazkoak baino handiagoak" direla eta "argindarraren faktura maiatzetik %57 igo izana" kritikatu zuten Arrasateko pentsiodunek astelehenero elkarretaratzean. Bertan erabilitako protesta-kartelak Iberdrola konpainiak Portaloian duen bulegoaren kristaletan itsatsi zituzten ekitaldi amaieran.

Egoitza estreinatu du Emausek, itxura berrituta

Hilabete eta erdiz aritu dira Arrasateko Bidekurtzeta kaleko egoitza moldatzen, eta astelehenean ireki zituzten ateak berriz. Espazio gehiago du, eta kolore zuriarekin eta material berrerabilgarriarekin jokatu dute espazio berriari nortasuna emateko

Xabi Gorostidi DEBAGOIENA

Bigarren eskuko produktuen salerosketa gune bat baino zer-bait gehiago izateko grinak bultzatuta, Arrasateko Eco Center egoitza moldatzeari ekin zioten Emaus taldeko lagunek, eta egoitza berria errealitate da atzo ezker. Dekorazio kontzeptu berri bat aplikatu dute, eta bezeroentzako eta erabil-tzaileentzako gune atsegina sortzea lortu. "Etika, estetika eta emozioa dira proiektu hau egiteko kontuan hartu diren irizpideak, eta hortik dator Emaus Kubora izen berria. Dekorazio-kontzeptu berri bat bilatzen du, Debagoieneko es-



Erosleak egoitza berritua bisitatzen, astelehenean. X.G.

kualdeko bezeroengandik eta lagunengandik gertuago egoteko. Lehengai nagusia, Emausen ohikoa den bezala, giza faktorea izan da; izan ere, laneratze-entresan lan egiten duten langileek egin dute eraldaketa-lana", azaldu du elkarteko komunikazio arduradun Begoña Cabaleiok.

Eskaintza zabala

Emaus Kuboran, objektu berezietan gain, emakumeen eta gizonen moda, haurren moda, liburuak, altzariak, bazar-gaiak eta jostailuak daude, besteak beste. Bigarren eskuko etxetresnak dituen gune bat ere badago. Sare Teknikaren eskutik formakuntza jaso duten Emauseko langileek konpondutako eta gainbegiratutako garbigailuak eta telebistak daude bertan, eta urtebeteko bermea eskaintzen diete erosleei. Beste gune batean, aldiz, altzari zirkularren eskaintza dago, non Emauseko langileek eskuz eraberritutako altzariak eskaintzen diren.

"Arrasateko egoitza berrituta, halaber, bezero gehiago lortu nahi dira formatu horrekin. Dagoeneko maiz etortzen direnez

gain, jende gehiago erakarri nahi dugu kontsumo jasangarrira eta solidarioa. Azken finean, ekonomia zirkularrean eta solidarioan oinarrituta dagoen mundu hobeto bat bilatzen duen formula bat eskaini nahi diogu jendeari, mundua apur bat hobetzea helburu duena. Irabazi asmorik gabeko erakunde gara, eta gure bilketek eta salmentek gizarteratzeko lanpostuak sortzeko eta mantentzeko balio dute. Une honetan, hamaika laguni ematen diegu lan", dio Cabaleiok.

Askotariko aldaketak

Orokorrean, ukitu minimalista da nagusi, eta alde kromatikoak badu bertan zerikusia. Egoitza zaharrean kolore berdeak protagonismo handia zuen eta berrituan, aldiz, kolore zuria da nagusi. Material berrerabilgarriek berebiziko garrantzia hartu dute. Ordainketak egiteko guneko mahaia arropa garbigailu zaharrez eginda dago, adibidez. Horrez gain, badago liburutegi bitxi bat; hiru hozkailu zahar elkartuz sortu dute, bertako apalak liburuz betez.

EUSKARA, BIHOTZETIK EZPAINETARA



Barruan daramazu kirol zaletasuna, onena emateko gaitasuna, ahaleginduz gozatzekoa. Eta barruan daramazu euskara ere, kirola barrutik bizitzeko.






Arrasateko Udal Euskaltegiko langileak, ikasleak hartzeko prest. X.G.

lazko 895 ikasleak gainditzeko grinarekin

Debagoieneko euskaltegiek zabalik dute 2021-2022 ikasturterako izen emate epea, eta interesa dutenek iraila amaitu aurretik egin beharko dute. Laz ia 900 ikasle eduki zituzten bailaran, baina garrantzia gehiago ematen diote urteko ikastordu kopuruari

Xabi Gorostidi DEBAGOIENA

Arlo formalean eta informalean asko dira euskaraz ikasteko bailaran dauden aukerak. Arlo formalean euskaltegien eskaintza zabala dago, AEKren eta udal euskaltegien sareari esker. AEK-k, esaterako, Arrasaten du bailarako egoitza –Iturriotz kalean–, eta, horrez gain, Antzuolan, Elgetan eta Aramaion ikas-

taro konkretuak ematen dituzte. **Euren kasuan**, irailaren 30era arte dute zabalik izen ematea.

Udal euskaltegien sareari dagokionez, bost egoitza daude Debagoiengan: Arrasateko Udal Euskaltegia, Bergarako, Oñatiko Bedita Larrakoetxea, Aretxabaletako Leintz euskaltegia eta Eskoriatzako Leintz euskaltegia. Sare publikoetan izen emate epea

ezberdina da, herririk herri: Arrasaten eta Oñatin, irailaren 24ra arte; Bergaran, irailaren 28ra arte; eta Aretxabaletako eta Eskoriatzako kasuan, ez dute itxiera epe zehatzik.

Maila eta modu ugari

Euskara maila guztiak eskaintzen dituzte bailarako euskaltegiek: A1, A2, B1, B2, C1 eta C2. Horrez

gain, ikaste modalitate guztiak dituzte eskaintzan txertatuta: aurrez-aurrekoa, online bidezkoa eta baita autoikaskuntza.

Aurrez aurreko eskoletan, orokorrean, zortzi laguneko ratioa edukitzen dute. Iaz, COVID-19 neurriek eraginda zazpi lagunera murriztu zuten, eta aurtengo ikasturtean, gaur-gaurkoz, ez dakite ratioa zenbatekoa izango den. "Gaur-gaurkoz, ez dakigu ratioa zazpikoa edo zortzikoa izango den", adierazi du AEK-ko Oskar Elizburuk.

Ia 900 ikasle, iaz

Gutxi gorabehera, 895 lagun aritu ziren iaz Debagoieneko euskaltegietan ikasten. AEKren kasuan, aurrez-aurreko klaseak eta enpresetan ematen dituztenak aintzat hartuta, 190 ikasle inguru eduki zituzten. Sare publikoan, aldiz, 705 ikasle egon ziren: Arrasaten, 320; Bergaran, 185; Oñatin, 81; eta Aretxabaletan eta Eskoriatzan 119. Hala ere, arduradunek diote ikasle kopurua ez dela oso adierazgarria: "Zifra horren atzean askotariko ikasle motak daude: urte osoan 10 orduko ikastaro bat egin du-

tenak, edo astero hiru orduz jarduten dutenak".

Gehienek diote iazko ikasturte pandemikoan matrikula jaitziera izan zutela, 2020 aurretik matrikulen tendentzia goranzkoa zela. "Pandemia aurreko azken bost urteetan goranzko joera eduki dugu, baina iazko urte xelebrean behera egin zuten matrikulek", dio Elizburuk. Antzera mintzatu dira Arrasateko Udal Euskaltegian ere: "Azken hamar urteetan tendentzia goranzkoa izan da, nahiz eta igogera leunak izan". Bergarakoan, aldiz, iazkoa azkenaldiko urterik onena izan zen ikastordu kopuruari dagokionez.

Askotariko laguntzak

Debagoieneko udalek laguntza lerroak dituzte matrikulak ordaintzeko; betiere, baldintza konkretu batzuen arabera handitu edo txikitu daitezkeenak. Aramaion eta Antzuolan, adibidez, %100ekoa da; Arrasaten, %75ekoa; eta Aretxabaletan eta Eskoriatzan, %60koa. HABEK homologatutako tituluak lortzen dituzten ikasleek HABEren laguntzak ere jaso ditzakete.

Debagoieneko hiru proiektu hautatu ditu Foru Aldundiak

Huhezki fakultateak, Olaso Dorreak eta Bergarako Udalak 'Etorkizuna eraikiz' programaren babesa jasoko dute

X.G. DEBAGOIENA

Gipuzkoaren "komunitate izaera indartzeko" hamazazpi proiektu hautatu ditu Aldundiak deialdi honetan. Guztira, 590.000 euro bideratuko ditu Aldundiak *Etorkizuna eraikiz* egitasmoa;

hots, aurten hautatu dituzten hamazazpi proiektuetara.

Lankidetzazko gobernantza, garapen komunitarioa, gazteen partaidetza eta belaunaldi arteko lankidetzak dira proiektuen ardatzak, eta askotariko eragi-

leekin eta esperimazioan oinarritutakoak dira. Bailarako hiru proiektuei dagokionez, Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak parte-hartze kultural eta garapen komunitarioan sakonduko du, hala, eskola eta herria "denontzako izan daitezzen".

Olaso Dorrea Fundazioaren ekimena, berriz, klimari buruzko herritarren batzarra egitea izango da, eta Bergarako Udalarena Herri Proiektua eta eral-



Olaso Dorrea. GOIENA

daketa soziala lantzeko egitasmoa abiatzea.

Aurtengo edizioa kontuan hartuta, dagoeneko 125 egitasmo esperimental sustatu ditu Aldundiak, eta Markel Olano diputatu nagusiak azaldu du ekimena ezinbestekoa izaten ari dela "etorkizuneko Gipuzkoa" eraikitzeko.

"Epe ertainera begira, ziur nago egitasmo hauek bere ekarpena egingo diotela gure gizartearen kohesioari", adierazi du diputatu nagusiak.

Liburu berri bana dute Elexpuruk eta Azpiatzuk

Juan Martin Elexpuruk 'Euskararen ustezko kidetasunak Italian eta Korsikan' lana aurkeztu zuen martitzenean, Donostian. Jose Antonio Azpiatzuk, berriz, 'Juan Sebastian Elkano: ingurua, ibilbidea, epika' izeneko lana du labetik atera berri



Juan Martin Elexpuru. J.B.



Jose Antonio Azpiatzuk. X.G.

Xabi Gorostidi DEBAGOIENA

Juan Martin Elexpuru idazle eta filologoak 2017an argitaratu zuen *Euskararen aztarnak Sardinian?* liburua, eta aste honetan plazaratu berri duen lana haren jarraipen eta osagarri gisa aurkeztu du.

Obra honetan, idazle bergararrak Sardiniako ikerketak eskaintako esperientzia baliatuta, Korsikan, Frantziako eta Suitzako Alpeetan eta Italiako penintsula osoan jarri ditu begiak. Liburuan adierazten duenez, toponimian antzekotasun handiak daude –hirurehun bat leku-izen berdin eta mila eta laurhun antzeko–.

Horien artean daude, besteak beste: Andrate, Biandrate, Balzola, Zubiena, Zumaglia, Ottano, Lesa, Ormea eta Arabba. Urtegieta eta ibaietan ere aurkitu aztarna toponimikoak edo hidronimoak: Urnasch, Gardena, edo Lambro, adibidez.

Baina, antza, lurralde horien arteko loturak ez dira toponimiara soilik mugatzen. Mitologian, adibidez, Basajauna eta laminak aurkitu ditu Elexpuruk Alpeetan. Aurkikuntza horiek guztiak argazkiz eta mapaz lagunduta azaldu ditu bergararrak liburu berrian.

Azpiatzuk, elkarlanean

Jose Antonio Azpiatzuk Javier Elorzarekin batera argitaratu du Juan Sebastian Elkano buruzko liburua, *Ingurua, ibilbidea eta epika* izenburua duena. Hala azaldu du zein asmorekin hasi ziren lanean: "Elkano buruzko gauza berriak argitaratu emateko gogoz egin dugu. Argi genuen, ezer berririk aurkitu ez ezean ez genuela ezer argitaratuko; handik eta hemendik esandakoak elkartu eta tortilla bat egitea ez zen gure nahia".

Ekarpen berri horietako bat, Elkano erabilitako *Victoria* itsas-ontziaren luzeerari buruzkoa da: "Astakaria itzelak esan dira ontzi horri buruz. Esaterako, askotan entzun dugu 27 metroko luzeera zuela. Baina gure ikerketen arabera ondorioztatu dugu ez zituela 17 metro baino gehiago edukiko. Pisu antzerakoan zuten garai horretako hainbat itsasontziri buruzko informazioa aztertu dugu, eta neurrien batez-bestekoak ikusita ondorioztatu dugu hori".

Elkanorekin harremana izan zuen arrasatear bati buruzko aurkikuntza ere egin dute: "Elkanoren bigarren espedizioan Hernando Guevara izeneko arrasatear bat zegoen".

'TicketBAI': derrigorrezko 2022ko urtarrilerako

Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako aldundiek enpresen fakturazioa egiteko sortu duten softwarea da *TicketBAI*, iruzur fiskala gutxitzeko helburua duena.

Momentu honetan, proiektua borondatezko epean dago, eta proiektuarekin lotutako arreta zerbitzuak indartu ditu Aldundiak. Baina 2022an derrigorrez-

koa izango da zerga-sistema berrira igarotzea. Modu mailakatuan egingo dute jauzi zergadunek, eta honako hau da egutegia 2022tik aurrera: urtarrilaren 1a, zerga kudeaketako profesionalak; martxoaren 1a, jarduera profesionalak; maiatzaren 1a, txikizkako merkataritza eta ostalarik; urriaren 1a, eraikuntzako zein kultura eta aisialdiko profesionalak; eta abenduaren 1a, fabrikazioa, handizkako merkataritza, telekomunikazioa eta finantzak.



LANERAKO FORMAZIOA

%100 DIRULAGUNTZAREKIN

LEHENTASUNA: LANGILEEK IZANGO DUTE			
FABRIKAZIO MEKANIKOA			
IKASTARDEN IZENAK		ORDUAK	DATAK
UF0679	TXIRBIL-HARROKETA BIDEZ PIEZAK FABRIKATZEKO CNC PROGRAMAK PRESTATzea	80	2021/10/18 2021/12/01
UF0454	DOKUMENTAZIO TEKNIKOA LANTzea, FABRIKAZIO MEKANIKORAKO CAD-CAM PROGRAMAK ERABILIZ	90	2021/12/22 2022/02/24
UF1129	MEKANIZAZIO-PROZESUEN KOSTUAK	40	2021/10/25 2022/11/17
UF0676	TXIRBIL-HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIO-PROZESUETAKO ZEHAZTAPEN TEKNIKAK. <i>Planoen Irakurketa</i>	60	2021/10/04 2021/11/10
UF0683	TXIRBIL-HARROKETA BIDEZ MEKANIZATUTAKO PRODUKTUA EGIAZTATzea	30	2021/11/15 2021/11/30
UF0678	TXIRBIL-HARROKETA BIDEZKO MEK. ERAGIKETATAN MAXIMAK, TRESNERIA ETA ERREMINTAK PRESTATzea. <i>KONBENTZIONALA</i>	80	2021/12/13 2022/02/10
FMEH00750H	EGIAZTAPEN TRIDIMENSIONALA <i>M-COSMOS</i>	30	2021/11/15 2021/11/30
MF0591_3	SISTEMA AUTOMATIKOAK FABRIKAZIO MEKANIKOAN	80	2021/10/04 2021/11/23
MF0106_3	PRODUKTUAK AUTOMATIZATzea	210	2021/12/13 2022/02/10
ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA			
OC21200334	ROBOTIKA OMBARRIAK	50	2021/10/25 2021/11/23
OC21200149	AUTOMATA PROGRAMAGARRIAK	60	2021/11/15 2021/12/22
ADMINISTRAZIOA ETA KUDEAKETA			
UF0320	TESTU-TRATAMENDURAKO APLIKAZIO INFORMATIKOAK. <i>WORD</i>	30	2021/11/02 2021/11/17
UF0321	KALKULU-ORRIETARAKO APLIKAZIO INFORMATIKOAK. <i>EXCEL</i>	50	2021/11/22 2021/12/22
UF0343	SOLDATA-ORDAINSARIAK, KOTIZAZIOA ETA ZERGA-BILKETA	90	2021/12/22 2022/02/24
GAITASUN ZIURTAGIRIAK - LEHENTASUNA: LANGABEEK IZANGO DUTE PRAKTIKAK ENPRESAN			
ELEM0311_2	AUTOMATIZAZIO-SISTEMA INDUSTRIALEN MUNTAKETA ETA ZAINKETA	390	2021/10/04 2022/03/09







Agirrebidea,2 - 20570 Bergara (Gipuzkoa)
Tel.: 943 89 92 72 - 688 81 50 70 - ikastaroak@maltuna.eus



ZABALIK

VALEN MOÑUX

Japoniatik ohiturak inportatzen

Duela denbora bat, Japonia ezagutzeko aukera izan nuen. Gauza askok harritzen dute turista bat herrialde horretara iristean, baina duela gutxira arte, behintzat, horietako bat leku publikoetan maskarak erabiltzea zen. Gida turistikoek azaldu zuten alergieaz babesteko eta, batez ere, arnas gaixotasunak ez kutsatzeko modu bat zela.

Duela ez urte asko, Tolosako lehiaketara Japoniako abesbatzak iristen zirenean, atentzioa ematen zuten "kontzertuen aurreko eta ondorengo lekualdaketetan maskarak diziplinaz erabiltzeagatik", egunkariek duela hamar urte pasatxo kontatzen zuten bezala.

Gogoan dut Japonian oinezko gehienek kolore argiko ospitale-maskarak erabiltzen zituztela, baina deigarria egiten zitzaigun batez ere gazteek maskara beltza eramatea, eta horrek itxura kezkarri samarra ematen zien. Nork

pentsatuko zuen *kaka-urtearen* ondoren maskara nahitaezko osagarri bihurtuko zela etxetik irteteko, eta, gainera, kolore beltza izango zela erabilienetako bat.

Musika klasikoko ekitaldietara joaten


garenok orain arte erabat ezezaguna izan den fenomeno ikusi dugu: kontzertuetan eztlak eta karraspeoak erabat desagertu dira. Orain arte, kontzertu guztietan beharrezkoa zen soinu-osagai bat eztlak eta karraspeoak izaten zirenen etendietan. ABAOren (Asociacion Bilbaina de Amigos de la Opera) funtzioei buruzko kronikak idazten ari zen musika-kritikari zorrotz samar batek ATA O deitzen zion publikoari (Asociacion de Tosedores Amigos de la Opera), besaulki-patioko "kontzertu paraleloa" batzuetan oso gogaikarria izaten zelako.

Bai ingurune horietan, bai beste edozein eremutan, jada ez da egokitzen jotzen eztlak edo doministiku egitea, turistok Japonia bisitatzen genuenean ikusten genuen bezala. Han beste *arau exotiko bat* dute, oso heziketa txarrekotzat jotzen baita garraio publikoan telefonoz hitz egitea. Uste dut kostako litzatekeela ohitura hori honaino ekartzea.

KONTZERTUETAN EZTULAK ETA KARRASPEOAK ERABAT DESAGERTU DIRA

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Estropadek erakuts dezaketena

F. JAVIER ARRIETA IDIAKEZ 'TTAP'-EN ARGITARATUA

Kontxako estropadetan murgilduta gaude. Onenak irabazi ohi du, edo zorterik handiena duenak, arraunkontuetan edozer gerta daitekeelako.

Nire bihotzeko trainerua, Kontxan izan ala ez, Ondarroakoa da: Antiguako Ama.

Badira arrazoi desberdinak horretarako, ez bakarrik ondarrutarra naizelako.

Sirena-hotsa entzuten da nire herrian (*turrune*), arraina dakartenean txalupek, baita ere herriko traineruak

irabazten duenean. Une pozzarriak dira, diruaren eta nortasunaren agerikoak, arrantzak aberastasuna dakarren bezala, traineruaren garaipenek herri-sena.

Alabaina, gauzak asko aldatu dira arraunean. Garai batean, estropadetan arrantzaleek egiten zuten arrauketan. Gaur, ordea, kirolariak. Arrantzaleak herri berekoak izaten ziren, kirolariak ez nahitaez. Izan ere, arrauna profesionalizatu denetik klub dirudunak onenak kontratatzen ahalegintzen dira. Dirua sartu da traineruetan.

Horregatik, traineruen izenik ez da ageri sailkapenetan, ezpada kasuan

kasuko herriarena eta babesle nagusiarena.

Estropadetan, aldiz, beti jokatu izan da dirua. Nire herrian badakigu zer den koltxoiak ere galtzea.

Baina orain ez da zertan dirua galdu soilik zure herriko taldearen alde egiteagatik, apustu-etxe, taberna eta Internet bidez dena baita posible.

Nire herrian, politika tarteko, estropadek balio izan dute herria batzeko zein banatzeko. Politikarengatik haserretu ondoren, Kontxako estropadak izan ziren aitzakia adiskidetu eta berriro herri gisa aritzeko. 1926. urtea zen. Ondarroak bandera irabazi zuen.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEAwww.goiena.eus**Argitaratzailea**

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martinez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga,
Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014**ISSN:** 2174-369X**Tirada:** 19.000 ale**Difusioa:** 18.723 ale**Inprimategia:**
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioako Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

**EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Gizartea hezten dihardugu, gaixotasunak ikustarazteko"

ALAITZ IRIARTE AFAGI ELKARTEKO PSIKOLOGOA

Hasier Larrea ARRASATE

Gaixotasun neurodegeneratiboak, alzheimerre tarteko, dituzten pertsonen eta euren senideei laguntza integrala eskaintzen die Alaitz Iriartek (Gaintza, 1986), Afagi elkartearen bidez. Debagoiengan, Arrasaten du kontsulta, eta asteazkeneko jasotzen ditu pazienteak bertan.

Irailaren 21ean da Alzheimerrearen Nazioarteko Eguna; data berezia al da zuentzat?

Egun horren bueltan, gaur hasi eta azaroaren 10era arte iraungo duen egitaraua antolatu dugu Gipuzkoan. Gaia gizarteratzeko baliatuko ditugu ekintzak; gaixotasun hauek oraindik oso estigmatizatuta daude, familia askotan etxeko giroan baino ez baitira eramaten. Beraz, gure lan handienetako bat normalizazioa da, eta horretarako garrantzitsua da ekitaldiak egin eta formakuntzak eskaintzea.



Alaitz Iriarte, Donostiako Antigua auzoan Afagik duen egoitzaren atarian. AFAGI

Urriaren 5ean, adibidez, Arrasateko Kulturate aretoan egingo dugu hitzaldia, lehen pertsonako bizipenen berri emateko.

Zein izango da ekintzarik esanguratsuena?

Irailaren 25ean egingo dugun zortzigarren giza kate solidarioa. Kontxako barandan izango da, 12:00etatik 12:20ra.

Aurten, gainera, 30 urte beteko ditu elkarteak.

Hala da. Afagi senitarteko batzuk elkarren artean hitz egiten hastearren ondorioz sortu zen. Elkarte honek Gipuzkoa mailan jarduten du, eta, egoitza nagusia Donostian dagoen arren, eskualde guztietan dugu presentzia, balioa ematen diogulako pazientearengana gu joateari, eta ez alderantziz.

Ze zerbitzu eskaintzen dituzue?

Lau ataletan banatuta, alde batetik, laguntza psikosoziala ematen dugu, gaixotasun kognitiboak dituzten pertsonak eta haien senideak aholkatzeko. Kasu batzuetan, laguntza psikologikoa ere eskaintzen diegu familiako pertsona zaintzaileei. Gainera, hasiak gara diagnosis daukan pertsonari ere banakako laguntza psikologikoa eskaintzen. Azkenik, estimulazio kognitiboa deritzona dago, gaitasun eta funtzio kognitiboen funtzionamendu eraginkorra lortzeko teknikan oinarritzen dena.

Zein da gehien jasotzen duzun profila?

Pazienteen %95etik gora 65 urtetik gorakoak dira. Eta, adin-tarte horren barruan, emakume gehiago jasotzen ditugu gizonezkoak baino, hein batean, bizi-itxaropen handiagoa dutelako.

Ze aurrerapen egin dira gaixotasunak arintzeko garaietan?

Duela 30 urtetik hona, diagnostiko geroz eta goiztiarragoak egiten dira gaur egun. Tratamendu ez-farmakologikoen arloan –tailerrak, ariketak, prebentzioa...– ere hobekuntzak egin dira. Guk diziplinen arteko lanketa defendatzen dugu: medikuek, neurologoek... Esku hartze jarraitua egitea, alegia.

Alzheimerre sendatzeko aukerarik ikusten al duzu?

Badaude argitalpen itxaropentsuak, baina, ziur aski, sendatu baino gehiago, horrekin bizitzen ikasi eta bizi kalitatea hobetzea da lortu beharrekoa; hau da, pertsonaren mantenua bilatzen duten terapiak eskurago izatea.

Zer da zure lanbidetik gustukoena?

Psikologiako karrerako praktikak Afagin egin nituen eta ordutik bertan egiten dut lan. Gure aitoren kasuak bultzatu ninduen, nolabait, esparru honetan espezializatzen. Bizipen hartatik asko ikasi nuen. Polita da gaixoa den pertsonari ematen dizkiozun aholkuak baliagarri zaizkiola frogatzea; hori da, zalantza gabe, gehien betetzen nauena.

ITURRI ONETIK

Kooltur Ostegunak bueltan datoz

Beste eragile askori bezala, pandemiak jarduna baldintzatu die Kooltur Ekintza taldekoei. Hala ere, kultura sustatzen jarraitzeko ahaleginean ibili dira eta domeketara zein Amaia Udal Antzokira ere pasa zituzten emanaldiak. Urriaren 7an hasiko dira berriro: emanaldiak egunetan egingo dituzte, gaztetxean, 22:00etan, eta sarrerak egunetan bertan eskuratuko dira, gaztetxean. Besteak beste, La Excavadora eta Joseba Irazoki eta Lagunak taldeak izango dira bertan diskoak aurkezten.

ALBISTE IZAN ZEN

2006-09-18

Alkartasun Eguna ospatu zuen EAK Arrasaten

Alkartasun Eguna ospatu zuen Eusko Alkartasunak Arrasaten. Alderdiaren 20. urteurrenarekin bat egin zuen ospakizunak. Unai Ziarreta idazkari nagusia, Begoña Errazti presidentea eta Carlos Garaikoetxea presidente ohia buru zirela, ekitaldi politikoa egin zuten Uarkape pilotalekuan eta independentzia eta sozialdemokrazia aldarrikatu zituzten. Eguerdian, herri bazkaria egin zuten Musakolako kiroldegian.



HAU BE BADOGU!

Arrasate 'trending topic' izan da Twitterren

Aste bukaera honetan egongo diren elkarretaratzeen ondorioz, herria *trending topic* izan da:

@cristinarm79: "Udan 3 egun eman nituen Arrasaten eta jendea oso atsegina iruditu zitzaidan. Ez iezaiozue utzi kaleak zikintzen. Gora Euskadi!"

@ikerbizkar: "Espainiako erregea Arrasatera joan zenean *España huele a culo* bolumenik altuenean jarri bazuten, Abascali zer jarriko dioten jakiteko irrikitan nago".

@anaalonsogonza1: "Arrasate mesedez, faxistari ikusgarritasunik ez eman".

D2030: ELKARRIZKETA

Miren Arregi ARRASATE

Gipuzkoako diputatu nagusi Markel Olanok argi du erronkei aurre hartzeko lankidetzak izango duen garrantzia. Hala, balioa eman dio D2030 Debagoiengan egiten dabilen lanari.

2021. urteko irailean, Green Deal trantsizio energetikoa eta klima aldaketa erdigunean, zein puntutan dago Gipuzkoa?

Klima aldaketaren erronka atzeraezina da, erabat presazkoa. Hori horrela, lurralde gisa dagoeneko azken urteotan pausoak ematen ari bagara ere, ahalegin hori indartzeko tenorean gaude.

Globala den arazo baten aurrean, tokiko erantzunak behar ditugu. Euskal Herriak eta Gipuzkoak gure ekarpena egin behar dugu, guztion artean klima aldaketa geldiarazi eta bere ondorioak mugatzeko. Azken urteotan arazoaz jabetu eta hainbat neurri martxan jarri dira. Asko dugu egiteko oraindik, hala ere.

Europak ipini dituen helburuak lortzera iritsiko gara?

Aukera asko ditugu trantsizioa arrakastaz egiteko, bi arrazoiengatik: lehenik, lurraldean kontzientzia zabala dugu gai honen inguruan eta, oztupoak oztupo, badugu lankidetzarako sena. Horren lekuko, dagoeneko abian daude hainbat egitasmo elkarlan horren bitartez proiektu eraldatzaileak martxan jartzeko. Debagoiena 2030 da adibide nagusienetako bat. Bigarrenik, ahalmen industrialari lotuta, badugu berrikuntzarako gaitasuna eta jakintza. Bi puntu horiei gizarte osoaren bultzada gehitzen badiegu, baditugu osagaiak trantsizio ekologikoan abiada hartzeko.

Hain zuzen, zein punturaino dago Gipuzkoako ehun industrial, sozial eta ekonomikoa norabide horretan lanean?

Pixkanaka-pixkanaka, erakunde, enpresa eta gizarte ehuna ari da norabide horretan aldaketak sustatzen. Lurralde industrialaren gurean garrantzi berezia du enpresen alorretik trantsizio ekologikoan aurrerapausoak emateak, ekonomia

"Energia berriztagarrien sorreran jauzi bat eman beharrean gaude lurralde eta herri gisa"

MARKEL OLANO GIPUZKOAKO DIPUTATU NAGUSIA

Lankidetzan dihardute Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Debagoiena 2030 ekimenak, gurea lurralde inklusibo, adimentsu eta klimatikoki neutroa bilatzeko ahaleginean



Gipuzkoako diputatu nagusi Markel Olanok. GOIENA

deskarbonizatu baterantz. Horrek eskatzen du industria-sektoreak bere energia eskaria murriztea eta baliabideak gehiago aprobetxatzea ekonomia zirkularraren esparruan.

Baina, aldi berean, energia berriztagarrien sorreran jauzi bat eman beharrean gaude lurralde eta herri gisa. **D2030 ekimenak trantsizio horretan Debagoieneko bultzatzaile izan gura du.**

Zergatik Gipuzkoako Foru Aldundia ekimeneko kide?

Arazo konplexuei elkarlanean erantzuten ez badiegu, jai daukagu. D2030ek ideia hori praktikara eraman eta eskualdeko eragile nagusien arteko dinamika sustatzen du, hain zuzen ere, ekonomia eta gizarte iraunkorrerako ahaleginean indarrak batu eta egitasmo konkretuak mugiaraziz. Gogoeta horrek bete-betean bat egiten du Gipuzkoako Foru Aldundiaren ikuspegiarekin eta *Etorkizuna eraikiz* programaren helburuekin: etorkizuneko desfioen aurrean, elkarlanerako eta esperimenezko dinamikak sortu eta denon artean soluzioak martxan jartzea.

Nola baloratzen duzu D2030en egitekoa?

Bere ibilbidea egiten ari da eta ziur nago, berandu baino lehen, lan horren fruituak ikusten hasiko garela. Eraldatze prozesuek behar dute denbora bat. Debagoiena aitzindari izan da ekonomia eta gizarte gaietan. Iruditzen zait Gipuzkoa osorako eredu izango dela kasu honetan ere, D2030ren eskutik.

Automozioa da eraldaketa itzela bizi izaten ari den sektore bat.

Enpresa traktoreak baditugu, baina automozioari lotutako enpresa asko txikiak edo ertainak dira, besteen produktueterako elementu osagarriak fabrikatzen

dituztenak. Bereziki horiei laguntzeko jarri dugu martxan MUBIL, Gipuzkoako Mugikortasun Berriko Zentroa. Auto elektrikoek eta mugikortasun berriak dakartzen aldaketei aurre egiteko garaian, eraldatze horretara egokitu eta aukerak baliatzea du helburu. Ez bakarrik iraultza horretatik kanpo ez geratzeko; mugikortasun berriak dakartzen aukerak aprobetxatu eta Gipuzkoaren ahalmen industrialaren handitu egin nahi dugu automozioaren eta mugikortasunaren alorretan.

Zein lanketa dituzue prest GFAn, trantsizio honekin lotuta, ikasturte honetara begira?

Batetik, aldaketa klimatikoaren aurkako jarduna sustatzeko Naturklimate zentroaren egoitza berria eraikitzen ari gara. Naturklimate bere misioa indartzen jarraituko du, trantsizio energetikoaren eta ekonomia zirkularraren alorretan. Bestetik, MUBIL Mugikortasun Berriaren Zentroak hainbat ekimen berri martxan jarriko ditu, mugikortasun jasangarriari lotutako industria ehuna garatzen jarraitzeko. Azkenik, aipatu nahiko nuke lurraldearen testuinguruak European arreta piztu duela eta Climate KICen eskutik Gipuzkoa Deep Demonstration proiektua gauzatzen jarraituko dugula; proiektu horren eskutik, lurraldean trantsizio ekologikoa gauzatzeke proiektu aitzindariak bultzatuko ditugu.

"IRUDITZEN ZAIT GIPUZKOA OSORAKO EREDU IZANGO DELA DEBAGOIENA, D2030EN ESKUTIK"

"CLIMATE-KIC-EKIN, LURRALDEAREN TRANTSIZIO EKOLOGIKOA BULTZATUKO DUGU"

Soka luzea ekarri du zaturako deitutako Elkartasun Martxak

Biharko, zapatua, euskal presoek eskubideen aldeko Elkartasun Martxa deituta du Sare Arrasatek. Aste hauetan sortutako "nahasmen eta gatazka" dela eta, egiten duen irakurketa eta erabakien berri emango du gaur plataformak

Eneko Azurmendi ARRASATE

Udaberrian abiatu zuten *Unai etxeratzeko bidea gara* ekimenaren baitan, Elkartasun Martxa du deituta biharko Sare Arrasatek. "Euskal presoek aplikatzen dieten salbuespenezko espetze politika indargabetzea, bizi osoko kartzela zigorra salatzea eta presoek eskubideak bermatu daitezkeen eskatzea dira helburu nagusiak. Gainontzeko presoek bezala, euskal presoek legedia arrunta aplikatzea eskatzen dugu", adierazi du Sare Arrasateko kide Illart Azkaratek.

Era berean, beste hainbat eskakizun ere egingo dituzte, plataformako kide Garazi Azkaratek nabarmendu duenez: "Euskal presoek eta haien senideek jasaten dituzten eskubide urraketak direla-eta, elkartasuna adierazi gura diegu. Horrez gain, gaixo dauden presoak, 70 urtetik gorakoak eta zigorraren hiru laurdena beteta dutenak etxeratzea eskatuko dugu, eta baita, gradu progresiboa aplikatuz, presoek baimenekin ateratzeko aukera izatea ere".

31 kilometro, 31 eragile

Unai Parotek 31 urte daramatza preso. Hori oinarri hartuta, 31 kilometroko martxa izango da, eta 31 eragilek egin dute bat. "Herriguneko kaleak eta auzoak zeharkatuko ditugu. Eragile bakoitzak kilometro baten lekukoa eramango du eta edozeinek hartu ahal izango du parte".

Bi deialdi berezi egingo dituzte. "Bata 12:00etan, lehen lekukoa eramango dutenei laguntzeko; izan ere, urteetan dispersioa jasan duten senide eta lagunak izango dira. Azken hiru kilometroak ere guztiok batera egin gurako genituzke, 18:00etan Biterin hasita. Azken kilometroan

Oihana Parotek hartuko du lekukoa, Unairen alabak, eta hari elkartasuna adierazteko dei egiten diegu herritarrei".

Epaitegiek, argi berdea

Jupol Espainiako Poliziaren sindikatu nagusiak eta Jucil Guardia Zibilaren elkarteak martxa debekatzeko eskaera egin zuten EAEko Auzitegi Nagusian. Azken honek eguaztenez kaleratutako auto batean azaldu zuten mota horretako ekitaldiek eta manifestaldiek ez dutela baimen berezirik behar, deitzaileek komunikatzea nahikoa dela eta, beraz, ezin zaiola helegiterik jarri.

Justicia y Dignidad elkarteak, ostera, Auzitegi Nazionalan helegitea jarri du, zapatuko martxa "terrorismoa gorestekoa" erabiliko dutela argudiatuta.

Zapatuko egitaraua

Askotariko ekintzak egongo dira Biteri gunean.

Irailak 18, zapatua

- 11:00-13:00 Haurrentzako jolasak.
- 11.45 Ekiñe Casado.
- 12:00 Martxaren hasiera.
- 17:40 Garazi Barrena eta Asier Sala.
- 11:00-17:00 DJ Elepunto.
- 11:00-17:00 Taberna zerbitzua -edatekoa, saiheskia, txistorra...-
- 18:30 Amaiera ekitaldia.

Oharra: elektrotzaranga batek girotuko du martxa.


Auzitegiak ebatzi du terrorismoa goratzearen deliturik dagoen esateko "nahikoa daturik ez" dagoela.

Hainbat ahots martxaren kontra

Martxa uztailean iragarri zuen Sare Arrasatek, eta ordutik, hainbat alderdi politiko eta eragile kontra agertu dira. Euskal Herriko Terrorismoaren Biktimen Elkarteak, "lotsagarritzat" hartu du, eta Euskadiko Alderdi Popularrak eta Voxek adierazi dute terrorismoaren biktimendako "umiliazio" bat dela, eta EH Bildu erantzulezat jo. EH Bilduk esan du "erabilera politikoa" egiten dabilzala bi alderdiak.

Espainiako Parlamentuan gaiari buruz galdetu diote PPK eta Voxek Barne ministro Fernando Grande-Marlaskari eta hark erantzun die "terrorismoa goren duten ekintzen aurkako erregimen zigortzailea" aurrerapausoak ematen ari dela, baina Europako Batzordearen erantzunaren zain daudela.

Bestalde, Aitor Estebanek, Espainiako Diputatuen Kongresuan EAJren bozeramaileak, martxa biktimentzat "erasokorra" dela uste du, nahiz eta onartu duen PPK eta Voxek "konfrontazioa" bilatzen dutela. Izan ere, bi alderdiek iragarri dute Arrasaten mobilizatuko direla zapatuan. Euskadiko popularrek elkarretaratzea egingo dute San Andresen, Ortega Lara bahituta eduki zuten lantegiaren aurrean, 10:30ean. Voxek, berriz, Garibai etorbidean egingo du, 12:00etan, eta Santiago Abascal iragarri du han izango dela. Hala, "faxismoari kontra egiteko" asmoz, 11:30ean Herriko Plazan elkartzeko dei egin dute Arrasateko hainbat antifaxistak.



Garazi eta Illart Azkarate, Sare Arrasateko kideak, biharko egitarauarekin. E.A.

Era berean, Espainiako Gobernuaren EAEko ordezkariak eta Gasteizko Terrorismoaren Biktimen Oroimenezko Zentroak "Unai Paroten biktimei" omenaldia egingo diete gaur, egubakoitza, Gasteizen, eta han izango dira, besteak beste, Denis Itxaso Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkaria eta Beatriz Artolazabal Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua, Gasteizko zentroko patroinatuko kide den aldetik.

Parot, 1990a ezkerro preso

1990eko apirilaren 2an atxilotu zuten Unai Parot, Sevillan, eta 4.797 urteko kartzela zigorra ezarri zioten, hogeitazentuztan baino gehiagotan banatuta, 1978 eta 1990 artean 33 erailketa egitea egotzita. 1973ko Zigor Kodearen arabera, kalean behar luke, baina 2007an Espainiako Auzitegi Nazionalak beste zigortza ezarri zion, berriz ETAko militantzia egotzita. Hala, 2029ko uztailaren 10ean beteko luke zigor osoa.

Dantzan ikasi nahi?

PLAZAKO DANTZA TRADIZIONALA

MUGI GORPUTZA - MUGI BURUA
MUGI ANIMOA - MUGI OSASUNA

URRIA - MAIATZA astelehenetan
Hasiera: urriak 4
Oinarrizko maila eta dantza-txokoa

IZENA EMATEA

- AED: 943 77 12 28 / aed@aedeikarteas.com
- Gazte Bulegoa: 943 25 20 65 / gaztebulegoa@arrasate.eus

Antolatzailea: PORTALOI elkarteak

Laguntzaileak: ARRASATEKO UDALA AED GAZTE BULEGOA

Juan Arzamendi Musika Etxea, martxorako prest

Lurgoien enpresaren porrotaren ostean, urtebete baino gehiago egon dira geldi lanak, eta orain, Construcciones Moyua enpresak egingo du falta den zatia, %35-40 inguru; sei hilabeteko lana aurreikusten du enpresak. Beraz, martxorako bukatzea gura dute

Eneko Azurmendi ARRASATE

Udalak eta enpresak aurreko astean sinatu zuten obra hasierako agiria eta sei hilabeteko epea dute lanak amaitzeko, Construcciones Moyuako erakuntzako gerente Jakoba Kortak azaldu duenez. "Lehenengo lanak egiten ari gara orain; hau da, leihoak jarri eta euri-urak babestu. Gero, dagoeneko eginda dauden gauzak egituratzen joango gara, akaberak jartzten eta pixkanaka lanak amaitzen. Ez bada ezustekorik azaltzen, martxorako bukatuta egon beharko litzateke", gaineratu du.

Bestalde, dagoeneko jarrita dauden instalazioak ondo dauden frogatzen ari direla aitortu du. "Egia esan, obra denbora gutxi egon da geldi eta aurrez egingako lana ondo mantendu da, eraikina babestuta egon delako estalki batekin. Egoera onean dago eraikina; beraz, alde horretatik ez da arazorik egongo".

Lanaren %35-40 falta da

LKS enpresak darama obraren zuzendaritza, eta, Javier de la Fuente arkitektoak zehaztu duenez, eraikinaren zati handiena eginda dago. "%35-40 inguru da egiteko daukaguna; hau da, lanei azken ukituak eman eta obra amaitu, solairuz solairu. Akaberak emateaz gain, lokalen banaketak eta barruko zein kanpoko arotzeria jartzeko dago eta instalazioak ere bukatzeko daude oraindik. Azken ukituak delikatuak izaten dira, elementu sentsibleagoak direlako eta kontu handiz ibili behar izaten delako, ondo bukatuta geratu dadin. Gainera, akustikari garrantzia eman behar zaio eta hori ere ondo zaindu beharreko gauza da".

Berrikuntza, atikoa

Eraikinaren banaketari dagokionez, *hall* nagusi bat dauka erdian, eta bi eskailera ditu



Langileak, atzo, eraikinaren kanpoaldean. E.A.

AUDITORIUMAK 172 ESERLEKU EDUKIKO DITU; BEIRATE BAT DUEN ATIKOA ERE IZANGO DU ERAIKINAK

izkinetan; sotoan instalazioak egongo dira; beheko solairuan, berriz, auditorium bat eta instrumentaziorako guneak; lehen eta bigarren solairuetan, azkenik, musika gelak. Auditoriumari dagokionez, 172 ikus-entzulerendako lekua edukiko du eta agertoki zabala, abesbatza osoarentzat eta askotariko instrumentuak sartzeko lekua edukiko duena. "Horrez gain, butakak batu ahal izango dira". Bestalde, atiko moduko bat ere edukiko du, beirate batekin eta kanpo espazio batekin. "Kanpoan terraza bat dago eta hori erabili ahal izango da emanaldiren bat egiteko". Horrez gain, administratzaileentzako gune bat ere egongo da. "Aprendices eraikinarekiko diferentzia handiena atikoa da; izan ere, lehenengo eraikinak ez zeukan solairu hori", nabarmendu du arkitektoak.

Egoitza "duina" bientzat

Maria Ubarretxena alkateak azaldu du Udal Gobernuaren lehen tasuna izan dela obra "lehenbailehen" bukatzea eta egoitza "duina" bat eskaintzea Arrasate Musikali eta Goikobalu abesbatzari. "Espero eta gura dugu Arrasate Musikalek eta Goikobaluk 2022-2023 ikasturtea Juan Arzamendi Musika Etxean hasi ahal izatea", gaineratu du.

3.991.404,78 euroko kostua

Proiektu hau lizitazioa atera zenean, 7.480.518,91 euroko prezioa zeukan. Lurgoien enpresari esleitu zitzaion, 5.849.544,78 eurotan. Hala ere, enpresa horrek egingako zatia 2.529.431,9 eurokoa izan zen. Orain, Construcciones Moyuari esleitutakoari Lurgoienek egingako zatia gehituta, 6.520.836,68 eurokoa da obraren kostua. Hori hala izanik, 3.991.404,78 eurokoa izango da obraren bigarren zati horren aurrekontua. Gainera, Gobernuak azaldu duenez, 239.776,57 euroko abalarekin ordaindu ahal izan ditu obrak sortutako gastu gehigarri guztiak; obrak geldi egotean eraikina babesteko lanak, esaterako.

Jada eskatu daiteke Leintz eskola kirolerako dirulaguntza

2021-2022 ikasturterako beste laguntza lerro bat abiatu du Udalak; azaroaren 30era arte eman daiteke izena

E.A. ARRASATE

Helburua da, Maitane Muñoz Gizarte Ongizateko zinegotziaren esanetan, herriko familia zurgarrienak eta, bereziki, haurrak, laguntzea eta eskola kirolaren proiektuan inplikatzeko. "Urte osoko hezkuntza proiektua sustatu nahi da, herri osoarentzako eskuragarria izanik. Aisialdian kirola praktikatzeko indartu nahi dugu, ikasleen artean osasuna eta ohitura osasungarriak sustatzeaz gain, elkarbizitzan eta integrazioan ere eragiten duen aktibitatea baita".

Laguntza matrikularen %90eko deskontua da eta LHko lehen mailatik DBHko bigarren mailara arteko ikasleak dituzten familiei dago zuzendua. Laguntza jaso ahal izateko, Arrasaten erroldatuta egon beharko da eta diru-sarrera gordina urtean gehienez 20.000 eurokoa izan beharko da bi laguneko familia bada; hiru laguneko bada, 26.000 eurokoa; eta lau lagunetik gorakoa bada, 30.000 eurokoa.

BAZen tramitatu beharko da dirulaguntza eskaera, azaroaren 30a baino lehen.

Zalduspe-Ospitalea geltokia martxan da astelehena ezker

ELMAko geltokian ez da geratuko autobusik eta Zigarrolako industrialdetik egingo dute ibilbidea Zalduspeko geltokira iristeko. Beraz, autobus linea guztiak Zalduspe-Ospitalea geltokian geratuko dira.

Pesaren autobusei dagokienez, Arrasate-Bilbo –autobidez eta herriz herri–, Eibar-Arrasate-Gasteiz –autobidez eta urtegitik–,

Eskoriatza-Arrasate-Donostia eta Arrasate-Loiuko aireportua egiten duten linea guztiak geratuko dira Zalduspe-Ospitalea geraleku berrian –eta ez zaharrenean–.

Hiriarteko lineek ere gauza bera egingo dute. Hala, Eskoriatzarantz doazenak Zalduspe-Ospitaleko geltokian eta erdigunean –Mondragon hotelaren parkingarean ondoan– geratuko dira eta Eibarrerantz doazenak, Kontzezinoko biribilgunean eta Zalduspe-Ospitaleko geltokian.



NIRE USTEZ

JOHANNA SANCHEZ

Ikasturte berria

Ikasturte berri bat hasi dugu, *normaltasun* hurbilarekin. Intzidentzia beherantz, txertoak herritar guztien esku...

Eskola presentzialak, neurri egokiek, zaintza ez baita jaitsi behar. Zinemek, antzokiek, futbol-zelaiek eta haien edukierak erakusten digute badela nolabaiteko *normaltasuna* –egunak, asteak eta hilabeteak igaro ahala handituz doaz–, baina ezin dira kanpaiak airera bota, eta pentsatzeko da dena gertatu dela, garai goiztiarretara itzultzen ari garela.

Argi dago denbora hori igaro dela, eta orain garrantzitsuena daukagunarekin aurrera egitea dela, burua altxatuz eta nonahitik atzaparra ateraz, zenezari adarretatik heldu eta bizitza egokitu zaigun pandemia honekin aurrera egin. Bizitza beste begi batzuekin ikusi eta bizitza eragingo digu horrek, datorkiguna hartuz, indartsuak eta ausartak baikara nahi dugun horregatik, biziarengatik, borrokatzeko.

Eta horretarako, bizitzen jarraitu ahal izateko, zuhur izaten jarraitu behar dugu, osasun neurriak errespetatuz. Ikasturte berri hau guztiongan dago, onartu egin behar dugu.

Jasangarritasuna helburu, oinez joango dira eskolara astebetuz

Europako Mugikortasun Iraunkorraren Astearekin bat eginez, Eskolara Oinez ekimena abiatu zuten atzo

Eneko Azurmendi ARRASATE

Atzo hasi eta irailaren 22ra arte, Eskolara Oinez ekimenean murgilduko dira Arrasate Herri Eskolako Lehen Hezkuntzako hirugarren, laugarren, bosgarren eta seigarren mailetako ikasleak,

helburu argiarekin: eskolarako bidea motordun ibilgailuak alde batera utziz egitea. Zazpigarren aldia da aurtengoa, eta Udalako Ingurumen Eskolako irakasleek bi ibilbide gidatuko dituzte oraingoan ere Arrasate Herri Esko-

lara joateko. Bata Biterin hasiko da eta bestea, San Andres auzoko Kurtzetxiki plazan.

Ingurumen Eskolako irakasleek eskolara oinez joatearen alde onak eta motordun ibilgailuak alde batera uztearen abantailak nabarmendu dizkiete ikasleei, haiek sentsibilizatzeko asmoz.

Bestalde, eguenera arte, herribuseko hiru lineak doakoak izango dira. "Hala, garraio publikoa ezagutarazi eta bere abantailak ohartaraztea du helburu Udal Gobernuak".



Bi ikasle eskolara bidean, atzo. Bata patinetean eta bestea oinez. E.A.

Komisiñuak ez du Maritxu Kajoi jairik antolatuko aurten ere

Ez dute jaiak antolatzeko baldintzarik ikusten; halere, "debekuen garaiotan" herritarren esku utzi dute "arduraz eta askatasunez egunaz gozatzeko aukera". Gaineratu dute "baitortasunerako aukera" zabaldu nahi dietela Arrasateko herritarrei, "ikasitako osasun neurriak betez eta ardura kolektiboari muzin egin gabe".

Kaleratutako oharrean, agintariek pandemia garaian hartutako erabakiekin kritiko azaldu da Maritxu Kajoi Komisiñua: "Sindemia garai luze honek erakutsi digu ez direla osasunaren aurkakoak ez tabernariak, ez gazteak, ez kontzertuak, ezta herrigintza bera ere".

Kirol instalazioen mapa osatzen segitzen dute

Herritarrekin egindako saioren ostean, eztabaidarako taldearen txanda da orain. Hala, asteon egingo dute lehen saioa eta beste bi ere egingo dituzte, irailaren 21ean eta urriaren 5ean. Ausaz aukeratutako hamaika herritar eta zortzi erabiltzaile egongo dira taldean, kirol klubaren ordezkariarekin batera.

Hiru lan-saio horien bidez gaur egungo kirol azpiegituren diagnostikoa egingo du taldeak, eta esku hartzeko beharrak antzeman. Era berean, urriaren amaieran eta azaroaren hasieran karpeta jarriko dute kalean bost egunez, herritarrek euren iritziak utzi eta ekarpenak egin ditzaten.

Uribarri erretiratuen elkarteak martxan ditu izen-emateak

Aurtengo jardueretan parte hartzeko izen-ematea ireki du elkarteak. Izan ere, memoria, yoga, gimnasia, dantza eta pintura tailerrak egingo dituzte datozen asteetan. Interesa dutenak martitzen eta eguenean pasa daitezke Usaetxe plazako 6. atarian dagoen bulegotik, 17:00etatik 19:00etara.

Esaterako, atzo, eguena, bingoa egin zuten, eta, elkartearen presidentea Andoni Altzelaik azaldu duenez, eguneko bidaiak ere egingo dute Lizarrara, urriaren 14an. Irteera 09:00etan izango da, Ari-mazubiko autobus geltokian. Pertsona bakoitzak 32 euro ordaindu beharko ditu; hamarretakoa prezioaren barruan dago.

OHARRAK

Baserritarren azoka

Bihar, zapatua, egingo dute ikasturteko lehena, Seber Altuberen, 09:00etan hasita. Ohi moduan, sasoko produktuak egingo dira.

Besaide eguna

Besaide Mendizale Elkarteak eta Euskal Mendizale Federazioak antolatuta egingo dute, domekan: 11:00etan, oroimen ekitaldia; 11:30ean, lehendakariaren hitzartzea; eta 12:00etan, txosna irekitzea.

Elkarretaratzea etzi

Irailaren 19an, domeka, elkarretaratzea egingo dute, *Gora Arrasate, faxistak kanpora!* lelopean, 13:00etan, Arizmendiarririetan plazan.

ARRASATE
Musakola z/g ARRASATE.
Tel.: 943 71 10 30

Plan osasunfsua, goxoa eta merkea

Ondo jalea oso eraza da:

- Hamabost eguneko menuak:
 - Produktu freskoak
 - Nutri-Score A eta B
- Erosketa-zerrenda osasungarria
- Erezetak pausoz pauso

Horrela, ordu bakoitza 1 €-tan!

Bazkidea bazara **-5%**

0% Sero deskontua selmaleztatutako 'zerrenda osasungarria' produktuetan

Prezio onak.

0,55 €/kg

3,95 €/alea

0,70 €/alea

1,89 €/alea



Arrasateko pilotari gaztetxoak, duela bi urteko santamasetako txapelketako sari banaketa ekitaldian. GOIENA

Arrasate Pilota Elkartea, uzta jasotzeko ereiten

Gaur egun, 30 gaztetxo dabilta Uarkapen pilotan jokatzen, eta Arrasate moduko herri batendako ez da kopuru handia. Harrobia sendotzeko eta neskek erakartzeko lanean dabilta. 2012an, 2013an eta 2014an jaiotakoendako zabalik da izen-ematea

Xabier Urzelai ARRASATE

Kirol jarduera batzuetan lan-keta handia egin behar da gazteak erakartzeko, eta pilota da kirol horietako bat. Gipuzkoako herri txikiago batzuetan gazteen parte-hartze kopuruak Arrasatekoak baino askoz ere esanguratsuagoak izaten dira; izan ere, herri handietan eskaintza ere zabalagoa izaten

da. Kirol instalazioena izaten da kirol bat edo bestea aukeratzeko beste motiboetako bat, baina Arrasaten hori ez da arazo, Uarkapek aukera aparta eskaintzen du-eta pilotan egiteko.

Badira hiruzpalau urte Ordu Guztietan izeneko enpresa arduratzen dela harrobia kudeatzeaz: "Orain, 30 gazte inguru

izango ditugu, eta beste herri batzuekin alderatuta ez da kopuru altua, baina egoera hobetzen joateko dihardugu lanean. Urrian bost pilotari errendimenduan hasiko dira, eta horrek ilusioa pizten du gazteengan", dio Javi Gelbentzuz: "Izan ere, pilota bakarkako kirola da, eta taldeko kiroletan errazago egiten da aurrera".

"Emakumezkoendako, egun, pilota ez da erakargarria"

JAVI GELBENTZU ORDU GUZTIETAN ENPRESAKO KIDEA

Ordu Guztietan kirol zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa da, eta 2012an sortu zuten, Gipuzkoan euskal pilotak duen egoera eta beharrei erantzuteko. Bertako kide Javi Gelbentzuzekin (Lazkao, 52 urte) izan da GOIENA, pilotaz eta Arrasateko klubaz berba egiteko.

Zenbat urte daramatzazue Arrasaten lanean?

Esango nuke laugarren denboraldia hasiko dugula. Arrasateko zuzendaritzatik etorri zitzaizkigun harrobia lantzeko laguntza behar zutela esanez, eta horretan hasi ginen buru-belarri.

Zein da Arrasateko pilotaren egoera?

Bistan da 30 gazte izatea kopuru txikia dela Arrasateko moduko herri batendako. Lazkaon sei mila lagun bizi gara, eta maila txikietan 100 gazte baino gehiago ditugu,

baita neskek ere. Arrasaten ez dugu halakorik. Baina Arrasaten klub mordo dago eta eskaintza zabal da. Pentsa, etxeko baten bitartez jakin dut Arrasaten boleibola ere egin daitekeela. Boleibola! Herri txikietan ez dago halakorik. Bestalde, klubengandik inguruan geroago eta jende gutxiago ibiltzen da, garai baten boluntario mordo izaten ziren, baina gaur egun...

Lazkao, baina, erreferente da pilota mailan.

Bai, eta, hala ere, hemen ere kostatzen da pilotarietara aurrera egitea. Hor, kadete mailan borrokan ibiltzen gara. Pentsa, aurretik zortzi pilotari genituen eta zazpi futbolera joan dira. Baina hori dute talde kirolek, gazteendako erakargarriagoak direla. Pilota oso kirol jarduera gogorra da, eta bakarkakoa, gainera. Zailtasun handia behar da aurrera egiteko. Partiduetara etxekoek eramaten zaituzte, ez duzu lagunik ondoan... Eta askotan, gero, autoan partidua txarra egin duzula entzuteko [Barre]. Taldekako kirolek hori dute, taldearen babesa.

Neskek erakartzea ere baduzue helburu.

Baina hor plan integral baten hutsunea sumatzen dut, Jaurilaritzatik edo Diputaziotik bideratu beharko litzatekeena. Goitik beherakoak izan behar du; bestela, ez dago-eta askorik egiterik. Gaur egun, pilota ez da emakumezkoendako erakargarria, nahiz eta badauden pilotari batzuk. Lan handia dago hor egiteko.

Kirol instalazioen arazorik baduzue?

Hori Arrasaten, behintzat, ez da aitzakia, Uarkape frontoi zoragarria da! Nahiko nuke Lazkaon halako pilotaleku bat izan.



GOIENA

Gipuzkoarren arteko derbia du MUK lehen jardunaldirako

Eneko Mataren taldeak Donostiako Easo taldea hartuko du domeka arratsaldean Iturripen (18:30)

X.U. ARRASATE

Mondragon Unibertsitateak domekan hasiko du EBAn liga, eta derbi batekin hasiko du denboraldia, Easoren kontra (18:30). Arrasatearrak azken urteotan kategoriako erreferenteetako

bat bilakatu dira, bi urtez jarraian mailaz igotzeko borrokan ibili dira eta. Duela bi urte, arrazoi ekonomikoak tarteko, ez zuten pausoa eman, eta iazko denboraldian, Salou aldean jokatutako igoera fasean gauzak ez zi-

tzaizkien nahi moduan irten. Orain, berriz, entrenatzaile berriarekin ekingo diote erronka berri bati, Eneko Matarekin. Alde horretatik, baina, ez da iraultzarik egongo, Mata klubeko gizona da eta.

Hala, Arrasatekoek Euskal Kopan erakutsitako maila politarrekin ekingo diote ligari domekan. Santurtziko finalean galdu egin zuten Baskoniaren kontra, baina, emaitza baino gehiago, Sergio Sanchezek min hartu izana izan zen berri txarra.



Saskira botatzeko gertu. GOIENA

Ford Ingouk lagunartekoa du zapatuan Iturripen

Eskubaloian, Euskadiko Txapelketan urriaren lehenengo asteburuan hasiko dute liga, baina Arrasateko taldean denboraldia prestatzeko lanean jarraitzen dute. Hala, zapatuan (18:00), Ford Ingouk lagunartekoa jokatuko du, Leizaran taldearen kontra. Gazte mailakoek ere Leizarangoen kontra jokatuko dute, baina 16:00etan hasita.

Amaiako lehen doinuak, Triggerrek eta Pettik

Bihar bertan, arratsaldeko zazpietan, irekiko du publikoaren aurreko denboraldi berria udal antzokiak, bi euskal musikariren proposamenekin: 'Manipulazio estrategiak' aurkeztuko du Pettik; Triggerrek, berriz, 'Poliedro Vol. 1'. Bi lanak dira freskoak

Hasier Larrea ARRASATE

Udako aire zabaleko emanaldien testigua jasotzen dabiltza pixkanaka areto eta antzokiak. Udazkena ate-joka dator, eta kultura arloko langileak hasi dira agertokiak urtaro berrira egokitzen. Arrasateko udal antzokiak, esaterako, bihar jasoko du denboraldiko lehen ikuskizuna, Pettiren eta Triggerren kontzertuarekin. Izen artistiko horien atzean ezkutatzaren direnak Juan Luis Perez eta Eñaut Zubizarreta dira; bata beratarrak da eta bestea eskoriatzarra, baina biak ala biak etortzen dira gustura Arrasaten jotzeko esaten dietenean. Edo halaxe diote, behintzat.

Klasikotik garaikidera

Zubizarretaren kasuan, badu lotura estua Amaia antzokiarekin, nahiz eta Trigger bezala bertan joko duen lehen aldia izango den: "Arrasate Musikalek eman zidan musika arloko oinarrizko ezagutza, eta Amaian askotan izan naiz bandarekin Gabonetako kontzertuak eta zarzuelak eskaintzen, esaterako".

Txeloak du bidelagun, izatez musika klasikoarekin lotzen den instrumentua. Dena den, klasikotik gutxi entzungo du bere hirugarren lana, *Poliedro Vol. 1*, esku artean duenak. Izan ere, gehiago edaten du folk, rock, hardcore eta halako estilo garaikideetatik. Emaizta zuzenean ikusi dutenek hauxe esan diote: "Hasieran jorrazten hasi nintzen rap kutsuko kantuak baino goxoagoak eta teknikoagoak direla azken hauek".

Gainera, ikuskizunak berak ere badu berrikuntzarik, Triggerrekin batera igoko baitira oholtzara Quico Puges eta Jokin Garmendia txelo-joleak eta Amaia Luluaga dantzaria. "Bizitzaren bidezidorretan" ezagutu dituela dio eskoriatzarrak, bakoitzak proiektuari bere ale-



Ezkerrean, Petti, Otala Zelain iaz; eskuman, Trigger, entseatzeko. GOIENA / IRINA ALVAREZ



MOMENTU GOZOAN DAUDEN BI MUSIKARIK PARTEKATUKO DUTE ESZENATOKIA

txoa jartzeagatik pozik: "Hiru musikariok oso ondo sinkronizatzen gara jadanik, eta Luluagaren mugimendu garaikideek balio gehigarria ematen diote emanaldiari".

Petti, lagunekin

Haren ostean joko du Pettik, beste ia dozena bat musikarirekin batera; tartean egongo dira *Et incarnatus Orkestra* hari laukotea, Juantxo Zeberio piano-jolea eta bere ohiko taldeak, esaterako. Horri lotuta, *Manipulazio estrategiak* diskoan "lagun askok" kolaboratu zutela aipatu du, eta, hein batean, horregatik dela "orain arte grabatutako lanik borobilena".

ekoizpen aldetik ez ezik, politikoki ere indar handiko lan kontzeptuala dela azaldu du, are gehiago, jakinda Noam Chomski pentsalariaren ideietan oina-

rrituta dagoela: "Komunikabideen mezuak dira kantu guztien ardatza; Harkaitz Canok idatzi ditu letrak, eta bereziki gustatzen zaizkit, ironiaz, sarkasmoaz eta poesiaz busti dituelako gaiak".

Egutegiak, beteta

Bi artistek onartu dute "zorionez, oso lanpetuta" dabiltzala garaioan. Pettiren hitzetan, "inoiz idatu aurretik, eta, urrutira joan gabe: "Gaur bertan Villabonan izango naiz eta domekan Otxandion". Trigger ere ez dago denbora alferrik zahutzeko moduan, "Wood Strings taldearekin disko berria aurkeztu eta bere lan pertsonalaren banaketa-fasean murgilduta" dagoela aintzat hartuta.

Eta Amaia antzokiarekin beste horrenbeste gertatzen da. Behin martxa hartuta, ez dirudi atsedean handirik emango diotenik aretoari. Hilaren 19an eta 20an, *Nora* euskal filma proiektatuko dute, 19:00etan; haurrentzako eskaintza ere egongo da domeka honetan, 16:00etan, *Spirit* pelikularekin. Datorren zapatuan, berriz, *Maestrissimo* ikuskizuna ekarriko dute.

Lozorrotik esnatuko da 'Herrixa dantzan' dinamika urrian

Plazako dantza tradizionalak ikasteko aukera eskainiko du, berriz ere, urte eta erdiren ostean, Portaloi elkarteak. Lehen bezala, Patxi Montero izango da saioen gidaria. Urriaren 4an hasita, maiatzera arte, astelehenero batuko dira euskal dantzak praktikatzeko gogoz dauden herritarrik. Hitzorduei Mesedetakoan ikastetxean ekingo diote, harik

eta Kulturola erabilgarri egon arte. Bi multzotan sailkatuko dira ikastaroak: 17:30ean, *dantza-txokoaren* txanda izango da, eta 19:00etan, oinarrizko maila ikasi nahi dutenena.

Aurtengoak helburu bikoitza duela jakinarazi dute antolatzaileek: "Gure plazetan egin ohi diren dantza molde guztiak eza-gutzeaz gain, gorputza, gogoak, neuronak, animoa eta osasun fisiko, psikiko eta emozionala astintzea". Izen-emateak, AEDn eta Gazte Txokoan.

Bibliotekak kurtso osoko jarduerak aurkeztu ditu

Literatura solasaldiak eta ingelesez praktikatzeko saioak egingo dira, besteak beste, ikasturte berrian. Urtarrilean etorriko da berrikuntza nagusia, 4 eta 6 urte bitarteko haurrek eta haien gurasoek, elkarrekin, literaturaz gozatzeko ipuin-jolas txokoarekin. Izen-ematea hilaren 20tik 25era arte izango da, udal bibliotekan eta webgunean.

Arte garaikidea jasoko du Kulturateko klaustroak egunean

M. Benito Piriz, Ainhoa Leke-rika eta Ander Perez artista gazteen topaketatik sortu zen *Mala xena nunca muere* izena daraman erakusketa. Eskulturak, bideoak eta argazkiak erabiliz, piezek erakusketa-muntaia bat osatuko dute, Kulturateko klaustroa mugatuko duen kristalezko kuboaren bidez. Urriaren 17ra arte egongo da ikusgai.

Ikasi euskara, bidelagun onenarekin



Debagoienerako AEK

KLASE PRESENTZIALAK ETA ONLINE

A1, A2, B1, B2, C1, C2 mailak
Mintzapraktika taldeak
Autoikaskuntza
programa + tutoretzak + praktika

Matrikula: 2021/09/01 - 2021/09/30
Ordutegia: 10:00 - 14:00 / 17:00 - 20:00

Burriz 21, behea, Arrasate - 943 77 03 69
arrasate@eak.eus
twitter.com/debagoienerakoek
www.facebook.com/debagoienerakoek

DIRULAGUNTZAK

Bekak Arrasateko Udaleraren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz!



Pedro Ignazio Barrutia kalean jarri zuten argazki zaharren erakusketa. A.E.G.



A.E.G.

Ondo aireztatzeko, leiho berria

Anbulatorioan lan txiki batzuk egin dituzte astean zehar. Erizainaren eta medikuaren gelen artean dagoen analitika eta sendaketa-gelan leiho berri bat zabaldu dute. 663,46 euroko kostua izan dute lanek eta Alberto Garcia Ripa enpresak egin ditu. Modu horretan, aireztapena izango du gela horrek aurrerantzean.

Argazkiak batu eta artxibatuzeko deialdia

Aramaioko Udalak artxibo historikoa osatu nahi du; aurrez, proiektuaren lehenengo fasean, 1960tik aurrerako argazkiak bildu eta artxibatu zituzten. Orain, hasitako bideari jarraipena eman nahi diote, eta data hori baino lehenagoko argazkiak jaso

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO

Aramaioko Udalak argazki zaharrak jasotzen jarraitzeko konpromisoarekin jarraitzen du. Hala, argazkiak jaso eta artxibatuzeko deialdiaren epea luzatu egin dute: urriaren 14ra arte aurkez daitezke proposamenak udaletxean.

Maiatzeko osoko bilkuran onartu zuten deialdia egitea, eta, lehenengo epean inork izenik ez zuela eman ikusita, berriro ere zabaldu dute aukera. Gainera, Mondragon Unibertsitatean Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasten ari direnen artean ere zabaldu dute deialdia.

Jaso eta artxibatu

Asmoa da artxiboa osatzen joatea. "Orain dela urte batzuk, Udalak beka bat atera zuen eta pertsona bat ibili zen argazki zaharrak biltzen, baserri base-ri", azaldu du Rosa Mondragonek, Euskara teknikariak. Argazki horiek jasota, eskaneatu eta artxibatuta daude.

Proiektua egiteko laguntza

Hautagaiak proiektu bat aurkeztu beharko dute aipatutako epearen barruan –taldeka ere egin daiteke lana-. Udalaren web atarian dauden inprimakiak bete beharko dira, eta inprimakian zehaztu beharko da, besteak beste, nola egingo duten lan. Udalak 2.000 euroko partida onartu zuen lan horiek egiteko.

Landa eta artxibo lana egin beharko da: batetik, etxez etxe argazkiak bildu; eta, bestetik, digitalizatu eta artxibatu. Udalak ezarritako irizpideei jarraituta egin beharko da lana. Lan hori bukatutakoan, proiektua bera nola herriratu erabaki beharko dute udal ordezkariak.

LEHENENGO FASEAN JASOTAKO IRUDIEKIN ERAKUSKETA ZABALDU ZUTEN KALEAN

Erakusketa kalean

Proiektuaren lehenengo zatian, 1960tik aurrerako argazkiak bildu eta artxibatu zituzten. Orain, data hori baino lehenagokoak batu gura dituzte.

Lehenengo fasean jasotako argazkiak artxibatuta dituzte udaletxean. Hala ere, egindako lana herritarrei erakusteko asmoa erakusketa jarri zuten Pedro Ignazio Barrutia kaleko horman, behin betiko.

2019ko abenduaren 20an inauguratu zuten kaleko erakusketa. Kalean ez dituzte artxibatutako argazki guztiak jarri, kalitate handiena dutenak bakarrik. Garbitu eta txukundu egin zituzten, Alex Mendikuterren laguntzarekin, eta ondoren, euskarri gogor batean inprimatu.

Metro koadro bateko tamaina dute argazkiek eta pertsonak dira protagonistak; batez ere, emakumeak. 1900. urtekoa da argazki zaharrena eta Artabe (Barajuen) baserriko Juana da protagonista.

Kiroldegiko kantxa erabiltzeko eskaerak, irailaren 21erako

Iazko moduan, kiroldegiko kantxa alokatzeko aukera egongo da oraingoan ere, aurrez eskaera eginda. Udalak antolatu du egutegia, kirol elkarteekin eta eskolaz kanpoko ekintzen arduradunekin. Hala, astean zehar hainbat ordu libre geratu dira. Horiek alokatzeko aukera egongo da.

Orduak dira: astelehenetan 17:00etatik 18:00etara eta 19:00etatik 21:00etara; eguenetan 17:00etatik 21:00etara; eta egubakoitzetan 17:00etatik 18:00etara.

Ordu horiek erabili gura dituenak irailaren 21a baino lehen egin beharko du eskaera: udaletxean bertan edo modu telematikoan.

Zukua eta sagardoa egiteko txandak emango ditu ASEK

Aramaioko Sagarzaleen Elkar-teak hainbat erabaki hartu zituen irailaren 3an egindako batzar orokorrean. Horien artean dago aurten berriro ere emango dituztela zukua eta sagardoa egiteko txandak. Eguaztenean zabaldu zuten denboraldi berria ASEn.

Elkartetik kanpoko jendeari ere eskainiko zaio zukua eta sagardoa egiteko aukera aurten. Mendixolako zentroa erabili gura duenak aurrez egin beharko du eskaera, 631 17 02 64 telefono zenbakira deituta.

Pandemia egoeran, azken urtean, ASEK ez dizkio Mendixolako zentroko atek elkartetik kanpoko jendeari zabaldu.

OHARRAK

VII. San Martin pilota txapelketa

Gaur, 18:00etan, infantilak eta kadeteak lehiatuko dira; domekan, 10:00etan hasita, alebinak eta benjaminak.

Besaide Eguna

Besaideren oroimen eguna ospatuko dute domekan, Besaide Mendizaleen Elkar-teak eta Euskal Mendizale Federazioak antolatuta. 11:00etan izango da oroimen ekitaldia.

Kuadrillako argazki lehiaketa

Gorbeialdeko Kuadrilla osatzen duten herrietan egindako argazkiak izan beharko dute, eta gaia librea izango da. Urriaren 14rako aurkeztu beharko dira lanak.

"Espazio fisikoak gertutasuna ematen du"

EDUR KORTABARRIA ILUSTRATZAILEA

Nomadak Gaitun! azoka ibiltaria Azpeitian estreinatu zuten, uztailean. Edur Kortabarria aramaioarra da proiektuaren bultzatzaile eta sortzaileetako bat

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO
Dinagu kolektiboak *Nomadak Gaitun!* proiektua sortu du: emakume sortzaileen azoka ibiltaria. Bizkaian egingo du azokak hurrengo geldialdia.

Nola sortu zitzaizuen Nomadak Gaitun! azoka egiteko ideia?

Dinagu kolektibotik datorren proiektua da. Orain dela hiru urte, Gabonetako azoka batean elkartu ginen lau emakume sortzaile: Agara Agirre bitxigilea, Ilazki Lili Biziki markaren sortzailea, Maialen Irastorza Maiala markaren sortzailea eta ni neu. Postua jartzeak dakarren gastua elkarbanatzea zen asmoa, eta gustura geratu ginen emaitzarekin. Udan ere errepikatu egin genuen, eta epe motzerako zabaltzen diren *pop-up* erako dendak ireki genituen, Zarautzen eta Getarian. Hori horrela, emakume gehiago hasi ziren interesatzen egiten genuen horretan. Uda aurretik, Dinagu moduan zer egin genezakeen pentsatzen jarri ginen, zer eskaini genezakeen. Pentsatu genuen jendea herritik ezin zenez mugitu, guk egin genezakeela azoka ibiltaria. Gaur egun, lantaldean, Leire Aiartzaguena, Ehule; Karmele Salsamendi, Kool Studio; Mainer Gaztelumendi, Luma moda etiko; Agara Agirre, Biziki; eta Edur Kortabarria gaude.

Azpeitian egin zenuten lehenengoa?

Bai, uztailean Azpeitiko azoka plazan egin genuen lehen *Nomadak Gaitun!* azoka ibiltaria. Euskal Herriko emakume sortzaileak joan ziren, euren produktuekin. Gure asmoa da herriaren arabera hautatzea emakume sortzaileak. Gu ia beti egongo gara eta herriaren edo eskualdearen arabera aukeratu ditugu gainerakoak.

Noiz egingo duzue hurrengoa?

Momentu honetan prestatzen gabilta, eta gure asmoa da urrian Bizkaian egitea. Euskal Herriko lurralde historiko guztietan egin



Dinagu kolektiboko kideak; Kortabarria, ezkerretik laugarrena. E.K.

"PROIEKTU PERTSONALAK DIRA, TXIKIAK, JASANGARRIAK ETA BERTAKOAK"

gurako genuke: Gipuzkoan egin dugu eta hurrengoa Bizkaian izatea gurako genuke. Azaroan Araban egingo dugu.

Nolako harrera izan du azokak?

Egun osoko egitaraua prestatu genuen. Emakume sortzaileen produktuez gain, Azpeitiko azokan emakume nekazariak euren espazio propioa daukate. Azoka plazak mahaiak eta sukaldea ditu... Egokia iruditu zitzaigun horrelako zerbait egiteko. Publikoaren aldetik erantzun oso ona jaso genuen. Azkenaldian, badago bertakoa kontsumitzeko nahia, eta jendea etorri zen ikusi eta erostera. Proiektu pertsonalak dira, txikiak, jasangarriak eta bertakoak. Herritarren artean kontsumo eraldaketa sustatu nahi dugu.

Zer eskaintzen duzue azokan?

Orain arte, ilustrazioak, moda, bitxigintza eta osagarriak jarri

izan ditugu. Azpeitiko kasuan jakiak ere izan genituen emakume nekazarien eskutik. Egia da gaur egun sare sozialak aukera oso ona direla bezeroarengana iristeko. Baina azokak eskaintzen duten espazio fisikoak beste gertutasun bat ematen du, pertsonalagoa. Kontuan hartu behar da gutariko gehienok ez dugula espazio fisikorik, dendarik, gure produktuak saltzeko.

Nabaritu duzue kontsumo eredu aldaketarik gertatu denik?

Bai, nik esango nuke gertatu dela aldaketa. Bertakoaren alde egiten hasi dira asko. Egia da *low cost* denden aldean lan handia egin behar dugula... Jendeak gero eta gehiago baloratzen du proiektu txikien atzean dagoen lana, eta horren alde apustu egiten ari gara bai sortzaile bai kontsumitzaile bezala.

Gaur egun, zein da zuen kompetentzia handiena?

Gure kompetentzia handiena munstro horiek maneiatzen duten *low cost* merkatua eta eskaintza dela esan daiteke. Gainera, nabarmendu behar da gure balioa dela guk ez dugula gure artean elkar lehia edo kompetentzia moduan ikusten.



NIRE USTEZ

JOKIN LARRAÑAGA

Etxetik at

Elektrizitatez kargaturik azala. Ileak zorrotz, arnasa etenda. Jendetzaren oihuak argiekin nahasi dira, ozentasun nahasia bularreko taupaden soinu mutuan ito den arte. Segundo bakar bat, oholta, eta hirurok. Naizen guztia ahaztu, eta urduritasunaren besarkadapean, lotsak eta beldurrak eratutako amildegiaren barrenera salto egiteko aukera paregabea.

Ez du zentzu larregi, baina inoiz baino biziago sentitzen naiz hemen. Nire *comfort zone*-etik at. Biok euskaldunak izanda, agian etxetik at esatea aproposagoa litzateke. Abeslari lanetan hasi nintzenean ez nuen uste hainbeste gustatuko litzaidakeenik, hasiera batean kontzertuak ematea ez baitzegoen nire asmoen artean. Baina aitortu beharra dut publiko izatetik oholta gainera igotzeko gauza ugari irakatsi dizkidala, eta ez nuen bakarria ere ikasiko lotsak albo batera utzi izan ez banitu.

Etxean gustura egoten den arren, beldurra etxetat hartzeko gai denak bere egingo baitu mundua. Etxetik at, zu zeu.

Arabako Bertsolari Txapelketako izen-ematea zabalik dago

Dagoeneko zabalik dago 2022an jokatu den Arabako Bertsolari Txapelketarako izen-ematea. Irailaren 19ra arte egongo da horretarako aukera. Interesa dutenek araba.sustapena@bertsozale.eus helbidera idatzi edo 675 70 79 71 telefono zenbakira deitu beharko dute. Txapelketaren aurkezpena urtarrilaren hasieran izango da.

Aitor Aranaren omenezko martxa, irailaren 25ean

Aitor Aranaren omenezko mendibildia irailaren 25ean, zapatua, egingo dute. Egunean bertan eman beharko da izena, 5 euro ordainduta. 08:00etan hasiko da ibilaldia, 25,2 kilometrokoa, Aramaioko kiroldegian –Kruzeta, Jarindo, Orixol, Lezia, Tellamendi–. Irteeran eta anoa-postuetan maskara erabili beharko da.



SERGIO AZKARATE

Espainiako Vueltako porra

44 partaide izan ditu Añai tabernak antolatutako duen ziklismoko Espainiako Vueltako porrak. Domekan, sari banaketa ekitaldia egin zuten. Saillapen orokorrean, lehenengo postuan berdinduta geratu ziren El divo eta La diva taldeak; eta hirugarren geratu zen Solomeoparedes taldea. Saillapeneko lehenengo hamar taldeek jaso zuten diru-saria.



Manu Diaz, Jabier San Migel, Andoni Iraola, Agurtzane Elkoro, Unai Elkoro eta Aitor Mendibil. XABI URZELAI



Herriko mendizale talde bat Leixargarateko aterpetxearen aurrean. UDA



Afizionatu mailako Espainiako Txapelketa irabazi zuen taldea. UDA

UDA: 75 urteko lanari aitortza

Aretxabaleta Kirol Elkartearen izenean sortutako lehenengo futbol taldeak 1946ko irailaren 15ean jokatu zuen lehen partidua; ordutik hona, 75 urte pasatu dira, eta egindako ibilbide oparoa herritarrekin batera ospatzeko ekitaldi asko iragarri dituzte

Mirari Altube ARETXABALETA

Aretxabaleta Kirol Elkarteak kideek ekin diote 2021-2022 denboraldiari. 600 kirolarik baino gehiagok jardungo dute UDArekin; futbol jokalaria gehienak, baina badaude areto futboleko dihardutenak, pilotariak, karate taldean dabiltzanak eta gimnasia erritmikoan –izena emateko epea oraindik ere zabalik dago–. Helburu nagusia kirola egitea da, Agurtzane Elkoro presidentea dioen legez: "Kirola berdin osasuna delako". Eta horientzat guztientzat berezia izango da aurtengo denboraldia, 75 urte beteko dituelako elkartek.

'Herriaren hauspoa'

"Aretxabaletari eskaini gura dizkiegu 75 urteok, eta UDArekin egon diren ehunka laguni", azaldu zuen Agurtzane Elkoro urteurrenaren nondik norakoak

aurkezterakoan komunikabideen aurrean. Alboan ziren Unai Elkoro alkatea, Gipuzkoako Futbol Federazioko presidentea Manu Diaz eta Realeko ordezkari Andoni Iraola eta Aitor Mendibil. Hautatu duten leloak ere hori erakutsi gura du: *Herriaren hauspoa*. "UDAk beti lan egin gura izan du herriarendako eta harekin elkarlanean. Eta herri barik ez gara ezer".

Ospakizunei zapatuan, irailaren 18an, ekingo diete. 1978an egindako legez –UDaren 50. urteurrenaren–, Kurtzebarri mendiko gurutzeari argiztatuko dute, eguraldi ona eginez gero. 22:00etatik 23:15era bitartean izango da eta Aretxabaletatik ikusiko dute herritarrek. "Boluntario mordoa dabilta lanean hori posible izan dadin", zioen Elkoro.

Urriaren 15ean, ostera, *Herriaren hauspoa* ikus-entzunezkoa

aurkeztuko dute. Hainbaten testigantzekin osatu duten 45 minutuko dokumentala da eta Arkupen emango dute hilabete batez, egubakoitzetan, debalde. Horiez gain, beste ekintza mordoa izango direla aurreratu zuen Elkoro; lantalde batek dihardu horiek zehazten eta antolatzen, eta guztiaren berri emango dute datak iritsi ahala.

Futbol taldea, elkarte

1946ko andramaixak antolatzeko egindako ahaleginaren berri izan zuenean Juventud Deportiva Mondragon elkarteko Jose

ZAPATUAN EHINGO DIETE OSPAKIZUNEI, KURTZEBARRIKO GURUTZEA ARGIZTATUTA

Ayala presidentea, Aretxabaletako gazteengana jo zuen futbol talde bat sor zezaten animatzera. Azken unean eta presaka, baina moldatu zuten taldetxo bat Eskoriatzako, Arrasateko eta Aretxabaletako mutilekin, eta irailaren 15ean jokatu zuten lehen partidu ofiziala. Iturripen izan zen eta Arrasateko elkartek utzitako jantziak eta materiala erabili zituzten; izena ere hark utzi zien: Juventud Deportiva Arechavaleta.

Taldeak aurrera egiteko elkarre sendo baten beharra zegoela jakitun, 1947ko urtarrilaren 19an udaletxean elkartu ziren; estatutuak gertatu zituzten, baita batzorde bat osatu ere, eta apirilaren 13an egin zen lehenengo batzar nagusia; Juan Luis Izagirre izan zen lehen presidentea. Orduan erabaki zuten bost federaziotan izena ematea: futbola, pilota, txirrindularitza, atletismoa eta mendia.

Klubaren izena hautatzeko, herritarren artean inkestatxo bat egin zuten. Kontuan hartu zituzten elkarteari izaerarekin zerikusia edukitzea, motza izatea eta euskal kutsua zuena. Armarriari dagokionez, Kurtzebarri mendia eta Zaraia mendizerra, aingerua eta Noeren kutxa jarri zituzten; armari hori moldatzen joan da urteek aurrera egin ahala. Urteurrenaren harira, armariaren dute banderatzeko berriak egin dituzte Euskal Herriko beste klub batzuekin trukatzeko, eta lehenengoak Gipuzkoako

Futbol Federazioko eta Realeko ordezkariak jaso zituzten.

Herritarrek ondo baino hobeto ezagutzen duten ereserkiaren musika Demetrio Iriarte txistulari eta konpositoreak sortu zuen, eta berbak Paulo Urkiak idatzi. Futbol taldearen jantziak, ostera, Juventud Deportiva Mondragonek lehenengo partidurako utzitakoak hartu zituen eredu, eta orduko koloreak dira, hain zuzen ere, gaur egun erabiltzen dituenak: kamiseta urdin argia eta marra zuria ezkerretik eskumara.

Espainiako txapelidun

Urteurren bakarra ez, beste bi ere izango ditu gogoan UDAk aurtengo denboraldian: batetik, Afizionatu Mailako Espainiako Txapelketa irabazi izana; eta, bestetik, Leixargarateko aterpetxearen irekiera. 1971-1972 denboraldia "sekulakoa" izan zen futbolari dagokionez. Juan Arriaran entrenatzailearen aginduetara jardun zuen lanean taldeak –Santi Idigoras, Jose Migel Uribarren, Patxi Agirrezabalaga eta Isidro Vicente Calvo zeuden, besteak beste– liga irabazi zuen lehenengo, Hirugarren Mailarako txartela lortu zuen gero, Afi-

'HERRIAREN HAUSPOA' DA URTEURRENEKO EKITALDIAK BATUKO DITUEN LELOA

zionatu Mailako Gipuzkoako Txapelketa irabazi ere bai, eta, azkenik, 1972ko uztailearen 16an, Espainiako Txapelketa eskuratu. Garaipen hura sekulakoa izan zen aretxabalarrendako, eta ondo gogoan dituzte askok orduko ospakizunak.

Futbolarekin batera mendirako zaletasun handia zegoen orduan. Hortik aterpetxe bat izateko gogoia, eta hainbatetan ahalegindu ziren egiten Degurix inguruan. Azkenean, Arrasateko Besaide mendi elkartearekin batera, Leixargaraten eraiki zuten, eta 1971ko irailaren 5ean inauguratu. Gaur egun, Murruxio mendizale taldeak du horren ardura.

Kirolariak eta proiektuak

75 urteko ibilbidean kirolari askoren harrobi izan da UDA. Lehen Mailako jokalarizandakoen artean daude Bixente Etxeandia, Alavesen; Andoni Zubizarreta, Athleticen, Bartzelonan eta Valentzian; eta Jose Javier Barkero, Realean, besteak beste. Santi Idigoras oñatiarra eta Luis Mari Lopez Rekarte eta Andoni Gorosabel arrasatearrak ere UDAko harrobikoak dira. Futbol jokalariez gain, beste kirolari batzuk ere ezin dira ahaztu; atletismoan, esaterako, Ramon Jausoro –1986an Gipuzkoako txapelduna pista– eta Joseba Larrinaga –1996ko Atlantako Olinpiar Jokoetan zilarrezko domina–.

Arrakasta izan duten kirolariak sortu ez ezik proiektu esanguratsuak ere jarri ditu abian kirol elkarteak. Eskua Proiektuari 2012an heldu zioten, Igor Arenazak gidatuta. Futboleantrebatzeaz gain, alderdi emozionala lantzen hasi ziren jokalarizagaztetxoekin, fokua errespetuan jarrita. 2017an, oster, UD@A proiektuari heldu zioten, San Juan de Dios ospitalearekin elkarlanean. Horren helburua da substantzien kontsumoa prebenitzea kirolarien artean, eta horretan dihardute oraindik. Proiektu horrek, gainera, Jaur-laritzako Osasun Sailaren *Elkar ginez* aitortza jaso zuen apirillean.

UDAREN lanari balioa

Erakunde askok zoriondu dute elkarte egunotan. Unai Elkoro alkateak eskerrak eman zizkien urteotan lanean jardundako guztiei, eta balioa eman zien UDAREN izaera bereziari eta

"4.000 ikusle elkartu ziren Ibarren, Espainiako Txapelketaren bueltan"

JABIER SAN MIGUEL PRESIDENTE OHIA

Bi denboralditan izan zen presidente, 1970 eta 1972 artean, futbol sailak loraldia bizi izan zuenean.

Jokalaria ez zinen izan, baina bai UDAREN bueltan lanean jardundakoa; presidente, adibidez.

Urte askoan egon nintzen, modu batera edo bestera, baita presidente ere; hain zuzen ere, niri tokatu zitzaizkidan elkartaren 25. urteurrena ospatzea. Gogoan dut 1971n, Gipuzkoako Kopa irabazi, Tolosan, eta esan genuela: hurrengo urtean ahalegin

berezia egin behar dugu 25.

urteurrena ospatzeko. Halaxe, errepikatu ezin den denboraldia izan zen: liga irabazi, Hirugarren Mailarako txartela lortu eta Espainiako Txapelketa irabazi.

Herriarendako poztasun handia, ezta?

Sekulakoa. Aretxabaleak orduan



XABI URZELAI

ez zituen 5.000 biztanle, eta 1.000 bazkide genituen; futbol zelaietan 4.000 pasa elkartu ziren txapelketa haren bueltan. Izugarriko zaletasuna zegoen eta herritarrak, gizonak zein emakumeak, gehien mugitzen zuen taldeetako bat zen.

UDA ez da futbola bakarrik, ezta?

Ez; 1971n, Leixargarateko aterpetxea zabaldu zen eta Mendi Federazioko presidente Iriondo etorri zen ekitaldira. Gustuko zuen futbola, eta, Aretxabaleak Arrasaten jokatzeko zuzenean, partidua ikustera eroateko eskatu zidan; hara joan ginen biok.

25. urteurreneko zein oroitzapen duzu?

Ederra. Zaraia zinemaren egina genuen ekitaldia, eta Juan Luis Izagirre fundatzailea omendu. Gipuzkoako hainbat elkartetako presidentek etorri ziren. Harreman polita genuen guztiekin.

Penatxorik geratu zaizu?

Eskoriatzarrekin batera osatutako talde bat sortzeko ahalegina egin genuen, UDAKDE izenarekin. Denboraldi bat egin zuen talde hark, baina ez zuen indarrik hartu.

herrian egindako lanari: "Kirol elkarte bat baino gehiago da. Izan ere, herriarekin duen lotura estua eta berezia da". Eta azken urteotan abian jarritako proiektuak goraiatu zituen: "Kirolariak formatzetik pertsonak formatzera pasatzeko hartu duzuen erabakia oso garrantzitsua izan da eta Udala bidelagun izango duzue horretan".

Gipuzkoako Futbol Federazioko presidente Diazek ere eskerrak eman zizkien: "Ez da bakarrik kirol arloan egiten duzuen lana, baizik horrek herrian duen eragina; toki gutxitan ikusten da halako lotura eta elkarlana". Realeko kide Iraolak berretsi egin zuen hori: "UDA bezalako klub funtzio soziala, lanaren balioa, aldarrikatu beharra dago. Realak UDA gertu bizi eta sentitzen du; espero UDAK ere horrela sentitzea".

Antolatutako ekitaldiak

Urtean zehar egingo dituzten ekitaldietako batzuk:

- Kurtzebarriko gurutzeta argizatzea.
- 'Herriaren hauspoa' ikus-entzunezkoaren estreinaldia.
- Hitzaldiak pintxopotearen inguruan.
- 75 zehaztu landatzea.
- Horma-irudia margotzea futbol zelaietan.
- Dantza erakustaldia.
- Omenaldiak.
- Argazki erakusketa herriko hainbat txokotan.
- Hainbat txapelketa.
- UDA Eguna.



Gazte bat patinetarekin skate gunean. IBAI ZABALA

'Bixi' programari hasiera emateko, skate jaia zapatuan

Nerabeek aisialdiaz modu dibertigarri eta osasungarrian gozatzeko egitasmoa aurkeztu dute asteon

Imanol Beloki ARETXABAETA

Bixi programa aurkeztu zuten martitzenean Eskoriatzako eta Aretxabaleako udaletako ordezkariak Aretxabaleako skate parke gunean. Hain zuzen ere, 12 eta 17 urte bitarteko nerabeei zuzenduta, aisialdiaz modu dibertigarri eta osasungarrian gozatzeko hainbat jardura prestatu dituzte asteburura begira, nerabeen artean droga kontsumoa prebenitzeko duela urte batzuk garatu zen egitasmoa abiapuntu izanda.

Nerabeen artean droga kontsumoa prebenitzeko duela urte batzuk garatu zen egitasmoan du abiapuntua ekimenak. Ainhoa Cabero Aretxabaleako Kultura zinegotziak azaldu zuenez, "nerabeek aisialdia nola bizi duten aztertu zen eta denbora hori modu osasungarriagoan bizitzeko zituzten beharrak identifikatu ziren".

Lau lagunentzat dute tokia Kuku Mikuren guraso eskolan

Kuku Miku elkarteak guraso eskolaren ikasturtea hasiko du. Duela bospasei urte jarri zuen martxan, Nerea Mendizabal psikopedagogo eta gizarte hezitzaileak gidatuta, eta helburua nagusia da gune babestu bat eskaintzea, seme-alaben hezkuntzan sortzen diren zalantzak, ezinak, zailtasunak eta gatazkak parte-

Skate jaia eta 'paintball'-a

Lehen ekimenak sanmigeletako eta Inauterietako jai giroan egin ziren. Pandemiak eragindako geldiararen ondoren, *Bixi* egitasmoari berriro ekingo diote hemendik aurrera, nolabait erregulartasuna izango duen ekintza-programa batekin. Horrela, lehen hitzordua zapatu honetan, irailaren 18an, izango da, Aretxabaleako Ibarako skate parkean. Bertan, 17:00etan hasita, skatearen teknikak ezagutzeko aukera egongo da ikastaro baten bidez. Horri jarraituz, lehiaketa egingo dute –izen-emateak, 17:30etik aurrera–, eta bukatzeko, erakustaldia, 19:30ean.

Paintball-a, berriz, irailaren 25erako proposatu dute. Ibarako berdegunean izango da, 16:00etan hasita. Izen-emate taldeka –gehienez zortzi kide– edo banaka egin ahal izango da.

katzeko. Praktikoak eta dinamikoak izan ohi dira saioak, eta askotariko gaiak lantzen dituzte: beldurrak, agresibitatea, sexualitatea, komunikazioa, egoera gatazkatsuak...

Lehen saioa irailaren 30ean izango da eta taldean oraindik lau lagunendako dute tokia. Informazio gehiagorako, 625 42 31 25 telefono zenbakira deitu edo kukumikuelkarte@gmail.com helbidera idatz daiteke. Oraingoz, online egiten dituzte saioak.

Sanmigeletako azoka, formatu egokituan

Artisautza eta nekazaritza ekologikoaren 26. edizioa izango da aurtengoa, eta hogeita hamar postuk jantziko dute azoka. Erakustokiak Durana eta Mitarte kaleetan jarriko dituzte, eta, berrikuntza gisa, baita Iralabarri plazatxoaren azpian ere

Imanol Beloki ARETXABALETA

Pandemiak iaz eragindako geldialdiaren ondoren, sanmigeletako azoka berreskuratuko da aurtengoa, formatu egokituan. Eszenatoki berriak gehituko dituzte, eta postuen arteko distantzia ezarri, pandemiari aurre egiteko gainerako prebentzio neurriak bermatzeko. Durana eta Mitarte kaleek eta, berrikuntza gisa, Iralabarri artisautza eta nekazaritza ekologikoaren azoketako hogeita hamar erakustoki jasoko dituzte. Feria irailaren 25ean izango da, 10:00etatik 14:00etara bitartean.

Bertako ekoizle eta artisauak

Sanmiguel kulturala izenpean aurkeztu dute asteon programa, eta ekitaldian parte hartu dute Unai Elkoro Aretxabaleetako alkateak, Ainhoa Cabero Kultura zinegotziak eta Inma Miguel teknikariak, eta baita Ariane Unanue erlezainak ere, artisauen eta nekazarien ordezkari. Bertan adierazi zuten, aurreko edizioetan moduan, pintura, bitxiak, ehungintza, ilerako osagarriak, kakorratza... egongo dira ikusgai, eta produktuak salgai, eskualdeko artisauak jarriko dituzten hamalau postuetan. Batez ere, Aretxabaleta eta Arrasatekoak. Bestalde, Biolur elkartearekin batera antolatzen den nekazaritza ekologikoaren azokak hogeita hamar erakustoki jarriko ditu: barazkiak, frutak, gazta, marmelada, arropa ekologikoa... izango dira.

Aretxabaleetako txistularien dianarekin emango zaio hasiera azokari, 10:00etan. **Tril** Emakume Taldeak prestatutako taloak dastatzeko aukera ere egongo da, Herriko Plazan, eta, gainera, Lekaixoka bertso-eskolakoek antolatuta, *Balkoitik balkoira* bertso saioak giroa jartzen lagunduko du, Igor Gaztelumendi eta Etxahun Elortza bertsolariekin. Saioa udaletxe zaharre-



'Sanmiguel kulturala' aurkezten izan ziren ordezkariak. HASIER LARREA

Egitaraua

Irailak 25, zapatua

- 10:00-14:00 Artisautzaren eta Nekazaritza Ekologikoaren 26. feria. Durana kalean, Mitarte kalean eta Iralabarri plaza azpian.
- 10:00 Diana.
- 11:00-13:30 Loramendiko 'Tril' emakume taldearen 'Talo txosna', Herriko Plazan.
- 13:00 Lekaixokak antolatuta, 'Balkoitik balkoira' saioa, udaletxe zaharrean, Igor Gaztelumendi eta Etxahun Elortza bertsolariekin.
- 16:30 Nerabeentzako 'paintball'-a, Ibarra zelaian.
- 19:30 'Iratzar kantari' emanaldia, Herriko Plazan.

Irailak 26, domeka

- 13:00 Herri kirolak, Herriko Plazan.

ko balkoitik izango da, 13:00etan hasita.

Erromeria taldea, egokituta

Musikak ere izango du protagonismoa *Sanmiguel kulturala* egitarauaren barruan: Anoetako bost musikariek osatzen duten Iratzar kantari taldeak euskal kantu herrikoien errepertorioaz osatutako emanaldia eskainiko du, Herriko Plazan, 19:30ean. Bestalde, 12 eta 17 urte bitarteko nerabeek paintball-az gozatu ahal izango dute Ibarako berdegunean, 16:30ean hasita.

Herri kirolen erakustaldia

Domekan, hilaren 26an, ohi bezala, herri kirolak izango dira nagusi, Hodei Ezpeleta, Xabier Zaldua, Andoni Izeta eta **Bihurri** aizkolarien eskutik. Hodei eta Jakes Iruretagoiena eta Lierri Osa harri-jasotzaileak ere izango dira, eta Karlos Aretxabaleta. Azken hau Iparraldeko jokoekin arituko da, Herriko Plazan egingo den erakustaldian. Herri kirolek hartuko duten lekua mugatu egingo dela jakinarazi dute antolatzaileek, eta ikusleak eserita egongo dira. 13:00etan hasiko da ekitaldia.



Naiara Olabarria, Ion Albizuren eta Jasone Garziaetxaberen alboan. MIRARI ALTUBE

Basotxoko eraikina Osakidetzari lagatzea onartu du udalbatzak

EH Bilduko Naiara Olabarriak zinegotzi kargua hartu zuen, eta Irati Pagoaga ordezkatu du

Mirari Altube ARETXABALETA

Ohiko osoko bilkura egin zuen udalbatzak eguaztenean, eta Basotxoko erretiratuak elkartzen diren eraikina Osakidetzari lagatzea onartu zuten, aho batez. Osasun etxe berria egiteko asmoa du Jaurlaritzak.

Urtea bukatu bitartean sor daitezkeen beharrei erantzuteko 200.000 euroko kreditu gehigarri bat ere onartu zuten, aho batez. Besteak beste, argindarraren eta garbiketen gastuei eta zinema-aparatua erostetari erantzun gura dietela aipatu zuten alkateak.

Bestalde, udaltzainburuaren zereginak eta funtzioak Iban Da Silva udaltzainari ematea onartu zuten. EH Bilduk abstentziora jo zuen, "aurretik udaltzainen lanak ondo zehaztu" behar direla adierazita.

Naiara Olabarria, zinegotzi

EH Bilduko Naiara Olabarriak zinegotzi kargua hartu zuen, Irati Pagoagaren hutsunea betetzeko. Gizartegintza batzordeko parte izango da eta lanerako "gogotsu" agertu zen: "Herriko proiektuei ezkerreko ikuspuntutik ekarpenak egiteko gertu".



MIKEL ARRIOLA

Estreinaldian, urrezko domina

Irailaren 11n jokaturako Canfranc-Canfranc mendi maratoian lehenengo postua lortu zuen Mikel Arriola aretxabalearrak, 23 urte azpikoen sailean; sailkapen orokorrean, berriz, hamazazpigarren postuan geratu zen. Lehenengo mendi maratoia zuen Arriolak, eta, emaitza ikusita, aurrera begira zenbait erronka jarri dizkio bere buruari.



Ikasturtean zehar egingo dituztenak azaltzeko prentsaurrekoaren osteko talde argazkian batutakoak, martitzenean. HASIER LARREA

Kurtzebarri institutuak 25 urte beteko ditu

Zapatuan egingo dute urteurreneko lehen ekintza, Herriko Plazan, 12:00etan, argazki erraldoi bat aterata. Datozen hilabeteetan, Tiktok lehiaketak, mahai-inguruak, erakusketak, kontzertuak, mendi irteerak, herri bazkariak, eta abar antolatuko dituzte

Imanol Beloki Aretxabaleta

1996an sortu zenean, 77 ikasle matrikulatu ziren Aretxabaletako Kurtzebarri institutuan: "Urte hartan, hezkuntza sistema berregituratu egin zuten, eta Derrigorrezko Hezkuntza 16 urtera arte luzatu; hori dela-eta, eskola-mapa berria eratu zen, eta, egoera hartan, Leintz Gatzaga, Eskoriatza eta Aretxaba-

letako 12-16 urte bitarteko ikasleei erantzuteko Kurtzebarri BHI sortu genuen, hezkuntza publikoa bermatuz ikasle ororentzat", aipatu zuen martitzeneko prentsaurrekoan Juan Carlos Pascualek, Kurtzebarri BHIko zuzendariak.

Ikastetxearen lehenengo kokapena Kurtzebarri eskolako eraikina izan zen. Irakasle, gu-

raso zein ikasleek erakutsitako konpromiso eta ilusioak gain hartu zion etapa berri bat abian jartzeak zekarren erronkari. Berehala ikusi zuten espazio falta zela ikastetxeak zuen premiazko arazoa. Hala, bide luzean lankidetzan aritu ostean, 2003. urtean ikastetxe berria eraiki zuten Herriko Plazan. Ikasturtez ikasturte ikasle kopurua han-

ditzen joan da. Izan ere, gaur egun, 278 gaztek ikasten dute Kurtzebarri BHI, duela 25 urte baino 201 gehiagok.

Helburuak finkatuta

Gaur egun, beharrei erantzuteko, ikastetxe berriaren proiektua zehazten dabilta, Kurtzebarri BHIren sena definitzen dituzten hiru zutabeak aintzat hartuz: aniztasunari arreta bermatzea, bizikidetzaren positiboaren sustapena eta Hauspoa proiektua. Azken horren inguruan Pascualek zehaztu zuen 2015-2016 ikasturteaz geroztik dagoela abian eta hiru helburu nagusi dituela: "Eskola-denboraren eredu berriak praktikan jarri eta ebaluatzea, ikastetxeen kalitatea hobetzea -bikaintasuna- autonomia gehituz eta emaitzen hobekuntza sustatzea".

Urte urte beharretara egokitzu

Horrekin batera, 25 urte hauetan gizartean izan diren aldaketek egokitu beharra izan dutela ere gaineratu zuten: teknologia berrien erabilerari; hizkuntzen trataerari; ingurumenaren zaintzari; genero ezberdintasunaren trataerari; eta belaunaldi berrien integrazio pertsonalari, gizarteratzeari eta laneratzea errazteko gaitasunak garatzeari. Eta horretan dihardute etengabe. "Lan horren emaitza izan dira, ikaslea abiapuntu hartuta, beste ikastetxe batzuentzat eredu izan den barne-antolaketa eta ikasleei egiten zaien jarraipen estua eta pertsonalizatua. Ikasleak dira ardatz nagusia. Aipatzekoa da, baita ere, gizarte-kohesiorako ezinbestekotzat jotzen dugun ikasleen lehen-hizkuntza ezberdinak kontuan hartuta egokitu diren programak eta hauei esker lortu diren emaitzak. Bide luze

honetan, azpimarratzekoak dira urtez urte egindako plangintzak eta hauen balorazioek eman dituzten fruituak. Besteak beste, Hizkuntza Normalkuntza Plana, euskararen erabilera zabaltzeko balio izan duena, ikasleen inplikazio polita lortuz; 8 urtez elkartrukea ingelesaren erabilera eta kultura ezberdinen arteko eza-gutza lortzeko; ingurumen jasangarritasunaren inguruan egindako lanak, bizikidetzaren, hezkidetzaren eta, zer esanik ez, kulturartekotasunak egunerokoan ekarri dituen eztabaidak eta adostu beharrak".

Eskerrak eragile eta inplikatuari

Bukatzeke, urte hauetan ikastetxearen alde jardun duten ikasleak, langileak, gurasoak, Leintz Gatzagako, Eskoriatzako eta Aretxabaletako udalak eta Hezkuntza Saila izan zituzten gogoan, "beraiek izan baitira ikastetxeari zentzua eta bizia eman diotenak; guztiei, beraz, eskerrik beroena".

Aurreikusitako ekintzak

Kurtzebarriko urteurren ospakizun ekitaldiei dagokienez, zapatu honetan, Herriko Plazan, 12:00etan, hasiera ekitaldia egingo dute, eta horretarako argazki erraldoi bat ateratzeko batuko dira. Aurrera begira, berriz, Tiktok lehiaketak, mahai-inguruak, erakusketak, tailerrak, kontzertuak, emanaldiak, mendi irteerak, bazkariak... antolatzeke asmoa agertu dute.

GAUR EGUN, 278 GAZTEK IKASTEN DUTE KURTZEBARRI BHI-N, DUELA 25 URTE BAINO 201 GEHIAGOK

Herritar guztien ongizatean eragiten jarraitzeko asmoz

Aretxabaleta Lagunkoia proiektuko kideek herriko eremuetan hobekuntzak proposatzen jarraituko dute

Goiena komunitatea

Aretxabaleta Lagunkoia / Aretxabaleta

Zortzi ikasturte lanean aritu ondoren, Aretxabaleta Lagunkoia proiektuarekin jarraituko dugu. Esan moduan, zortzi urte dira

lanean ari garela egitasmo honenkin; gure artean hitz egiten, herriko eremu guztietan hobekuntzak proposatzen; betiere, inposatzeko asmorik gabe.

Talde sendoa eratu dugu urteen poderioz, eta lankidetzarako he-

rri-plataforma bat sortu dugu, gure esperientziak partekatuz, gure bizitzako sentimenduak adieraziz, eta instituzioek gure ekarpenekiko interesa izan dezaten lan egiten. Hala, guztion ongizatean eragiteko asmoz, eta herritarren artean lagunkotasuna zabaltzeko helburuarekin.

Diagnostikoaren berrikuspena amaitu dugu, bizikidetzaren arlo guztietako ehunka proposamen batzen dituen. Hala, Aretxabaletako Udalak horietako zenbait ekarpen jaso eta bere gain hartu

ditu. Harro gaude egindako lanarekin; izan ere, gure artean hitz egiten ikasi dugu, taldean lan egiten, ikasi dugu ideiak elkarbanatzearekin ikasi egiten dela, eta, batez ere, poztasuna sentiarazten duela horrek... Uste dugu merezi duela lan hau egitea, eta gure lan-ildoarekin jarraituko dugu.

Gaiak askorako ematen du, eta laster informazio gehiago zabalduko dugu. Honekin batera, diagnostikoa inprimategian dagoela ere jakinarazi nahiko genuke.



Luis Ezeizako teilatuan eraberritze integrala

Hezkuntza jardueren udako etenaldia aprobetxatuz, Luis Ezeiza Herri Eskolako teilatuan zenbait lan egin dituzte, pandemiagatik atzeratutakoak. Horrekin batera, patioako sarrerako zorua aldatu, eta kantxako zuloak tapatu dituzte, besteak beste

Imanol Beloki ESKORIATZA

Martxoan jarri zuten Luis Ezeiza Herri Eskolako lanak egiteko lizitazioa martxan, eta, Hernaniko CUBERTEC enpresak lehia-keta irabazita, horiek izan dira obra gauzatu dutenak, 118.967 euroko aurrekontuarekin -%4,1 merkeago-. Egingako lanen artean, eraikineko estalkia berri-tu egin dute, ur-ebakuazio kanaleak birmoldatu eta hobetu eta aurretik zegoen instalazio fotovoltaikoa birkokatu.

Iraunkortasun estratejiaren barruan, Eskoriatzako Udalak aurreikusten du eguzki-argiaren bidez energia sortzeko instalazioa handitzea. "Horretarako, amarrakua prest utzi da aurrerago egin ahal izateko. Obrak amaitu ondoren, eskolako azken solairuko gela eta korridore guztiak berriz margotuko dira, eta konponketa eta apainketa lan txikiak ere egingo dira, beharrezkoa denean", adierazi du Josu Ezkurdiak, Eskoriatzako Hirigintza eta Mugikortasun zinegotziak.

Patioa berritzea

Luis Ezeiza Herri Eskolako eraikinean egindako lanez gain, patioan ere lan batzuk egin dituzte, ingurunea txukuntzeko asmoz. Batetik, Firmes Alaveses enpresakoek patioan sartzeko bidea konpondu dute, eta kantxan bertan zeuden zuloak tapatzeaz Ferreira enpresa arduratu da. Aurrerago, margotu egingo dute kantxa osoa. Guztira, 20.900 euro gastatu dituzte lan horiek egiteko.

"Kantxako sarrerako zoru zati bat aldatu egin dute, eta oso ondo geratu da. Egin beharreko lana zen hori, eta, horrekin batera, kantxa barruko zuloak tapatu egin dituzte. Ondoren, kantxa guztia margotu egingo dute, marraz jarri, eta aurreikusita dugu aurrerago, jolas batzuk margotzea zoruan. Gra-



Luis Ezeiza Herri Eskolako eraikina, lanak bukatu berri. IMANOL BELOKI

ESKOLAKO ARGITERIAN ERE ZENBAIT ALDAKETA EGINGO DITUZTELA JAKINARAZI DUTE

fiti-egile batek egingo ditu jolasak, eta oso ondo geratuko dela uste dugu...". adierazi du Luis Ezeiza Herri Eskolako irakasle Maitane Gomez de Segurak.

Argiteria: LED lanparak

Argiteriaren kontsumoa murrizteko asmoz, berriz, beste zenbait lan egingen ari direla ere adierazi du Josu Ezkurdiak, Eskoriatzako Hirigintza eta Mugikortasun zinegotziak: "Luis Ezeiza Herri Eskola barruko argiteria guztia LED teknologiko lanparekin ordezkatzen ari gara, eta irailean edo urrian bukatuko dugu lan hau. Egingo ditugun aldaketak, argindarraren faktura murriztea ekartzeaz gain -egun hauetan oso beharrezkoa dena-, energia kontsumo horrek eragindako emisioak nabarmen murriztuko ditu. Eskoriatzako udal teknikariek

egindako proiektuaren berritasuna da instalazio berria prest egongo dela argiztapenaren kontrol adimenduneko sistema bat hartzeko, presentzia-detektatzaileekin, intentsitatearen erregulazioarekin eta kanpoko eguzki-argiaren aprobetxamendu automatikoarekin. Hori datorren urtean ezartzea aurreikusten da. Kudeaketa adimenduneko sistema hori Luis Ezeiza ikastetxeko arduradunekin adostuta ezarriko da, haiek baitira gela eta esparruetako argiztapen-beharrak hobekien ezagutzen dituztenak".

Energia aurrezteko helburuarekin jarraituz, eta eskolako ikasle zein irakasleen konfort maila hobetzeko, berogailu sisteman balbula berriak jarri dituzte, hala, eraikineko tenperatura hobeto erregulatzeko.

Eusko Jaurlaritzaren laguntza

Proiektu horren barruan egin diren lan guztien kostua 184.629 eurokoa izan dela adierazi du Eskoriatzako Udalak. Azpimarratu du Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren laguntza ekonomikoa 103.688 eurokoa izan dela, obren %56.

Azken uneko leku aldaketak Errekan Gorako emanaldietan

Gernika plazan egitekoak ziren emanaldiak Fernando Eskoriatza plazan izango dira

I.B. ESKORIATZA

Swingtronics, Broken Brothers Brass Band, Idoia Asurmendi, The Allnighters, Wood Strings eta Moonshine Wagon musika taldeen kontzertuak izango dira asteburuan, Errekan Gora jaialdiaren barruan. Hala ere, zenbait aldaketaren berri eman dute, eta baita gomendioak ere.

"Gernika plazako emanaldiak Fernando Eskoriatza plazara mugituko ditugu, bi arrazoigatik: batetik, edukiera handitzeko; eta, bestetik, eszenatokia estalita izango dugulako bertan.

Hori horrela, egitarauko kontzertu guztiak plazan izango dira, hauek izan ezik: Idoia Asurmendiren emanaldia Santa Lutzian, Lete auzoan; eta Broken Brothers Brass Band herriko kaleetan zehar arituko da, hasieratik aurreikusitako moduan. Emanaldi bakoitzeko edukiera 150 lagunentzat muntatuta egongo da, eta emanaldien eremura sartzeko hamabost minutu lehenago irekiko dira *ateak*. Asurmendiren emanaldira joateko, bestalde, autoan ez igotzea eskatu nahi dugu".

GORA ETA BEHERA



Zuhaitza espraiarekin margotu dute

Eskoriatzako mendiko bizikleta martxa -EskoXtrem proba- antolatzen dutenek Eskoriatzako zenbait bidexkatak sarrerak markatzen dituzte. Hala, horietako baten sarreran dagoen pinu bat espraiarekin margotuta agertu dela kritikatu dute Facebooken.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus

edo 688 69 00 07.



ESKOXTREM



SAN PEDRO ETA INTXAURTXUETAKO ASTEBURU KULTURALA



Zapatu eta domeka goizean aritu ziren txistulariak. IMANOL SORIANO



Ipuuako gimnasten erakustaldia.



Makatzgain inguruetako postu batean. ANDONI ETXENAGUSIA

Behar bezala antolatu, eta egin daitekeela sinistu

San Pedro eta Intxaurtxuetako Jai Batzordeko kideak "pozik" daude asteburu kulturalak emandakoarekin. Gura beste ekintza antolatu ezin izan dituztenez, aurrera begirako helburua garbi dute: San Pedro Txikiak behar bezala ospatzea

Imanol Beloki ESKORIATZA

San Pedro eta Intxaurtxueta auzoetako jaiak ezin izan dira egin, eta horiek nolabait ordezkatzeko joan den asteburuan izandako asteburu kulturalak fruituak eman dituela adierazi dute antolatzaileek. Izan ere, "auzotarren ilusioa zein bertaratu ziren herritarrena eta hitzorduetan parte hartu zutenen aurpegietan nabari zen alaitasuna azpimarratzekoa izan da", dio Andoni Motok, San Pedro eta Intxaurtxueta Jai Batzordeko kideak.

Normaltasunera bidean antolatutako programak erantzun ona izan du bertaratu zirenen partetik, eta, hitzordu guztiek harrera ona izan zuten arren, artisautza eta elikagaien azoka nabarmendu du Motok: "Urte eta erdi ezer antolatu gabe geunden San Pedron eta Intxaurtxuetan, eta, bertako auzotarrez gain, herritar asko gerturatu zela esango nuke. Jaiak izan barik, jai giroa sumatzen zen, baina errespetu osoz eta neurriak errespetatuz jokatu zen. Beste herri batzuetatik ere gerturatu ziren hainbat lagun; batez ere, domekan. Azoka nabarmentzeko ekintza izan zen; izan ere, postu ugari izan genituen, eta, bi auzoetan zehar sakabanatuta izanda horiek, ez zen jende pi-

laketarik izan. Hala, gauzak behar bezala antolatuta egin daitezkeela jabetu gara".

San Pedro Txikiak, gogoz

Aurrera begira, helburua garbi dute San Pedro eta Intxaurtxueta Jai Batzordeko kideek: San Pedro Txikiak behar bezala antolatzea. "Datorren urteko irailerako egoera hobean egongo

garen aurreikuspena dugu, eta ordurako benetako jaiak antolatzea gustatuko litzaiguke. Hau da, herri bazkari batekin, parrillada on batekin, DJekin, herriko taldeen emanaldiekin... Duela bi urtetik baditugu zenbait ideia pentsatuta, eta horiek finitzen joango gara. Urtebete dugu San Pedro Txiki ahaztezinak antolatzeko".



Txistorra jateko eta sagardoa edateko tartea ere izan zen.



Eskoriatzako musika bandako kideen emanaldia, Partxiseko karpan.

Ehiza postuen lehenengo enkantea atzo amaitu zen

Banatu barik geratzen diren ehiza postuak berriz jarriko dituzte jendaurrean hiru egun barru, astelehenean

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Gatzagakomendian dauden ehiza postuen enkantea irekita egon da abuztuaren 20a ezkerro, eta atzora arte zuten interesdunek aurkezteko. Hemezortzi postu atera dituzte, guztira, enkantean, eta banatzen ez direnak berriz jarriko dira jendaurrean.

"Paseko ehizarako lau zona ditugu eta horietan hauek atera ditugu enkantean: Dominagan sei, Landan hiru, Pagoederren sei eta Retrankan hiru. Kasu honetan, postu horiek lau urterako hartzen dituzte interesdunek, eta beste lau urte luzatu

daitezke, hogeitaz arte. Edozelan ere, zenbait kasutan, atzera egiten dute erabiltzaileek, eta jendaurrean jartzen ditugu", dio Juanito Bengoak, Leintz Gatzagako Udaleko Mendietako zinegotziak.

Oilagorretarako hamar postu

Oilagorretan aritu nahi dutenentzat, berriz, hamar postu daude Leintz Gatzagan. Horietatik bi postu herritarrendako izaten dira eta beste zortzi enkantera ateratzen dituzte -informazio gehiago, leintzgatzaga.eus webgunean-.



GIPUZKOAKO MENDIZALE FEDERAZIOA

GR-121: etapa zati bat, aldatuta

Leintz Gatzagako GR 121 Bizkar ibilbidearen hamargarren etaparen zati bat aldatu egin du Gipuzkoako Mendizale Federazioak.

Baso-eremu bat ezabatu dute, ondoko pistatik desbideratzeko. Hain zuzen ere, Domiñaga baserritik Makatzgain tontorrera doan bidearen hasieran.

SANMARTINAK 2021 EZ-JAIK



Nikotina taldearen kontzertua, eguaztenean, Xaxauk plazan jarritako gunean.



Bandaren kontzertua, atzo, San Martin eguna. ARGAZKIAK: LARRAITZ ZEBERIO, IMANOL SORIANO, EIDER MONCAYOLA, IBAI ZABALA ETA J.B.

Gero eta hurbilago COVID aurreko garaiko jaietatik

Zapatuko San Martin feria eta Xaxauk eguaztena ezkerreko plazan duen pandemiara egokitutako txosnagunea badira ohiko jaiak gero eta gertuago egon daitezkeela erakusten duten adierazleak; gaur eta bihar, hainbat kultura ekitaldi plazako gunean

Jokin Bereziartua BERGARA

Pandemiak bigarren urtez jarraian utzi ditu bergararrak San Martin jairik gabe. Hori bai, iazko ez-jaiekin alderatuta, igarri da egoera oso bestelakoa dela. Horren erakusle nabarmena izan zen zapatuko feria, pandemia aurreko egoeratik oso hurbil egon zela esan daiteke eta. 40 bat postu jarri zituzten Fraiskoazuri eta Ibargarai kaleetan zehar eta, eguraldia lagun, jende asko bertaratu zen; Seminarioko patioan odolosteak dastatzeko gune bat ere egokitu zuten. Feriaren bezperan, Moi-

ses Azpiazuren omenezko dantza txapelketan Saioa Galarragak eta Julen Murgiondok ez zuten lortu hirugarren urtez jarraian onenak izatea, eta hirugarren postuan sailkatu ziren. Hala, 36. edizio honetan Oarsoaldeko bikote Katerin Artolak eta Iker Belintxonek jantzi zuten txapela. Era berean, 2000. urtean sortutako erraldoi taldeak protagonismo berezia izan zuen asteburuan, Aroztegin ireki duten erakusketa eta erraldoien jatorria hipside izan duen hitzaldi bat dela medio (Ikus erreportajea 27. orrian).

Bandaren kontzertua atzo

Jakinekua zen hilaren 15ean ez zela helduen danborradarik izango eta hilaren 16ko umeen danborrada ere bertan behera uztea erabaki zela, baina aste barruan zehar izan da ekitaldirik. Atzoko bandaren kontzertua da horren adibide; COVID-19ak zuzenean eragin die musikariei entseatzeko orduan, eta egoera "apur bat" normaldu arte ezingo dute zailtasun handiko obrarik landu. Miguel Gonzalez Bastidaren *San Martin martxa*, esaterako, ez zuten jo. Hala ere, herritarrek gozatu ederra hartu zuten bandarekin.

Xaxauren gunea martxan da

Eguazten iluntzean ireki zuen Xaxauk pandemiari egokitutako txosnagunea, plazan. "Irekiera kaotikoa izan da, euriagatik, baina merezi izan du. Arduratik, betiere, herritarrei dei egiten diegu gunera hurbildu eta gure kultura eskaintzaz goza dezaten", dio Xaxauko Andrea Gonzalezek. Bergarako Katarsia eta June Odriozola eta Antzuolako Udazken izango dira bertako artistetako batzuk. Kanpoko taldeen artean, besteak beste, Skabidean, Toc eta Ibil Bedi igoko dira oholtzara, gaur eta bihar.



Egungo eta garai bateko udal ordezkariak, erraldoien gaineko erakusketan.



Azokaren ostean, hainbat herritar hurbildu ziren Seminarioa odolosteez gozatzera.



Oarsoaldeko Katerin Artola eta Iker Belintxon izan ziren garaile dantza txapelketan.



Bergarako Elkoro baserriko Ane Gorosabel Monge, zapatuko ferian.

Patio tradizionala ahaztu, jolas librea bermatzeko

San Martin eskolako Lehen Hezkuntzako patioa berritu egin dute, orain arteko patioaren eredua aldatu eta umeei jolas libreaz gozatzea sustatzeko; guraso elkartetik abiatu zen ideia eta Udalak babestu egin du, 48.230 euroko inbertsioa eginda

Jokin Bereziartua BERGARA

Ikasturte berriaren hasierarekin, erabilgarri dago San Martin eskolako Lehen Hezkuntzako "patio inklusibo" berria. Eskolako zuzendaritzak, guraso elkarteak eta Udalak agerraldi bateratua egin dute asteon parke berriua erakusteko. Oporren osteko berritasuna izanik, hainbat eta hainbat dira arratsaldea bertan pasatzen duten ume beragarriak. Izan ere, eskolaz kanpoko orduetan, asteburuak barne, zabalik egoten da eremua. Tirolina, salto egiteko gunea, ziburuak eta elementu naturalez osatutako bestelako jolas tokiak ditu patio berriak.



Lasa, Sebal, Urizarbarrena, Velez de Mendizabal eta Aranberri, patio berriuan. J.B.

Umeen inplikazio zuzena

Guraso elkartetik abiatu zen jolas parkea berritzeko ideia. "Bereziki futbola zen eskaintza eta ikasle asko geratzen ziren dinamikatik kanpo. Prozesuan umeei zuzenean hartu dute parte, ezin dugu ahaztu eta euren parkea dela. Maketak egin dituzte, askotariko eskaerak... Tirolina gela guztietako eskaeretan agertzen zen, adibidez", dio Amaia Velez de Mendizabalek.

Guraso elkarteak eta zuzendaritzak Udalera jo zuten, eskola barruan garatutako prozesuaren berri emateko; izan ere, "hainbat mugarri" izan ditu ekimenak: gurasoek eta irakasleek osatutako talde bat eratzea, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleek eurek maketak eta planoak egitea; eskolako komunitateak auzolanean moldaketa batzuk egitea inguruko enpresa txiki batzuen laguntzarekin... Hori bai, inbertsio nagusia udan garatu dute: Lurkoi enpresari 48.230 euro ordaindu dizkio Udalak, BEZa barne. Eskolako zuzendari Joserra Lasa "oso pozik" dago emaitzarekin: "Ikustea besterik ez dago izaten ari den

harrera. Guraso elkartetik heldu zitzaigun proposamena eta hasieratik ikusi genuen bideratu beharrekoa zela. Eskola inklusiboa nahi badugu patio inklusibo bat izatea komeni zaigu. Ireki berri dugu; ea behar den moduan mantentzen dugun".

Jolas librea sustatzea

Patio berriko prozesuan argi gelditu zen birformulazio bat gertatu behar zela. San Martin eskolako patioek orain arteko patio tradizionalen antolaketa dute, esparru nagusia futbolak eta saskibaloia hartzen du. "Jolas librea, orain arteko patioen diseinu eta antolaketan bigarren maila batean gelditzen da, eta jolas libre hori da eskola komunitatetik eta Udaletik sustatu eta indartu nahi dena. Umeen sormen eta garapen prozesurako ezinbestekoa delako jolas librea. Umeek, irakasleek eta gurasoek beste modu bateko patio bat nahi dutela argi gertatu zen prozesuan: jolas librera sortutakoa, naturarekin harremana bermatzen duena, esperientzia oinarritutakoa", dio Ekaitz Aranberri zinegotziak.

DEBAGOIENEN PROFESIONAL LIBERALAK



ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86 / Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

AHOLKULARITZAK

ANDRA MARI AHOLKULARITZA
ARETXABALETA / Araba ibilbidea 20, behea
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakls.es

ALBERDI ASESOREAK
BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK
ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

LARRAITZ VALENCIA AZKARGORTA
Arkitektoa eta tradespersion formazioa
Tel.: 636 89 92 11
larraitz.arkiestudioa@gmail.com

ETXE ADMINISTRATIOAK

URIBESALGO ADMINISTRATIOAK
ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea
Tel.: 943 79 51 25
uribesalgo@uribesalgo.es

Ohorezko presidenteari, omenaldirik sentituena

2006an Hanka Labanka elkartearen sortu zenetik presidente izan den Remi Aranzabalek kargua utzi behar izan du, gaixotasun larri batek eraginda; ohorezko presidente izendatu eta omenaldi "oso hunkigarria" egin zioten Gorla elkartearen, sorpresaz

Jokin Bereziartua BERGARA

2006an Hanka Labanka elkartearen eratu eta hasieratik bertatik izan da presidente Remi Aranzabal. Kluba hutsetik sortu zuteneko hasiera hartan ez zegoen presidente, diruzain, idazkari edota bestelako karguetarako boluntariorik. "Petit comité-an elkartu eta ezkutuan egindako bozketan nire izena izan zen gehien irten zena. Orduetik izan naiz Hanka Labankako presidente; nigatik balitz, karguan jarraituko nuke, baina ezinbestean utzi behar izan dut...". Gaixotasun larri batek eraginda utzi behar izan du kargua; are gehiago, urrian egingo dute urtebete bajaran.

Gaixotasunak behartuta

Elkartearen sortu zenetik, Hanka Labankak abiadura saioetan eta federaziotik kanpoko ekitaldietan hartu izan du parte, bereziki; hain zuzen, Hanka Labankako kide Agustin Oianguren Burdinola irristaketa kluba sortu zuen 2017an, umeekin eta gaztetxoekin talde federatu moduan lehiatzea helburu. Aranzabalek Hanka Labankan jarraitu du, gaixotasunak utzi dion arte: "Ezin dut patinatu eta ezta beste hainbat gauza egin ere. Patologia larria da, konponbiderik ez duena, eta tratamendu aringarriekin nabil. Gaixotasunari pandemia gehitzen badiogu, emaitza da nire familiarik kanpo bospasei lagunekin bakarrik egon naizela azken urte eta erdian; horregatik, aurrekoan egin zidaten omenaldia bereziki hunkigarria izan zen. Erabateko sorpresa izan zen, gainera".

Ohorezko presidente

Asteazken zehar jaso du GOIENAREN deia eta oraindik ere hunkitu egiten da omenaldiaren berri ematerakoan: "Zerbait publikatu behar baduzue, ezinbestean esan behar duzue nire



Aranzabal –erdian, garaikurrarekin– lagunez inguratuta, Gorla elkartearen. GOIENA

REMI ARANZABAL: "EGOERA ZAIL ETA KRUDELENETIK ERE BETI ATERATZEN DA ZERBAIT ONA, BETI"

ustez larregikoa izan zela jasotzen nuen babesa. Ez dudala merezi, adibidez, estatutuak aldatzea ohorezko presidente izendatu nazaten. Oso hunkigarria izan zen, igarri nuen bertaratu zen jendea ukituta zegoela, ezarrietan korapilo asko zeudela. Ni neu ere asko hunkitu nintzen, nola ez, baina halako egoerei buelta di-da baten ematen dien horietakoa naiz. Botila beti erdi beteta ikusten duen horietakoa, alegia. Norbera oso gaizki egonda ere, normalean ingurukoek eta maite zaituztenek sufrizten dute gehiago; horregatik, horiek ukituta ikusten badituzte, automatikoki animatzen naiz".

Umorea galdu, sekula

Hainbat operari eta detaile jasotzen Aranzabalek eta bere familiarik, baita 15 urteotako argazkiz osatutako bideo bat ere.

Presidente gisa egindako agurreko diskurtsoak, nola ez, izan zuen umoretik: "Esan izan didate dudana gaixotasunerako sekulako meritua dudala umore onez egotearren... Halakoen aurrean askotan ez dakit zer erantzun; izan ere, ni horrelakoa naiz, betidanik, eta gaixotasunak nire aldarrea ahalik eta gutxien baldintza dezala saiatzen naiz".

"Egun bakoitza da operari bat"

Omenaldia jaso ostean Gorla elkartearen helarazi zuen mezuan Aranzabalek ez zuen inor axolagabe utzi: "Hainbat gauza daude lehen egiten nituenak orain ezin ditudan egin, eta sekula ezingo ditudan egin. Horregatik, ez naiz falta zaidanari begira bizi; daukanari begira bizi naiz, ez dela gutxi. Bizitzako segundo bakoitza aprobetxatu behar da, bizitza izugarri motza da eta. Egun bakoitza da operari bat. Egoerarik okerretetik eta krudelenetik ere beti ateratzen da zerbait ona, beti". Jaso zuen omenaldian argi geratu zenez, Remi Aranzabal betirako izango da Hanka Labankarendako iparrorratza, lehen ohorezko presidentea.



NIRE USTEZ

JOANES PLAZAOLA

Miseriaren biolentzia

Kargak, kolpeak, gomazko pilotak. Eguneroko ogi bihurtu zaizkigu. Atxilotuak, identifikatuak, zaurituak. Badirudi egunez egiten den hori gauez egiten duena zigortzea, egurtzea, zilegi ez, beharrezko bihurtu dela. Pobrezia, etxegabetzeak, kaleratzeak. Miseria da daukaguna, eta miseria dakarkigutena. Miseria eta biolentzia. Inork uste dezake eredu kontua dela, hau da, polizia ez dela arazoa, bere kudeaketa desegokia baizik. Baina posible al da erreprezio demokratikoagorik? Geure burua engainatzen ariko gineteke horrela uste izango bagenu, sistema kapitalistan polizia zapalkuntzarako tresna delako, klase batek bestea zapaltzeko tresna. Polizia jabetza pribatua defendatzeko existitzen da, hala ikus dezakegu Desokuparekin elkarlanean, Arrotxapean edota Tubacexeko eskirolen defentsan. Ez delako polizia zintzo edo gaizto kontua, poliziak berekin baitakar zapalkuntza, egoerak hala eskatzen badiu. Horregatik dagokigu polizia ereduari buruzko eztabaida hutsalak alde batera utzi eta sistema kapitalista bere osotasunean gaindituko duen Euskal Estatu Sozialistaren eraikuntzan sakontzen jarraitzea.

GORA ETA BEHERA



GOIENA

Ipintzako harmailak, "egoera negargarria"

Ipintzako harmailak asteburuan "oso zikin" egon ohi direla dio herritar batek: "Neska-mutikoek oinetakoak harmailetan aldatu behar izaten dituzte orain; egoera negargarria egon ohi dira".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo ☎ 688 69 00 07.

OHARRAK

Berdintasun Kontseilua irailaren 20an

Berdintasun Plana ebaluatuko dute eta hirugarren plana diseinatzen hasiko dira. Azaroaren 25ari begirakoez ere egingo dute berba, besteak beste. Irizar jauregian izango da, 18:30ean.

Helduen eskola (EPA): matrikulazioa zabalik

Izen-ematea, Irizar jauregian edo 943 76 44 52 telefono zenbakian.

ZinemaOn zineklubaren ikasturte berria

Irailaren 22an Kiyoshi Kurosawa-ren *Spy no tsuma* filma eta irailaren 29an Julien Templeren *Crock of Gold: a Few Rounds with Shane MacGowan*. Seminarixoa, 20:00etan. Hileko lehen eguaztenetako bileretan parte hartzeko dei egin dute, 19:00etan.



'Joxe Bixente' eta 'Mari Kattalin' erraldoiak plazara sartzen, 1981ean. B.E.T.



Begarako Erraldoi Taldeko kide gehienak gaur egun, 2019an Reusera egindako irteeran. B.E.T.

Hogei urteko historia erraldoia

Pandemiak urtebete atzeratu arren, taldearen sorreraren hogeigarren urteurrenean, erraldoiek herrian izan duten garrantzia azpimarratu gura du 'Erraldoiak eta Bergara: jaia, musika, herria' erakusketak. Aroztegi aretoan ikusgai dago hilaren 26ra arte



Begarako erraldoi konpartsa sortu eta lehen urteetako kideak. B.E.T.

Jone Olabarria BERGARA

Begarako erraldoiei buruzko lehen idatziko aipamena 1925. urtekoa da, eta, herrian noiztik dauden zehazki jakiterik ez da goen arren, Bergarako kaleak alaitzen ezinbesteko eginkizuna izan dute. Horren adibide da Udal Artxiboak erraldoiei buruz gordetzen duen lehen argazkia: erraldoiak eta buruhandiak, txistularien laguntzarekin, Zubieta kalean zehar, 1943an.

Duela 21 urte konpartsa sortu zutenetik, 50 herritan baino gehiagotan izan dira Bergarako erraldoiak, baina etxean ere ikusmina sortzen dute: joan den egubakoitzean erakusketa ireki eta lehen bi egunetan –egubakoitz arratsaldean eta zapatuan– 550 lagun pasa ziren Aroztegitik.

Errotuta, azken urteetan

Kalera irteteen etxeko txikienak zorazten dituzten arren, ez da beti horrela izan, taldeko kide Ibon Unamunok azaldu duenez: "2000. urte inguruan hasi ginean ez zegoen horrenbesteko afiziorik. Lehen, buruhandi estilokoak ziren; orain, pertsonaia itxura dute, dantzan egiten dute".

Hamabi lagunekin martxan

Gaur egun, haur eta helduek osatutako 80 pertsona inguruko taldea da, baina hamabi laguneren artean eratu zuten: "Begararen bi erraldoi genituen, *Joxe Bixente eta Mari Kattalin*, erraldoi zaharrak. 2000. urtean, Iñigo Alberdi zinegotzi zela eta Xamatx dantza taldearen laguntzarekin, proiektu bat aurkeztu ziguten; Udalak bi erraldoi egitea proposatu zuen, hala taldetxo bat sortzeko".

Arazo nagusia, baina, erraldoiak dantzan jartzea izan zela azaldu du Unamunok: "Ez genekien nola erabili, nola dantzatu; azken batean, ez da indarra, teknika ezagutzea baizik. Arrasaten talde potentea zegoen eta eurek mundu honetako kontuak erakutsi zizkiguten".

Bi erraldoitik, hemezortzira

Joxe Bixente-k eta Mari Kattalin-ek aspaldi utzi zioten kaletako protagonista nagusiak izateari, eta tamaina eta mota guztietako beste hamasei pertsonaiekin partekatu behar dute orain dantzalekua. Guztira, sei erraldoi handik, bi bertainek,

zortzi txikik eta taldearen "xarma eta saltsa" diren *Guti eta Felixin ipotxek* osatzen dute konpartsa.

Taldeko pertsonaiek Bergararekin lotura dutela azaldu dute, eta, zelanbait, "haurrei herriko tradizio eta historia gerturatze-

ko modua" ere badirela zehaztu dute erraldoi taldeko ordezkariak: "Bere garaiko *Juantxo* jauntxo elegantea dugu, herrira jaisten ziren baserritarrak beren jantziekin, oihalgintzako langileak, *Elhuyar anaiak*, herriko gozogileak, *Bitorianatxo*...".



Artxiboan dagoen erraldoien argazki zaharrena: 1943an, Zubieta kalean. B.U.A.

Eulalia Abaituaren jantziekin

Duela hogeita urte *Magdalena* erraldoia egiten ari zirela, argazki zahar batzuetan inspiratuz egin zituzten jantziak, baina ez zekiten zehazki nortzuk ziren irudietako pertsonak: "Orain dela hiru bat hilabete, ezagun batek Bilboko Euskal Museoko argazki bat bidali zigun, bertan gure *Magdalena* zegoela eta. Eulalia Abaitua argazkilaria bizkaitarra zen, bere jantziak daramatza gure *Magdalenak* ere".

Emakumeak taldera

Familia handitzeko asmorik ez duten arren, erraldoi ertainen estruktura aldatu eta emakumeek erabiltzeko moldatu gura dituztela azaldu du Unamunok: "Ea emakume gehiago gerturatzen ditugun taldera. Umetan badiugu neska ugari, baina nagusietan ez horrenbeste".

"TALDEA SORTU ZENEAN EZ ZEGOEN ERRALDOIEKIKO HORRENBESTEKO AFIZIORIK BERGARAN"

Betiko isildu da 'Urkiko magoaren' doinua

Miguel Sagastume joan den zapatuan, irailak 11, zendu zen, 90 urte zituela. 'Urkiko magoa' izenez ezaguna, lau urtez egon zen Habanako Tropicana kabareteko orkestran jotzen eta XX. mendeko bigarren zatiko akordeoi jotzailerik ospetsuenetakoa izan zen

Jone Olabarria BERGARA

Eibarko Urki baserrian jaioa –1931ko martxoaren 22an–, Bergarara ezkondu zen, Raizabal gozotegira, 1959. urtean. Ordutik Bergaran bizi izan zen joan den zapatuan –irailak 11– hil zen Miguel Sagastume, eta bertan jardun zuen gozogile lanetan, erretiroa hartu zuen arte. Duela 10 bat urte utzi behar izan zion bere zaletasun handienari, akordeoia jotzeari, osasun kontuengatik, baina ordutik ere akordeoiaren munduari lotuta bizi izan da *Urkiko magoa*.

Afizioa, etxetik

Aitarengandik jaso zuen akordeoiarekiko zaletasuna. 7 urterekin ekin zion akordeoia jotzeari eta Eibarren ikasi zuen Amada Mugerzarekin. Hura ezkondu eta aitak Bergarara bidali zuen, urte luze Bergarako Musika Bandako zuzendari izandako Miguel Gonzalez Bastidarekin ikastera.

Kubara 19 urterekin

17 urterekin bere lehen diskoa grabatu zuen eta 19 urterekin Kubara abiatu zen, amarekin batera. 2012. urtean GOIENARI eskainitako elkarrizketan azaldu zuen Tropicana kabareteko bazkide euskaldun batengandik iritsi zitzaizola Habanara joateko proposamena: "Gernika aldean-eta asko ibiltzen nintzen, ezkontza eta erromerietan, eta, halako baten, Tropicana bazkideetako bat, euskalduna bera, ezagutu nuen. 19 urte bete gabe nituen artean, eta aitari baime-na eskatzeko esan nion. Izan ere, soldadutza egin behar nuen... Azkenean, aitak baime-na eman zidan eta agiriak lortzeko orduan soldadutza Habanako Espainiako enbaxadan egin beharko nuela agindu zidaten. Amarekin joan nintzen Kubara eta 31 egun egin genituen barkuan Habanara heltzeko, pentsa..."



Miguel Sagastume, 2012ko martxoan, omenaldia jasotzeko bezperan. GOIENA

DEBAGOIENEN MUSIKA ESKOLEK 2012. URTEAN EGIN ZIOTEN OMENALDIA, EGINDAKO LANAGATIK

"Eskertza infinitua!"



AITOR FURUNDARENA
HAUSPOZ

"Euskal Herriak altxor biziak ditu eta hauetako bat izan da Sagastume. Ederki uztartu zuen musikarekiko zaletasun, gustua eta pasioa, eta profesionaltasuna. Bera bezalakoei esker, Euskal Herrian musika ezagutzen duguna da eta akordeoi joleak gauden tokian gaude. Eskertza infinitua Sagastumerekiko eta bera bezalako artista handie!".

Tropicana lau urtez

Tropicana orkestran –Habanako Tropicana Kabareteko orkestrajo zuen 1950etik 1954ra arte. Besteak beste, Bebo Valdesen, Celia Cruzen eta Xabier Cugatekin batera aritu zen oholtzaren gainean. Eta Orson Welles, Mario Moreno *Cantinflas* eta Ernest Hemingway ezagutu zituen, iraultza aurreko Habanako gau haietan.

Euskal Herrira buelta

Sagastume 1950eko hamarkada erdialdean itzuli zen Euskal Herrira. Urki Orkestra sortu zuen beste sei musikarekin batera eta Eibarko Jai Alain jo zuen urteetan; gerora, baita Bergarako Ariznoan ere. Musikari askoren laguna, horien artean, Felix Aranzabal *Angiozarko itsua*-rena; Sagastumeren berbetan, ezagutu zuen "akordeoi jotzailerik bikainena".

Euskal Herriko akordeoi lehia-keta garrantzitsuenetan epai-mahaiko kide izan zen urteetan. Egindako lanagatik, Debagoieneko musika eskolek 2012. urtean egin zioten omenaldia, bere 81. urtebetetze egunean, Santa Marina parrokiaren.



Botilak eta zikinkeria San Martzialgo zakarrontzien inguruan pilatuta. GOIENA

Kaleko edana "kontrolatzeko" eskatu diote sozialistek Gobernuari

Bergarako PSE-EEK esan du San Martzialen "jende asko" biltzen dela; Udaltzaingoaren kontrola eskatu du

J.O. BERGARA

Kale-zurruta "ohiko" bilakatu dela azaldu du Alberto Alonso talde sozialistaren bozeramaileak, prentsa ohar bidez, eta hori "onartezina" dela dio: "Kalean edatea gizalegearen kontratatzat hartzen da. Are gehiago, pandemia existitu aurretik ere debekatuta zegoen".

Gauzak horrela, jarduera hori "moztu" egin behar dela adierazi du, eta Udal Gobernuari kontrola eskatu dio: "San Martzialgo zelaietara hurbiltzen direnen joan-etorriak eta ibilbideak Udaltzaingoarekin kontrolatu behar dira, bertan jende asko biltzen baita, inolako kontrolik gabe".

"Erantzukizunez jokatzeari"

Bestetik, herritarrei erantzukizunez jokatzeko eskatu die: "Bergarako bizilagun gehienek osasun neurriak betetzen dituz-

te, baina batzuek pandemia gainditu dugula uste dute. Tamalez, ez da horrela. Ezin da ulertu osasun neurriak ez betetzea, familia askorengan hainbeste min eragin duen pandemia baten aurrean".

Bukatzeko, Alonsok elkarlanean jarduteko dei egin du, krisi ekonomiko eta sozialari batera "aurre egiteko".

Udal Gobernuak, "lanean"

Udal Gobernuak aditzera eman du oraingoz ez duela publikoki ezer esango PSE-EEren salaketa dela eta. Uste dute ez dela "prentsa oharren bidez landu beharreko gaia", eta diote gaia "aspalditik" dutela mahai gainean eta "lanean" ari direla.


Adierazi dute "arazoak dituen erpin ezberdinen aurrean proposamen bateratu bat" dutenean emango dutela proposamen horren berri.

Wood Strings eta Andoni Ollokiegi gaur kartzela zaharrea

Denboratxo bat isilik egon ostean, *Egubakoitzak berreskuratzen* ekimena gaur bueltatuko da kartzela zaharrea, 22:00etan hasita. Aretxabaletako Wood Strings taldearen eta Andoni Ollokiegi abeslariaren musikaz gozatzeko aukera egongo da iluntzean Bergaran. Sarrerak bost eurotan eskuratu daitezke kartzela zaharrea bertan.

Musika Eskolako ikastaroetan izena emateko aukera

Musika Eskolako hainbat ikasgaitan lekua geratzen da: 0-4 urte bitarteko haur eta familiei bideratutako musika familiar tailerra, 5 eta 6 urteko haurrentzat musika eta mugimendu tailerra, eta hizkuntza musika, musika tresna ezberdinak eta abesbatza. Irailaren 24a arte matrikula daiteke, eskolan bertan edo 943 76 57 80 zenbakian.




17 UDAKO ARGAZKIEN .GOIENA LEHIAKETA *egin klik!*

Parte hartzeko azken eguna
irailaren 20a!

Bidali zure argazkiak posta elektronikoz
(argazkiak@goiena.eus) edo Whatsapp/Telegram
bidez (688 69 00 07). Lehiaketaren oinarriak
irakurri eta sariak ezagutzeko, sartu Goiena.eus-en.



Argazki guztiak kanal
berezi honetan:
<https://labur.eus/lehiaketa-2021>



TAVIRA | Argazkia: Ainize Arrazola




PASAI DONIBANE | Argazkia: Amaia Arzamendi



PIRINIOAK LAGUN ARTEAN | Argazkia: Zumaia Elkoro



ARGAZKILARIA, ONDARRAITZ, HENDAIA | Argazkia: Angel Ayastuy




ALMERIAKO OLATU URDINAK | Argazkia: Ivan Garcia Navarro



EGUNSENTIA, ERRATZUTIK | Argazkia: Mari Elen Irigoien



TENERIFE | Argazkia: Idoia Imaz Arcelus



EGUZKITAN, CANDELARIO (SALAMANCA) | Argazkia: Iñigo Arriaran Olalde



VARSOVIA (POLONIA) | Argazkia: Oier Yaniz



ARETXABALETATIK ORORAKO BIDEA | Argazkia: Elena Sanchez

ANTOLATZAILEA:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

EROSKI
ARRASATE

GURE AMETSA
Restaurante • Jotetxea

BERGARA
**EREIN
DA
JAN**

GU
Travel
Halcon bidaak
Arrasate

"Erretiratu aktiboak ditu Landatxope elkarteak"

JOXE ANJEL ARBULU LANDATXOPEKO PRESIDENTEA

Udako oporren aurretik hartu zuen erretiratuen elkartearen gidaritza Joxe Anjel Arbuluk; elkarteak izango duen funtzionamendu berriaz jardun du

Maidar Arregi ANTZUOLA

Joxe Anjel Arbulu izango da datozen hiru urteetarako Landatxoeko presidentea. Migel Anjel Lizarralde ordezkatu du karguan. Egun, 340 bazkide inguru ditu Antzuolako erretiratu elkarteak, eta elkarte bera osasuntsu eta aktibo izaten jarraitzeko "ilusioz" jardungo duela kargu berriari aitortu dio GOIENARI.

Noiz jaso zenuen proposamena?

Orain dela lau zapabost hilabete hasi ziren zirikatzen, eta baietz esan nuen. Izan ere, aspaldian esan eta esan zebiltzan. Oraingo honetan, bestelako zereginak lagata, baiezkoa eman nien. Antzuolako giroa oso ona da. Ikusi besterik ez dago zenbat erretiratu etorri diren galdezera ea noiz ireki behar genuen elkarteak.

Hainbat elkartetan parte hartu duzu. Tartean, 25 urtez Alardean. Herrian ezaguna zara.

Bai, hala da. Odol emaleen elkarteetan, Danobat elkarteetan eta Mairuaren Alardean, besteak beste. Azken honetan 25 urtez jardun dut, zenbait zereginetan: soldadu, ofizial, kapitain... Emakumeen parte hartzea sustatzeko lan egin genuen. Eta nire ondoren Edurne Iturbek hartu zuen Alardeko kapitain kargua. Inklusioaren alorrean lan handia egin dugu. Gogoratu behar da Antzuolako Alardea izan zela lehena talde batean emakumezkoak eta gizonezkoak elkartzen. Herri txikia baina herri erreferentea da Antzuola.

Erretiratuak berriro elkartzeko desiratzen duzue, eta Landatxoeko ateak irekiko dituzte.

Bai, hilaren 20an, astelehena, 17:30ean egingo dugu irekiera ekitaldia. Gerturatzen denari pintxoak eta edaria banatuko diogu. Jendeak ze gogo daukan ikusteko aukera izango dugu. Hala, asko badator, jendea gogoz dagoela esan nahiko du. Gaur



Joxe Anjel Arbulu bulegoan. MAIDAR ARREGI

"PIXKANAKA, LEHENGORA BUELTATZEN JOATEA DESIO DUGU HERRIKO ERRETIRATUOK"

egungo egoera dela-eta, erretiratuek kalean paseoa egin eta etxean egotea besterik ez dute. Gainera, negua dator eta neguan elkartzeko gune bat edukitzeak asko egiten du: karta-jokoan egin, solasaldiak lagunekin... Pixkanaka, lehengora bueltatzea desio dugu.

Irteerak ere berreskuratu dituzue. Bi irteera antolatu dituzte: lehena hilaren 29an, eguaztena, Leitzako Peru-Harri museora egingo dugu. Izena emateko aukera izango da hilaren 20an eta 21ean, 17:30etik 18:30era bitartean, Landatxoeko bulegoan. Prezioa 15 euro da. Leitzan, museoa bisitatu aurretik hamaiketako egingo dugu. Bazkaria, berriz, Doneztebeko Santa Maria jate-txean. Eta bigarren irteera Ekainberriko kobetara egingo dugu, Zestoara, azaro amaieran edo abendu hasieran.

Erretiratuendako garrantzitsua da txoko bat izatea, ezta?

Dudarik gabe. Karta-jokoan zein kinkan jokatzeko gogotsu daude. Gaztaina-erre jaia ere egin nahi dugu. Baina COVID-19a dela-eta, burbuila-taldeetan antolatuko gara eta osasun neurriak zorrotz bete beharko ditugu, gaur-gaurkoz.

Egoitzarako irteera-sarrera ere osasun egoera egokitu duzue.

Bai, noski; COVID-19aren neurriei eutsiz, Landatxope elkarteko sarrera-irteerak terrazatik egingo ditugu –eraikineraren atzealdeko parketik-. Gainera, terrazari berari etekina ateratze aldera, karpa bat edo tolo bat jartzeko asmoa dugu. Horretan dihardugu. Funtzionamenduari dagokionez, lokaleko sarrera terrazatik izateaz gain, zuzendaritza batzordeak mahaiak prestatuta edukiko ditu edukiera errespetatuz. Maskara ere derrigorrezkoa da, jakina.

Hasierako beldur edo ardura hori kentzea komeni dela diozue.

Bai, nahi nuke herriko erretiratu guztiek animatu eta pixkanaka beldurra kentzen joatea. Elkarteetan denok berriro elkartzen joatea, alegia.



MAIDAR ARREGI

Bainu denboraldiari agur

Ur-jolas parkea domekan itxiko dute. Denboraldia ona izan dela dio Beñardo Kortabarría alkateak: "Uztaileko egun beroenetan parkearen edukiera bete egin zen. Herritar askok erabili zuten eta kanpotik ere etorri ziren. Oro har, dena ondo joan da; aipatu behar da parkeko baldun baten akatsarengatik egun batean ordubetez gelditu zela".

Leire Galeano, Errioxako Master Cup txapelketako finalean

Galeano ahizpek elkarren aurka jokatu ostean, Leirek jokatu du finala, Adarragan, hilaren 25ean

Maidar Arregi ANTZUOLA

Errioxako San Mateo Txapelketako lehen kanporaketa saioa jokatu zuten domekan Leire Galeano eta Nagore Galeano ahizpek. Elkarren kontra jokatzeko egokitu zitzaizkien, eta Leire sailkatu da finalerako. Bikotekide Ana Belmonterekin batera izango da hilaren 25eko finalean, Adarragan.

Bina norgehiagoka jokatu zizuten Galeano ahizpek Logroñon. Leire Galeanok Ana Belmonte errioxarrarekin jokatu zuen eta Nagore Galeanok Leire Arribas kataluniarrarekin.

Galeano eta Belmonte bikotea izango da finalean, joan den domekako bi norgehiagokak irabazita. Erraz irabazi zuten Malen Salinasen eta Isabel Garciairen kontrako partidua. Estuago joan zen, aldiz, bi ahizpak aurrez aurre izan zituen partidua.



Galeano ahizpak. GOIENA

Amaieran, 18-16 nagusitu zen Galeano-Belmonte bikotea.

Txapelketako finala irailaren 25ean jokatu da, Logroñoko Adarraga pilotalekuan. Bigarren bikote finalista zein izango den hilaren 15eko kanporaketan argituko da.



Unax Errasti, irailaren 4an, Mutiloako Lierni auzoko lasterketan. KARLOS BALEZTENA

Gazte mailan ere egon nahi du goiko postuetan

Lokatza ziklismo eskolako Unax Errastik modu ezin hobean amaitu du kadete mailako denboraldia: Eibarko Saria irabazita. 2021ean beste hiru lasterketatan igo da podiumera, gainera. Azkena izango du jokoan Elgoibarren asteburuan

Hasier Larrea ANTZUOLA

Kadeteetako lehen garaipena maila horretan lehiatutako azken lasterketan erdietsi du Unax Errasti antzuolarrak. Ondo ezagutzen zuen errepidean gailendu zitzaizen 59 txirrindulariri asteburuan, Eibarko IV. Sarian: "Normalean, Eskoriatza, Oñati eta Soraluze artean egiten ditut lan-saioak; Soraluzeako saihesbideko maldetan lortu nuen aurkariengandik diferentzia handitzea", azpimarratu du Errastik. Txirrindulari bakarrak jarraitu zion Maltzagaraino, baina han ere erritmoa aldatu eta bakarrik iritsi zen Azitaingo helmugara. Ordubete eta 39 minutuan burutu zuen 60 kilometro pasatxoko ibilbidea.

Lorpen horri aurtengo denboraldian zehar pilotutakoak batu behar zaizkio. Izan ere, Beasainen eta Azpeitian hirugarren marka onenarekin helmugaratu zen; Euskadiko txapelketan, Arabako Arespalditza herrian, oster, bigarren izan zen.

Lesioa atzean utzita

Meritu handiagoa eman behar zaio aipatutako palmaresari, ekainean, "denboraldiko momenturik onenean", eskumuturreko eskafoidean min hartu zuela kontuan izanda. Bi hilabete eman behar izan zituen asfaltotik kanpo, baina abuztuan agertu zen berriz, Nafarroako hainbat lasterketatan parte hartzeko. Irailko lehen egunetan, gainera, kadeteak baino zaharragoekin, gazte mailakoekin aritu zen Gipuzkoako pare bat ekitalditan.

Pixkanaka erritmoa hartzeko baliatu zituen hitzorduak, eta jarraian etorri zen Eibarko erakustaldia. Kadeteen egutegia amaitu bada ere, bihar, gazte mailako txirrindulariekin ba-

tera parte hartuko du, Elgoibarren, arratsaldeko lauretatik aurrera. Antzuolarrarentzat, datorren urtean indarrak neurtuko dituen aurkarien gaitasuna neurtzeko proposa izango da zapatukoak: "Zaharragoekin ibili izan naizenean igarri dut pedalkada arinagoak ematen dituztela; gazteen kategoriarira pixkanaka moldatzen joateko hitzordu polita izango da bihar, beraz".

Herrian bada afiziorik

10 urte ingururekin probatu zituen bi gorpilen gaineko lasterketak, aitaren zaletasunari jarraituz. Antzuolan txirrindularitzarako "afizio dezente" dagoela dio, eta giro horrek lagundu du berak ere kirol hori "gustuko" izateko orduan. Badauka oraindik zer hobetu: "Esprintean, akaso". Kontrara, "batez ere, goraka" moldatzen da ondoen; ea bere kirol-ibilbideak ere norabide horretan jarraitzen duen.

ABILA DA ALDAPAK IGOTZEN, ETA ORDEKAN EUTSI EGITEN DIO ERRITMOARI

Antzerki egonaldia egin dute hiru aktorek, dolua lantzeko

Astebetaz aritu dira Torresoroan lanean Oier Zuñiga, Eneko Gil eta Belen Cruz, 'Geuretik sortuak' bekarekin

H.L. ANTZUOLA

Joan den astean Elgetan egin bezala, aste honetan Antzuolan hartu dute ostatu hiru antzerkilariek, doluari buruzko *Eresia* obraren sormen-prozesuan murgilduta jarraitzeko. Zuñigak azaldu du "esperientzia eszeniko, bisual eta poetikoa" aurkeztea dela asmoa, "ohiko dramaturgiatik ihes eginda eta konkrezioetan sartu gabe". Antzez-lana urtarrilaren 15ean estreinatuko dute, Bergarako Seminarixoan; Elgetara eta Antzuolara, aldiz, otsaileko lehen

asteburuan ekarriko dute. Aurretik, azaroan zehar, aktoreak Debagoienara itzuliko dira, bertako herritar eta kultur eragileekin sormen lanaren inguruko elkartrukea egiteko.

Udalbiltzak lagundua

Udalbiltzaren *Geuretik sortuak* beka-sortaren baitako 26 proiektuetako bat da *Eresia*. Ekainean Antzuolako, Bergarako eta Elgetako udalek aho batez onartu zuten proiektuok babestea; Antzuolako Udalak 9.000 euro jarri ditu beka hauspotzeko.

Hurrengo odol-ematea, hilaren 21ean Torresoroan

Olaran Etxeko eraberritze lanak direla-eta Torresoroara lekualdatuko dute odola emateko hurrengo hitzordua. Hala, hiru hilabetetik behin antolatzen den egitasmoan, datorren asteartean, 16:30etik 20:10era, parte hartu ahalko dute antzuolarrak. Aurrez, baina, txanda eskatzea komeni da, egun berean, 943 00 78 84 telefono zenbakira deituta.

Antton Telleriaren 'Nekatutak' saioa datorren ostiralean

Debagoieneko hainbat oholztatik pasa ostean, esatari tolosarra Torresoroan izango da irailaren 24ean. Bakarrizketa 19:30ean hasiko du, eta bertaratu ahal izateko bi bide egongo dira, Udaleko Kultura Sailak aipatu bezala: alde batetik, sarrerak liburutegian eskuratu ahalko dira; eta, bestetik, Labur.eus/sarrerakan-tzuola helbidean. 10 eurotan.



KARLOS BALEZTENA

Bergararekin bat

AKeko emakumezko infantil eta kadete mailetako futbolariak mahoneroekin batera jokatu dute denboraldi honetan. Joan den zapatu goizean infantilek lagunartekoa jokatu zuten Eztalan, Zumaiakoren aurka. Ligan ere etxeko partiduen erdiak Antzuolan jokatu dituztela aurreratu du Ibon Gezalagak, AKeko presidentea.

Gidari lanetan Tenerifeko uretan eta itsasontziz

"Itsasoa ez zait burutik joaten", aitortzen du Josu Mañarikua elgetarrak. Aurretik ere bost hilabeteko zeharkaldia eginda dago, baina oraingoan, itsasontzi handiagoa erosi eta oporretako eskaintza egin du. Hilabeteotan hogeitatu lagun hartu ditu belaontzian

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA

"Itsasora bueltatzea izan dut beti buruan, eta Elgetan nengoela jendeak galdetzen zidan ea noiz eramango nituen zeharkaldi bat egitera. Horrela bururatu zitzaidan nabigazio egonaldiak prestatzea udarako. Eta esperientzia oso ona izan da. Pozik nago", azaldu du elgetarrak.

Ekain erdialdera joan zen Tenerifera Mañarikua, eta itsasontzia erosi ostean uztaile erdialdera hasi zen lehen nabigazio lagunak jasotzen. Orduetik, hogeitatu pertsona izan ditu itsasontzian. Askok elgetarrak izan dira, baina elgetarrak ez direnak ere izan ditu belaontzian. "Ezagunak izan dira gehienak edo lagunak, baina nahiko gertukoak, bai", azaldu du.

Maiatzean hasi zen gauzak antolatzen. Lagun baten bitartez izan zuen bere baldintzetara egokitzen zen eta Kanariar uhartean salgai zegoen itsasontzi baten berri. "Erosi egin nuen. Jendea hartzeko ideia nuenez, hozkailuarekin, eguzki-plakekin eta aurreko itsasontziak ez zeuzkan bestelako erosotasun batzuekin hartu nuen. Ideia zen nabigazio esperientzia beste batzuekin konpartitzea, eta gastuak ordaintzeko laguntza bat jasotzea".



Elgetar asko izan dira itsasontzian, baina lagun berriak ere bai. J.M.

Leku segurua nabigatzeko

Sei edo zazpi eguneko egonaldiak egin dituzte Mañarikuaeren itsasontzian bisitari gehienek. "Denetarik egon da, baina inor ez da etorri nabigatzeko esperientzia handiarekin. Esango nuke gehienak esperientzia berri bat bizitzera etorri direla, eta mundu hau askorik ezagutu gabe. Baina ondo joan da dena". Itsasoko gaitzaz galdetuta, esan du zorabio bat edo beste izan dutela: "Baina oso gutxi, esango nuke. Egia da saiatu naizela itsaso txarrarekin ez irteten".

Gaur-gaurkoz, Tenerifen jarraitzen du Mañarikua. Beste bi talde hartuko ditu itsasontzian irail amaierara bitartean. "Orduan amaituko da uda sasoa, eta astebetetxo bat hartuko dut, zer egin pentsatzeko. Ez dut batere argi zer egingo dudana. Askok galdetzen didate -batez ere, gurasoek-, baina ez dut erantzunik, oraingoz".

Esperientzia oso ona

Uda honetako esperientzia ez da elgetarrak izan duen lehenengo egonaldia itsasontzi ba-



Mañarikua nabigazio lagunekin Kanarietako kostaldean inguratzen. J.M.

Nabigazioa Tenerife hegoaldean

Las Galletas izenarekin ezagutzen den parajea izan du Mañarikua zeharkaldien abiapuntu eta amaiera. "la urte osoan izaten da itsaso ona hemen. Tenerife hegoaldea da, eta abuztuan indartsuak diren alisio-haizeetatik babespean dago Teide mendiari esker", azaldu du. 31 oineko Dufour itsasontzia du: "Aurrekoa baino apur bat handiagoa da, bederatzi metro eta erdi luze da, eta prestazio hobekitu. Sei lagunendako itsasontzia da, baina zeharkaldietan bost ibili gara, gehienez".

Bidaiarien nahiak betetzen saiatu dela azaldu du: "Batzuek nabigatu egin nahi zuten, beste batzuek nahiago zuten arrantzan egin edo aingura bota eta lasai egon. Kala batean eguna pasatzea eta bertan lo egitea ere posible izan da. Ondo ibili garela esango nuke. Niretzat, behintzat, esperientzia polita izan da".

tean. 2019ko otsailean Zumaiatik abiatu eta portuz portu El Hierro uharteraino bidea egin zuen. Hura izan zen nabigazio baime-nak lortu ostean egindako lehenengo zeharkaldi luzea, eta bakarrik egin zuen. Bost hilabeteko zeharkaldia izan zen.

Elgetara itzuli, eta pandemiak eragindako itxialdia etorri zen. Denendako izan zen gogorra, baina itsaso zabalean hainbeste hilabete egindako Mañarikua-rendako, bereziki.

"Esperientzia moduan oso ona izan da", dio udako hilabetei

erreferentzia eginez. "Ez naiz batere damutzen. Oso-oso pozik nago. Ekonomikoki gastuak estaltzeko laguntza izan dut, eta hori zen asmoa. Ez dakit orain zer gertatuko den. Ni gustura nabil itsasoa, eta pentsatuko dut zer egin".

BESTE BI TALDE DITU IRAIL AMAIERARA ARTE, ETA GUSTATUKO LITZAIKOE ITSASOAN JARRAITZEA

Zazpi ume ludotekan

Astelehenean zabaldu zituen atea ludoteka zerbitzuak, eta zazpi erabiltzaileekin ekin zituen ikasturte berriari. Eguraldiak ahalbidetzen duen bitartean, aire zabalean egingo dituzte ekintza gehienak, Nerea Villa hezitzailearen gidaritzapean. Oraindik gelditzen dira plaza libreak, eta jakinarazi dute zabalik jarraitzen duela izen-emateak.



ELGETAKO LUDOTEKA

OHARRAK

Podologoaren kontsulta erretiratuendako

Iraileko kontsulta hilaren 20an, astelehena, izango da. Aurrez izena ematea ezinbestekoa da. Deitu 667 80 70 06 zenbakira.

A2 euskara ikastaroa

Zabalik da hilaren 20ra arte euskara ikastaroan izena emateko aukera. Argibideetarako, jo udaletxera edo liburutegira.

Hitzez Pitz irakurketa saioak

Eguaztenean, hilaren 22an, emango diote hasiera ikasturteari liburutegiko Hitzez Pitz irakurketa saioek. Hitzordua 19:00etan da. Liburutegian eskatu behar da aukeraturako irakurketei buruzko informazioa.

Intxortako Igoera eta tirolina aurtengo azokan

Zapatu goizean herriko dozena bat ekoizlek ipiniko dituzte salmenta postuak plazan. Iaz ere egin zen azoka, baina pandemia tarteko Intxortako Igoerarik eta umeendako tirolinarik gabe. COVID neurriekin bada ere, hitzordu biak bueltan izango dira aurtengoan.

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA

Dozena bat postu izango ditu aurtengoan herriko ekoizleen eta artisauen azokak. "Azken orduko konfirmazioen zain, barazkiekin lau bat postu izango dira, artisautza produktuekin beste lau eta gainerakoak Larrabiltxoko ezta, Baobeer garagardoak eta marokoar gozokiekin bi mahai. Elgoibarko Lizasagar sagardogilea ere etorriko da", azaldu du Baserritarren batzordeko buru Sebastian Arantzabalek. Baieztatuta dauden ekoizleen artean dira Sesto baserriko Irene Bolinaga, Sebastian Arantzabal bera eta aurtengo lehena aldiz azokan izango diren Arantzeta baserriko Pello Bilbao eta Naiara Romatet. Pili Arinek bi postu jarriko ditu eta Lorena Ibeas ere azokan izango da.

Azoka 10:30etik 13:00etara egongo da zabalik. "Sarrera eta irteera izango ditu, eta postuak ikusteko zirkuitu moduko bat gurutzatzeak saihesteko. Maskara jantzita eraman beharko da", zehaztu du. Eurria bada, postuak arkupean jarriko dira.

Barazki ekoizleek ez dute nahi besteko jenerorik atera aurtengoan. "Eguraldi zoro samarra izan dugu", azaldu du Arantzabalek. "Ez du ia uda girorik egin, eta euririk ere ez sasoi handi batean.

Orain, berriz, hego-haizea dabil. Urtea arraro doa".

Pandemia tarteko iaz ez zen azoka osteko bazkaririk egin, baina bueltan izango da ohitura hori ere. Azokan ipinitako postu bakoitzeko bazkari bana egingo du opari Udalak eta Bolatokian izango da bazkari hori.

Tirolina umeendako

Udaletxeko armariaren azpian dagoen leihotik ikurrina dagoen plazako izkinaraino *hegan* egiteko aukera izango dute bihar neska-mutikoeak. Zintzilik Emozioen Laborategiak jarriko du tirolina, ausartzen direnek esperientzia horrekin goza dezaten, eta azoka zabalik dagoen bitartean egongo da erabilgarri. "Udaletxeko atean egin beharko dute ilara umeek, eta banaka igoko dira ainguratzeak jartzera eta salto egitera", azaldu du Iraitx Lazkano alkateak. Aurretik ere egonda dago tirolina azokan; 2018an eta 2019an, hain zuzen ere. Oso antzerakoa izango da funtzionamendua, baina maskarekin eta distantziak mantenduz izango da aurtengoan.

zioen Laborategiak jarriko du tirolina, ausartzen direnek esperientzia horrekin goza dezaten, eta azoka zabalik dagoen bitartean egongo da erabilgarri. "Udaletxeko atean egin beharko dute ilara umeek, eta banaka igoko dira ainguratzeak jartzera eta salto egitera", azaldu du Iraitx Lazkano alkateak. Aurretik ere egonda dago tirolina azokan; 2018an eta 2019an, hain zuzen ere. Oso antzerakoa izango da funtzionamendua, baina maskarekin eta distantziak mantenduz izango da aurtengoan.



Ume bat tirolinan behera eta atzean herriko ekoizleen azoka, 2018an. ELGETAKO UDALA



Intxortako Igoerako sari banaketa, 2019an. L.Z.L.

Azkarrenen bila, berriz ere

Pandemiak eragindako iazko etenaren ostean, bueltan da elgetar askorendako hain berezia den Intxortako Igoera. 12 urtetik gorakoei dago zabalik eta sasoi onenean daudenek aukera izango dute ezarrita dauden markak hobetzeko. Lasterkariak 11:00etan abiatuko dira plaza barrenetik, eta Intxortako haize-errotari buelta emanda itzuli beharko dute irteera puntura. Kalkulatzen da 2,8 kilometroko distantzia dagoela, nahiz eta norberak erabakitzen duen ze ibilbide egin. 267 metroko desnibela dago plazaren eta Intxortako gailurraren artean.

Gaur-gaurkoz, Eleder Lozanok eta Argider Txurrukak dituzte markarik onenak. Lozanok 16.14an geratu zuen erlojua 2015ean eta Txurrukak 23.47an 2019an. Udalak zortzi sari iragarri ditu, guztiak ere herrian erroldatutako artean banatuko direnak. 16 urtetik gorako lehena hiru sailkatuendako sari bana dago, bai gizonezkoetan bai emakumezkoetan; 12-15 urte artekoendako beste hainbeste; eta indarrean dauden markak hobetzea lortzen dutenendako sari bana. Izen-ematea 10:20ean zabalduko da, eta sari banaketa 13:00etan izango da.

12 urtetik beherako neska-mutikoeak ere izango dute lasterka egiteko aukera. Plazatik Salbador ermitara igo eta bueltan jaitea izango da eronka, kasu horretan. Izen-ematea ere 10:20an zabalduko dute eta, adin txikikoak izanik, parte hartu ahal izateko gurasoek sinatutako baimena beharko dute.

Irteera, maskarekin

COVID neurriak bete beharko dituzte parte hartzaile guztiak. Horrela azaldu dute antolatzaileek. Distantziarik betetzen ez den uneetan maskara jantzita eduki beharko dute. Hala, irteera maskarekin egin beharko dute, eta jarri egin beharko dute taldean joanez gero, aurreratzerakoan zein gurutzatzeak daudenean.

Aitortza boluntarioei

Mariasun Agirrek eta Mari Carmen Ojangurenak ia 40 urte egin dituzte Elgetako ordezkari Gipuzkoako odol-emaitzen elkartearen. Ozkarbi elkarteak hartu du erreleboa, eta, hain zuzen, astelehenean egin ziren lehena odol-ateratzeak. Udalak aukera baliatu du bi elgetarrei aitortza egiteko. Plaka bana jaso zuten Iraitx Lazkanoren eta Garbiñe Irazabalen eskutik.



L.Z.L.

Koko-eskea antolatzen hasteko batzarra urriaren 7an

Otsailean plazaratu zuen Goibeko Euskaltzaleen Topaguneak Elgetan koko-eskea antolatzeko proposamena. Oier Araolazaren hitzaldia ere egin zen herrian. Badator udazkena, eta ekimenari forma ematen hasteko unea dela iragarri du Goibekok. Urriaren 7rako deitu dute lehena batzarra. 19.00etan izango da. Zehazteko dago non.



Txaro Uribebeberria, Kontxi Puertas eta Iñaxio Irizar, Pake Lekuko kultura batzordekoak. O.E.

Aktibo eta gogotsu datoz bueltan erretiratuak

Sanmigeletako nagusien danborradarako talde bat osatu eta parte hartzeko asmoa zuten herriko erretiratuak. Danborradarik ez da egingo aurten, baina bai, ordea, eurek antolatutako hainbat ikastaro, irteera, tailer eta hitzaldi, esate baterako

Oihana Elortza OÑATI

Aktiboak dira Oñatiko erretiratuak, Pake Lekukoak zein Lagun Lekukoak, eta, pandemiagatik urte eta erdi gelditu edo motelduta egon ostean, gogotsu daude berriro lehengo jardunak berreskuratu eta dituzten asmo berriak gauzatzeko.

Hamasei ikastaro

Pake Lekun, esaterako, ikastaroak antolatu dituzte berriaz, eta jendea hasi da izena ematen. Dantzak, bitxiak egiten ikasteko, euskara eta ingeles ikastaroak, informatika, orratz lanak, punta, solfeoa, yoga, antzerkia, marrazketa eta pintura, memoria tailerra, irakurketa taldea eta abesbatza dira antolatutakoak, eta, horiez gain, aurten baita Wikipediari buruzko bat ere. Ikastaroekin batera, tarteka antolatzen dituzten hitzaldiak ere, izan osasunaren gainekoak edo historiakoak, adibidez, egin gura dituzte. Baita irteerak ere. Une honetan Lanzaroten dira

hamabost lagun, baina egun-pasa joateko irteeren zerrenda prestatzen ere badabilta, "Euskal Herriko herri edo parajeak bisitatu eta ezagutzeko", kultura taldean diharduen Iñaxio Irizarrek azaldu duen moduan. Ile apaindegi zerbitzua eta taberna ere zabalik dituzte, eta gero eta erretiratu gehiago joaten dira egun egoitzara. "Beldurra du jendeak, baina gero eta gehiago datoz. Terraza, adibidez, beteta egon da zenbaitetan", dio Kotxi Puertasek, presidenteak.

Toldoak terrazan

Eta terraza gehiago aprobetxatze aldera, toldoak eta haizeari aurre egiteko babesak jartzeko asmoa azaldu dute. Eskaera

1.350 BAZKIDE DIRA, GUZTIRA, PAKE LEKU ELKARTEAN; 80 URTETIK GORAKOAK IA 400 DIRA

egina dute Udalean, baina handik Aldundira pasa behar dute, eta erantzunik ez da etorri oraindik. "Dugun beste asmoetako bat da abesbatzako kideen jantziak aldatzea. Horrek bere kostua izango du eta aurtengo aurrekontua normalean izan ohi duguna baino altuagoa da", dio Puertasek. 50.000 euroko aurrekontua aurkeztu dute.

Konpainia bat danborradan

Sanmigeletako nagusien danborradan irteteko talde bat sortzea ere pentsatuta dute. "Lehendik datorren ideia bat da hori. Lagun Lekukoekin ere hitz egin genuen, eta haiek ere baietz; denon artean talde bat egitea zen asmoa, baina pandemia etorri zen gero. Hurrengo urtean, akaso", dio kultura taldeko Txaro Uribebeberriak.

Datorren hilabeteen hasiko dira martxa hartzen Lagun Leku elkarteak, Eltzian instalazio elektrikoak egokitzeko lanak egingen ari dira-eta orain.

laz baino turista gehiago, baina ez duela bi urte adina

Abuztuan, Arrikruz-Oñati kobetan, historian izan den daturik onena lortu da: 3.193 bisitari, hain zuzen ere

O.E. OÑATI

Joan den urteko udan baino 786 bisitari gehiago jaso dira uztailean eta abuztuan Oñatiko Turismo Bulegoan. Baina duela bi urte etorritakoen %60. Udaleko Turismo Sailekoek pandemiak ekarritako aldaketekin lotzen dute jaitziera hori. Esaterako, atzeritik ez datorrelako lehen beste bisitari eta datozenak talde txikietan datoze-lako.

Datuak arakatura, etorri diren gehienak, %64, estatutik etorri dira, Madrildik asko; %25 Euskal Herritik, Gipuzkoatik batez

ere; eta %11 atzeritik, frantziarrak eta herbeheretarrak tartean.

Datu kuriosorik ere egon da, baina, aurtengo udan. Arrikruztzeko kobetan, esaterako, historian lortutako kopururik handiena lortu dute abuztuan: 3.193. Txokolatexiak izandako bisitari kopurua ere mantendu egin da aurreko urtekoekin konparatuz, 1.713 aurten. Txokolatexiko *Gernika* ikusten, berriz, 3.455 lagun izan dira.

Herriko ostatuak %90 eta %95 arteko okupazioa izan dute eta egonaldiak ohikoak baino luzeagoak izan dira.



Bisitari talde bat parrokiako klaustroan, abuztuan. GOIENA



NIRE USTEZ

AITOR UGALDE

Oporrak

Nostalgiaz hitz egin dugu oporraldiaz ohikotzat daukagun bitzita erritmora itzuli garenean. Oporren on-aldia aipatu dugu oraingo aldiarekin kontrajarrit. Esandakoak entzunda, zenbaitentzat kontraste hori muturrekoa izan daitekeen sentazioa jasotzen dut, oporretan dena zorion eta egunerokora itzultzea, aldiz, hurrengo oporraldia heldu arte nahitaez pasatu beharreko penitentzi aldian. Itogarria izatera heldu daitekeen ohiko bizimoduari ihes egiteko baltsamoaz hartzen ditugu oporrak, izan udako opor luzeak edo urtean zehar hartutako opor pilulak. Ohikotasunari aurre egiteko indarra hartuko dugun ueak izatea nahi dugu. Horregatik esango dugu oporrak aprobetxatu egin behar ditugula.

Nik ez daukat argi nola aprobetxatzen diren oporrak, ez dakit oporretan egindakoa noiz heltzen den *espektakularra* edo *brutala* izatera. Oporretan indarrak hartzeko modurik egokiena zein den ere ez dakit, baina iruditzen zait, geroz eta gehiago, ohiko bizimoduaren abiaduran bizi nahi izaten ditugula oporrak ere.

Kultur egitaraua aurten ere, jaiak beharrean

Plaza ondoan eta txosnagunean jarriko diren karpetan egingo dira Udalak zein txosna batzordeak prestatu dituzten emanaldiak; Neomak eta Tribade taldeen kontzertuak, tartean. Atsolorra, gazta lehiaketa eta Di-Bertsioak ere egingo dira

Oihana Elortza OÑATI

Irailaren 24an egingo den kontzertu batekin hasiko da San Migel eta Errosario jaiak ospatu beharko liratekeen egunetan Udalak antolatuta egingo den kultura emanaldien eskaintza. Izan ere, aurten, bigarren urtez jarraian, ez dira herriko jai nagusiak egingo, baina hilabetearen azken astean eta urriko lehen asteburuan egingo da kultur emanaldiez gozatzeko aukera.

Artisauen azoka domekan

Plaza ondoko espazioan jarriko duten karpapean izango dira Udalak antolatuko dituen emanaldiak. 250 bat lagun sartuko dira bertan, eta, ikuskizunak doan izango diren arren, txartelak hartu beharko dira aurretik, ohiko bideak erabiliz. Neomak da, esaterako, han entzundako bat.

Musika bandak ere San Migel egunean eta Errosario domekan egin ohi dituen kontzertuak egingo ditu aurten, eta, Herri Eguna bere horretan ospatuko ez bada ere, gazta lehiaketa egingo da aurten. Beti bezala, Nekazarien Elkarrekin antolatuko du hori Udalarekin batera, eta aste honetan hartuko ditu azken erabakiak, baina lehiaketaz gain litekeena da aurten gazta das-



Ume jaiaberriei zapia lepoan jartzen 2019ko Atsolorra ekitaldian. GOIENA

tatzea ere egotea. Plaza ondoko karpetan egingo da hori ere. Bestalde, normalean artisau azoka Herri Egunean egin ohi izan den arren, aurten azoka berreskuratu bai baina irailaren 26an, domeka, egingo dute. Egun berean egingo dira ere Nazioarte-

GAURTIK 23RA BITARTEAN HAUTATU AHAL IZANGO DA GUSTUKO KARTELA, ONLINE

ko Artzain Txakur Txapelketa goizean, Santa Lutzian, eta haurren danborrada, arratsaldean, kiroldegian. Bezperan, hilak 25, 50. urteurreneko azken ikuskizuna egingo du Oñatzek, Zubikoak kantxa berdean. Gonbidapenak, 350, agortuta daude.

Eta asteburu horretan izango den beste ekitaldi bat izango da, Atsolorra. Joan den urtean ez zuten egin, eta aurten, 2019ko San Migel egunaren ostetik 2021eko irailera bitartean jaiotakoei egingo diete ongiatorri ekitaldia udal ordezkariak. Oso-



2017ko Di-Bertsioak; aurten ere egingo dira. GOIENA

Txosnagunean ere eserita

Txosnagunea ohiko tokian egingo da aurtengo ez-jaietan, Zuazola institutuaren aurrean, Unibertsitatearen ondoan. Karpa handi bat, taberna zerbitzua eta eszenatoki bat muntatuko dituzte gune horretan. Eta musika emanaldiez zein bestelako hainbat ikuskizunaz gozatzeko aukera eskainiko dute bertan. Zuzeneko musika kontzertuak ez ezik, ume zein nagusiendako ipuin kontaketa eta jolasak eta txikiendako pailazoak izango dira, adibidez, txosnagunean. Gurasoen taldeak egindako proposamena izan da umeendako ikuskizunak ere eskaintzea txosnetan, eta egingo da, esaterako, pailazoen ikuskizun bat.

Karparen azpian terraza moduko bat jarriko dute; mahaiak eta aukerak egingo dira, eta eserita jarraitu ahal izango dira han egingo diren zuzenekoak. Bartzelonako Tribade-k, kasu, iragarri du Oñatin joko dutela 25ean. Datozen egunetan emango du txosna batzordeak irailaren 25etik urriaren 4ra bitarteko antolatu dituen emanaldien berri. Diote ederra dela kultura emanaldiez gozatzea eta, aldi berean, sortzaile horri bere lana erakusteko aukera ematea, eta herritar guztiak gonbidatu dituzte gunera joan eta gustukoa duten emanaldiaz gozatzeko gelditzera.

Tabernak ez du sukalde zerbitzurik izango, baina, inork bazkaria etxetik eraman eta hango mahaian eserita jan gura badu, egin ahal izango du. Ia txanda guztiak beteta daude dagoeneko.

ko bilkuren aretoan izango da eta txandaka igoko dira gurasoak umearekin; gutun bidez jakinaraziko zaie gurasoei ze ordutan egokitu zaion bakoitzari.

Kartel lehiaketa bat ere antolatu du Udalak. Jairik gabe egonda, egoera horretan zer-no-

la sentitzen diren da herritarrei egindako galdera; sentimendua jasoko du kartelak. Atzo, egue-na, zen lanak entregatzeko azken eguna, eta, gaurtik 23ra arte, Internet bidez aukeratu ahal izango du edonork gustukoena.

Birzikleta azoka egingo da bihar goizean plazan

Mugikortasun Astearren barruan, ekintza bat baino gehiago antolatu ditu Udalak, eta horietako bat da bihar, zapatua, goizean plazan egingo den Birzikleta azoka. Gaur egun estimu handia duten bizikletak ez ezik, kaskoak, umeendako motorrak eta patineteak ere jasotzen ibili dira astean zehar biharko azoka-

rako, eta hantxe egingo dira eskuragai.

Garraio publikoaren erabilerara sutatu guran, domekara bitartean, Herribusa doan izango da eta Mugi txarteleko 20 euroko 20 bonu banatuko dituzte. Hain zuzen ere, Mugi txartelaren erabileraren inguruan informazioa ematen izan ziren atzo, egue-na, plazan bertan, herritarrei zalantzak argitzen eta atera gura zuenari zer eta non egin behar zuen azalduz.

Kirol eta kultura hitzorduak San Martin auzoko jaietan

Bihar, zapatua, 10:00etan, orientazio proba egingo dute San Martin auzoko jaien barruan, eta eguerdian, erakustaldia egingo dute Iñaxio Perurena harri jasotzaileak eta Eneko Saralegi aizkolariak. Txorimaloekin *photocall*-a egingo da arratsaldean eta 22:00etan, Lukiek eta Joseba Irazokik eskainiko duten kontzertua hasiko da.

Ate irekiak dituzte Txaloka ludotekan datorren astean

Datorren hilabetean hasiko duen ikasturte berria prestatzen ari dira Txaloka ludotekan, eta 3 eta 9 urte bitartekoendako duten eskaintza erakusteko ate irekiak egingo dituzte datorren astean. 16:45etik 19:45era egingo dira, eta zer egiten duten, lokala nolakoa den, nola lan egiten duten eta beharrezko informazioa ematen egingo dira han bertako

hezitzaileak. Aurten, gainera, bazkidetza sistema egingo da, ikasturte erdia edo osoa egiteko aukerarekin, eta horri buruzko informazioa ere emango diote behar duenari. Ate irekien aurretik, aste honetan, kalera atera dute ludoteka eta herriko hainbat gunetan izan dira jolasak egiten. Gaur, egubakoitza, Erremertereri plazan egingo dira arratsaldean; aurpegi margoketa eta jausgailu tailerrak egingo dituzte. Ikasturte urriaren 6an hasiko dute.

"Ezaugarri asko lantzen dira eskola kirolean"

ISMAEL ZUBIA OÑATIKO ESKOLA KIROLEKO KIDEA

Ahalik eta aniztasun handiena eskaintzen saiatuko dira aurten ere Oñatiko eskola kirolean. Aurtengo ikasturtea aurrekoa baino malguagoa izango den esperantza dute

Oihana Elortza OÑATI

Azken bi ikasturte gorabeheratsuen ostean, Oñatiko eskola kirola 2021-2022 ikasturterako motorrak berotzen ari da. Gaur, egubakoitza, da izena emateko azken eguna.

Gorabeheratsuak izan dira azken bi ikasturteak, baina zuek eutsi egin diozue eskola kirolari, ezta?

Bai, ahal izan den neurrian, eutsi egin diogu. 2020-2021 denendako izan zen berezia. Ez genituen gura genituen programa guztiak gauzatu, baina bai batzuk. Adibidez, zapatuetako saioak ezin izan genituen egin, baina bai, ordea, aste barrukoak, ordu eta erdikoak. Seigarren mailakoekin sustapen jardunaldiak ere egin genituen eta ikasturte amaierako festa txiki bat ere bai. Ea aurten malguago egin dezakegun aurrera.

Zelan dator ikasturte berria? Zer egin ahal izango da?

Malguagoa izango den esperantza badugu. Zapatuetan egiten ziren topaketa eta lehiaketa horiek baimendu egin dira, momentuz, ikusiko dugu bilakaera zein den, baina hori berritasun bat izango da. Mendi irteeretakoko programak martxan jartzeko asmoa ere badago, zehaztu barik oraindik Oñatin bertan edo autobusean sartu eta beste nonbaitera joanda egingo diren.

Garrantzia du eskola kirolari eus-teak?

Bai, 6 eta 12 urte artekoen artean garrantzitsua da aniztasunean oinarritutako kirol ekintza praktika bat izatea. Iazkoa ikusita, eskaerak egin dizkiogu Jaurraltzari antolaketa erraztuko duten moduak onartzeko. Onartu ditugu, adibidez, talde osoak mantentzea, eta aurrerapen horrekin pozik gaude.

Duela urte batzuk, eskola kirola aldatzeko beharra ikusi zenuten. Zergatik?

1990eko hamarkadan hasi zen martxan Oñatiko eskola kirola.



Ismael Zubia irakaslea Elkar Heziko jolaslekuko eskaileretan. O.E.

"ESKOLA KIROLEAN KIROL EGOKITUA, ADIBIDEZ, 6 ETA 21 URTERA BITARTEAN ESKAINTZEN DUGU"

Aurretik egiten ziren txapelketa batzuek jarraitzen dute oraindik, errotuta dagoen ekintza da Oñatin, baina ikusten genuen indarguneak egon arren ahulguneak ere bazeudela. Horietakoa bat zen, adibidez, aste barruko eta asteburuko parte-hartze mailak oso ezberdinak zirela, asteburuetan gehiagok hartzen zuten parte. Eta gure asmoa zen biak uztartu eta portzentajea igotzea; %18tik %70era igotzea lortu dugu. Izaera juridiko pisutsua izatea ere behar zela ikusi genuen eta herriko kirol diagnosiaren lana egiten hasi zenean Udala, hortxe sartu zuen hau.

Zer dakar formatu horrek?

Langileak kontratatzeak aukera izatea, dirulaguntzak izatea... Eta baldintza horretarako zen hiru ikastetxeek bat egitea. Lan polita egin zen, eta sortu zen elkarteak.

Ikastetxeak ez ezik, beste eragile batzuk ere badaude. Ohikoa da?

Udala, Aldundia, Aloña Mendi elkarte eta herriko hainbat eragile ere, Trauti edo bailarako kirol egokituko taldea, adibidez, daude sartuta. Eta, noski, babesleak. Eurei esker dugu aukera, adibidez, eskola kirol egokitua eskaintzeko.

Aurten, zein aukera izango dute?

Ahalegintzen gara ahalik eta zabalena eskaintzen. Bloketan egiten dugu lan, eta arlo ezberdinak landu: ziurgabetasuna, kooperazioa, gorputz adierazpena, banakako eta taldekako lehiak, eta abar. Horren barruan: kirol egokitua, golfa, izotz patinajea, patinak, saskibaloia, mendi bizikleta, padela, boleibola... Alegia, esperientzia ezberdinak. Bizipenak eskaintzea da gure asmoa, bakoitzak bere bidea aurkitzeko.

Kirolaz gain, beste zerbait ere bada, orduan, eskola kirola?

Bai: ziurgabetasuna gainditu, harremanak egin hiru ikastetxeak nahastuak, autonomia landu, galtzen eta irabazten ikasi... Kirol egokituan ere eskaintza zabala da, 6 eta 21 urte artekoa.

Azken eguna gaur umeen ur ikastaroetan izena emateko

Igeriketa ikastaroak hasi aurretik, irekiera festa egingo dute jolas eginez; datorren astean izango da hori

O.E. OÑATI

Umeen igeriketa ikastaroak hasi aurretik, jolas eginez irekiera festan parte hartu beharko dute lehenengo eta derrigorrezkoa izango da hor apuntatzea ikastarorako izena ematerakoan. Gaur, egubakoitza, da, gainera, ikastaroetan izena emateko azken eguna. Eta datorren astean, irailaren 20tik 24ra bitartean egingo dute festa hori –adinaren arabera, egun eta ordu jakin batzuk izango dituzte–. Posta elektronikoz jakinaraziko dute, hilaren 28an, zein abilezia tal-

detan parte har dezaketean, eta izen-ematea urriaren 6tik 12ra bitartean egin beharko dute. Izen-emateetan aldaketak urriaren 12tik 15era bitartean egin ahal izango dira, eta urriaren 18an hasiko dituzte saioak. "Ikasturtean zehar saiatuko gara jolasaren bitartez, modu ludikoan, umeek igerilekua leku atsegina bat bezala ikustea, jolasteko beste ingurune baten moduan", esan du Jokin Atxagak.

Helduendako igeriketa saiorako izen ematea ere data berean egingo da.

Zapatuan goizean egingo da Oñatiko VI. mendi martxa

Zapatuan 07:00etan abiatuko dira herriko plazatik Oñatiko mendi martxa luzea egitea erabaki dutenak; 23 kilometroko buelta. Ibilbide motza, hamar kilometro gutxiago, aukeratu dutenak, berriz, 08:00etan. Batean zein bestean, Aizkorri-Aratz parke naturalaren barruan egingo dute ibilbidearen zati handi bat. Anoa-puntuak egongo dira.

Futboleko goreneko taldearen emaitza, sare sozialetan

Gizonezko Erregional Ohorezko Mailan jokatzeko duen Aloña Mendiko futbol taldeak sare sozialen bitartez egingo dute partiduaren jarraipena: Twitter eta Instagram. Bestalde, partiduak etxean jokatzeko dituen bakoitzean otordu bat zozkatuko dute Txurruka taberna babesle berriari esker. Zapatuan Irunen jokatu du, 15:30ean.

GORA ETA BEHERA



Lurrean utzitako zintak natura zikitzen duela

Garibai auzoan ikusitakoari argazki ateratu dio irakurle batek, eta Goienara bidali du, ikusitakoaz haserretuta eta horrelako portaerak salatu egin behar direla sinetsita. Plastikozko zinta luze bat ikusten da lurrean botata, zuhaitz baten ondoan. "Natura zaintzen, ezta?", dio.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus

edo 688 69 00 07.





Tertulixan irakurketa taldeko kide batzuk, liburuak esku artean dituztela. ARANTZAZU IBARRONDO

Tertulixan; irakurketa kluba baino gehiago

Hamar urte beteko ditu Tertulixan taldeak ikasturte honetan. Irakurzaletasuna bultzatzeaz gain, irakurleak formatzea ere bada saio horien helburua, baita harreman sozial berriak egiteko eta ideiak elkartrukatzeko gunea sortzea ere

Amaia Txintxurreta OÑATI

Berrikuntzekin hasiko du ikasturtea Tertulixan irakurketa klubak; izan ere, dinamizatzailer berriak estreinatuko ditu bai euskarazko taldeak, baita gaztelaniazkoak ere. Miriam Luki eta Monika Leiba izango dira, hurrenez hurren. Eta nahiz eta Oñatin lehenengoz ariko diren lan horretan, badute esperientzia beste herri batzuetako irakurketa klubetan. "Hiruzpalau urtetik behin aldatu egiten ditugu, dinamizatzailer bakoitzak bere estiloa izaten duelako eta bakoitzak bera datorren mundutik askotariko ekarpenak egiten dituelako", adierazi du liburutegiko arduradun Arantzazu Ibarrondok.

Hamargarren urteurrena ospatuko du, gainera, ikasturte honetan irakurketa klubak. Zazpi saio egingo dituzte, urrietik maiatzera. Urriaren 26an hasiko dira euskarazkoarekin, Carson McCullers-en *Kafe tris-tearen balada* liburuarekin, eta

gaztelaniazko taldean Jung Chang-en *Cisnes salvajes: tres hijas de China* liburuarekin ekingo diote azaroaren 2ko saioan. Martitzenetan 18:30ean izaten dira saioak. Gaztelaniazko saioetako bitan, gainera, Kike Infame komikilaria izango da Leibaren orde, eta beste estilo bateko lanak aztertuko dituzte horietan.

Taldearen helburu nagusia da irakurzaletasuna bultzatzea, baina hori baino gehiago dela azpimarratu du Ibarrondok: "Harreman sozialak sortzen dira eta herrian horrelakoak izatea oso garrantzitsua da, eta ez daude hainbeste. Ideien elkartrukatze bat egiten da eta aldamenekoa gehiago ezagutzen da".

"HERRIAN HORRELAKE GUNEAK IZATEA OSO GARRANTZITSUA DA, ETA EZ DAUDE HAINBESTE"

Izen-ematea hilaren 30era bitartean egin ahal izango da, liburutegian, 943 71 61 66 telefono zenbakira deituta, Whatsapez 688 73 28 26 zenbakian edo liburutegia@onati.eus helbidera idatzita.

Idazketa lantegia

Laugarren urtez jarriko dute martxan Joxemari Iturralde gidatutako idazketa lantegia. Bertan, idazteko zaletasuna dutenei behar duten motibazioa, bultzada, formakuntza eta informazioa eskaintzen zaie.

Urriaren 25ean hasiko dute lantegia, 18:00etan, kultura etxeko bilera gelan.

Ipuin kontalariak

Ikasturte honetan, ipuin kontaketa ere izango dira liburutegian. Esaterako, urriaren 20an, helduendako saioa eskainiko du Eugenia Manzanerak, eta hila-bete bakoitzeko azken eguenetan Ostegun Kontalariak saioak izango dira umeendako.



Oñatzeko dantzari talde bat, eguazten arratsaldeko entseguan. A.T.

Orain arteko sarrera guztiak agortu dira Oñatzen saiorako

Baliteke, edukiera neurriak malgutzen badira, behintzat, datorren astean sarrera gehiago salgai jartzea

A.T. OÑATI

Hilaren 25ean eskainiko du Oñatzeko dantza taldearen 50. urteurreneko ospakizunei bukaera emateko ikuskizuna. Zubikoa kiroldegian izango da, 19:30ean, eta astelehenean salgai jarri zituzten 350 sarrerak zortzi orduan agortu ziren. "Hitzik gabe utzi gaituzue. Azken entseguetarako sekulako bultzada eman diguzue eta dantzan ahaleginduko gara eskerrak ematen", adierazi dute taldekoek.

Bestetik, baina, gogorarazi nahi izan dute balitekeela datorren astean Labi batzordeak

edukiera neurriak malgutzeko erabakia hartzea, eta, hala bada, azaldu dute sarrera gehiago jarriko dituztela salgai; beraz, euren sare sozialei adi egoteko dei egin diete sarrera gabe gelditu diren herritarrei.

Entseguetan buru-belarri

Maiatz erdialdean hasi ziren dantza talde txikietan entseguetara, eta azken asteetan gogotsu eta ilusioz dabilta guztia prestatzen. Eguazteneko entseguetako bat, esaterako, Lizargarate Trikitizale Elkartearen zuzeneko musikarekin egin zuten.

Zinema denboraldia estreinatuko dute gaur bertan

Udako oporraldiko etenaren ostean, gaur, egubakoitza, ekingo zaio zinema denboraldiari, kultura etxean. Momentuz, emandako komertzialak hasiko dira, bai helduendako eta baita umeendako ere, eta urri erdialdean hasiko dira zineklubarekin.

Ohiko ordutegia berreskuratuko da eta edukierak mugatuta jarraituko du; 77 eserleku erabili ahal dira. Prezioei dagokienez, haurrendako saioak 4 euro balioko du eta helduenak, 5 –ikuslearen eguna izaten den astelehenean, 4–. Aurrez eskuratuz gero, 50 zentimo garestiagoa izango da. Gaur, *A todo tren. Destino Asturias* ikusi ahaliko da; eta bihar, *Maya erlea 2*.

Iker Martinez eta Zaldi Herrenak, aurkezpenerako prest

Gaur, egubakoitza, kultura etxeko zinema aretoan 19:30ean aurkeztuko ditu Iker Martinez eta Zaldi Herrenak taldeak *Hegaldiak* bilduma eta bideo klip berria. Ekitaldirako gonbidapen guzti-guztiak agortuta daude dagoeneko.

Martinez hirugarren bakar-kako lana da *Hegaldiak*, eta, aurrekoetan bezala, musikari eskarmentudun laguntza izango du agertokian, Zaldi Herrenak taldeko kideekin batera: Joxeba Aranburu (gitarra-jolea), Iñigo Biain (baxu-jolea), Jimi Irizar (bateria-jolea) eta Iñigo Ugarte (gitarra-jolea). Maitasun istorioak rock lasai doinuekin abestuta eskainiko dituzte.

Denboraldi historikoa maila nazionalean

ARETO FUTBOLA Eskoriatzak eta Mondratek Maila Nazionalako Hirugarren Mailan jokatuko dute aurten. Kategoria hori eskoriatzarrendako ez da berria; Mondratekoendako, bai. Lehenengoz izango dira halako maila batean Debagoieneko bi talde

X.U. ARRASATE

Areto futbolean denboraldi historikoa izango da aurtengoa, maila nazionalean lehiatuko dira-eta Debagoieneko bi talde, Mondrate eta Eskoriatza. Eskoriatzako entrenatzaile Mikel Alkaideren mutilendako hirugarren denboraldia izango da kategoria horretan, eta Julen Otxandianoren Mondratek debuta egingo du Hirugarren Mailan, maiatzean igo ziren eta. Hala, bihar, kantxa gehienetan ordu berean (17:30) hasiko da baloia batera eta bestera, eta Mondratek Musakolan jokatuko du lehena, Kukuyaga Etxebarriren kontra. Eskoriatzak, berriz, Bilbon estreinatuko du liga, Gora taldearen kontra.

Maila nazionalako bi talde horiendako aldaketa handiak izango dira aurten. Jokalarietako dagokienez, arrasatearren artean ez da iraultzarik gertatu. "Jokalarik hauek lortu zuten iaz mailaz igotzea, eta, hain zuzen ere, eurak dira jokatzea merezi dutenak; hortaz, ez dugu aldaketa handirik aurreikusit", adierazi zuen joan den astean Otxandianok, baina bistan dago mailari dagokionez Euskadiko txapelketatik maila nazionalera saltoa izango dutela.



Mondratek Kukuyaga hartuko du bihar; argazkian, iaz, Zabalganaren kontra. GOIENA

Eskoriatzan, gazteen alde

Eskoriatzarrak, berriz, taldeen mailak ez ditu ezustean harapatuko. Dagoeneko maila nazionalan jokatzeraz ohituta daude, eta bi urte hauetan mailari eusteko kapaz izan dira estutasun handirik pasa gabe. Iaz, esaterako, oso urte polita egin zuten. Orain, hainbat beteranok taldea utzi dute, eta gazteen aldeko apustua egin dute, Alkaiderekin GOIENA denboraldiaurrean aipatu moduan: "Iazko bide beretik jarraitu nahiko genuke. Hirugarren Mailari eustea da,

hasiera batean, planteatu duguna, baina urtea aurrera joan ahala joango gara erronka berriak ezartzen. Jakinararen gainean gaude gurea talde berria eta gaztea dela, eta, jokalarik beterranoen falta igarriko den arren, gertu gaude. Beraz, apurka-apurka joan beharko dugu pausoak ematen".

Hasteko, badakite denboraldi luzea izango dela, hamazortzi taldeko multzoa osatu dute, eta, Otxandianok nabarmendu moduan, hau iraupen luzeke proba izango da.

UDAK Bergara hartuko du etzi; neskek liga hasiko dute

FUTBOLA Ohorezko Erregionalean, bigarren astez derbia izango da. Nesketan, Leintz Arizmendik jokatuko du etxean

X.U. ARRASATE

Derbi gehiago asteburuan, eta ligako bigarren jardunaldia baino ez dator oraindik. Domekan, Aretxabaletak Bergara hartuko du Ibarra (16:30); hala, Calzonen mutilek joan den astean Azkoainaren eskuratutako hiru puntuei jarraipena eman diezaieketen, eta horrela liga hasiera borobila egin; kontrara, Bergarak joan den astean etxean 0-0 egin eta gero, Ibaratik ez du esku hutsik bueltatu gura.

Mondrak ere berdindu egin zuen joan den astean (0-0) eta zapatuan Amaiak Baten bisita izango du Mojategin (16:30); eta azkenik, Irunen jokatuko du, Real Unionen kontra, Aloña Mendik zapatuan (15:30).

Emakumezkoak, asteburuan

Emakumezkoek, berriz, asteburuan hasiko dute liga, eta




2019ko derbiko irudia. GOIENA

Leintz Arizmendi da etxean jokatuko duena. Andoni Ezkurrrak zuzentzen duen taldeak Mariñoren kontra neurtuko ditu indarrak domekan Mojategin (11:00) eta Bergarako neskek, berriz, Deban jokatuko dute domeka arratsaldean.

ZIKLISMOA Amateur mailako ziklista onenak Oñatin bihar

Oñatiko amateur mailako lasterketa egingo dute bihar, 10:00etan hasita. Helduz torneo azkenurreko lasterketa izango da, Zaldibiako proba bertan behera geratu eta gero Ereñokoa izango da-eta azkena. Ziklistek 100 kilometroko lasterketa izango dute aurretik, eta 12:30 inguruan iritsiko dira helmutegara.



Pelayo Sanchez 2020an. GOIENA

DEBAGOIENENKO UZTA DONOSTIA ZINEMALDIAN

GOIENA TELEBISTA, 'HEMEN DEBAGOIENA'

IRAILAREN 22AN ETA 23AN, EGUAZTENEAN ETA EGUENEAN, 18:00/20:00 ETA 22:00
IMANOL GALLEGO KAZETARIA DONOSTIATIK BERRIEMAILA



DESKARGATU
GOIENA
APP BERRIA!

goiena
Zu hemen zaude.





Monika Muñoz –eskuman– eta Naia Lasagabaster –ezkerrean– ama-alabak, astelehenean 'Harmailatik'-en. X.U.

"Pilotu batzuei min egiten die guk aurreratzeak"

AUTOMOBILISMOA 2019an kopilotu moduan debuta egin zuenetik Naia Lasagabaster Monika Muñozen ondoan izan da lasterketarako prestatuta daukaten Citroen ZXean. Ama-alaba oñatiarrak, zapatuan, hamargarren postuan sailkatu ziren Aramaioko rallyesprintean

Xabier Urzelai ARRASATE

Gauzak aldatzen ari badira ere, oraindik auto lasterketak gizonen plaza dira. Joan den astean Aramaioko rallyesprinteko irteera puntuan batu ziren emakumezko kopuruak erakusten du hori. Monika Muñoz izan zen pilotu bakarra, nahiz eta kopilotu moduan emakumezko gehiago izan ziren. Eta alaba ondoan zuela –Naia Lasagabaster– zenbait piloturekin borroka estua izan zuen. "Inguruko lasterketan ibiltzen gara, eta egia da oso errespetatuak sentitzen garela", dio Muñozek. "Egia da, baita ere, nik urteak daramatzadala hemen, errespetu hori irabazi egin behar da. Baina bai,

oraindik ere, pilotu batzuei emakumezko aurreratzeak min egiten die".

Horrek motibatu egiten ditu oñatiarrak, nahiz eta helburua ez den horrenbeste postu bat aurrerago edo atzerago sailkatzea. "Hemen, azkenean, gakoa autoan gastatzen duzun diru kopuruan dago. Pilotu hobea edo okerragoa izan zaitezke, baina xoxak gastatu behar dira aurrean ibiltzeko. Gu lasterketetara gozatzen joaten gara, eta autoa osorik ekartzea da beste helburu nagusietako bat".

Bestalde, etxeko bat kopilotu lanetan izateak dakarren arduraren gainean ere mintzatu da Muñoz: "Kontziente naiz, baina

ez diot askorik erreparatzen, bestela ez ginatke-eta autora sartu ere egingo".

Alaba, pilotu izateko gogotsu

Diotenez, amari ilusio galanta egiten ziolako hasi zen Naia Lasagabaster kopilotu lanetan, baina ez zuen aparteko bultzadatik behar izan, umetatik automobilismoa barrutik bizi izan du eta. Eta orain, bolantea hartzeko gogoz dago: "Horretarako gidabaimena atera behar dut lehenengo, eta ama konbentzitu gero", dio, barrezka. Hurrengo hitzordurako Gernikako rally ezaguna dute begiz jota, baina arazo bat dute, Oñatiko jaiekin bat egiten duela.

Ander Murua eta Manex Balerdi, biak doaz Munduko Txapelketara

PILOTA Hautatzaileak biak aukeratu ditu urri amaieran Valladoliden eta Segovian egingo duten hitzordurako

X.U. ARRASATE

Azken ordura arte zain egon behar izan dute, baina jaso dute saria, Ander Murua pilotari arrasatearra eta Manex Balerdi pilotari antzuolarra urriaren 17tik 23ra arte Segovian eta Va-

lladoliden jokatu duten Munduko Txapelketan izango dira. Espainiako hautatzaileak zuen azken hitza, irailaren 14rako eman behar zuen aukeraketaren berri, eta, atzerapen apur batekin, baina poztasun handiz, jaso

dute berri ona. Gainera, posible zen hautatzaileak bietako bat aukeratzea eta bestea ez. Horrenbestez, biak egongo dira txapelketan.

Debagoienarrek jakin bazekiten abuztu amaieran Europako Txapelketa irabazi izana –elkarrekin jokatu zuten– lagungarri izango zela, baina ez zela erabakigarria. Eta, hain zuzen ere, aste hauetan egindako azken entrenamendu saioetan ikusitakoarekin hartu du zorioneko erabakia hautatzaileak.

Goienakideen txokoa

Iraileko sariak



SPC Tableta

Parte hartzeko sariaren izena: Tableta

EROSKI
ARRASATE

Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak. Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz

ARRIKUTZ
GASTURRO

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak. Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

www.harremandenda.org
Bilaketa: www.harremandenda.org

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoa: goienakide@goiena.eus **Whatsapp:** GOIENAKIDE
"sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia
'goiena app'-a / zozketa atalean. Parte-hartzearen artean egingo da zozketa. Irabazlearen izena IZPI 15/0001 legearen arabera publikatzen da. Zozketaren gainean irabazlearen izena ez da irabazlearen izena. Irabazlearen izena ez da irabazlearen izena. Irabazlearen izena ez da irabazlearen izena. Irabazlearen izena ez da irabazlearen izena.

Irabazi bi lagunendako sarrerak

Arrasateko udalari esker

"Maestrissimo" ikuskizunerako sarrerak ditugu. Arrasate | Amala Antzokia | Irailaren 25ean | 19:00etan

PARTE HARTZEKO: IRAILAK 23

E-posta: goienakide@goiena.eus **WhatsApp:** GOIENAKIDE "Perti"
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia **'goiena app'-a / zozketa atalean.** Parte-hartzearen artean egingo da zozketa. Irabazlearen izena IZPI 15/0001 legearen arabera publikatzen da. Zozketaren gainean irabazlearen izena ez da irabazlearen izena. Irabazlearen izena ez da irabazlearen izena. Irabazlearen izena ez da irabazlearen izena.

Irabazi bi lagunendako otordua

ERUAN JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkaria Otorduan atala eta hartu parte! Parte hartzeko azken eguna: irailak 21

☎ 943 25 05 05 ✉ goienakide@goiena.eus 🗨️ "Goiena app"-a / zozketa atalean.
📱 GOIENAKIDE Jatetxea [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...



BAZKIDETZA KUOTA: 15€
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGA TU GOIENA APP BERRI! 📲

goiena
kide

Okm: batzen gaituen distantzia.

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE 80ko hamarkadako "Euskal Herri zahar, borrokatzaile eta aztoratua" irudikatzen du Manu Gomez (Arrasate, 1973) zinemagileak zuzendu duen lehen film luzeak. Debagoieneko hainbat herritan errodatu zuten, iazko udazkenean, La Canica Films-eko itzi eta EITBren eta RTVEren babesarekin.

Zer moduz zaude filma estreinatzeke bezperatan?

Oso ondo nago. Irailaren 22an egingo dugun aurkezpenaren zain. Filma aurkezteko toki paregabea da Zinemaldia, filmaren gaietatik eta pertsonalki, emozionalki ere bai.

'Zain' hitzarekin, ilusionatuta, pozik ala beldurtuta esan gura duzu?

Beldurtuta ez, ondo ulertzen dut zer den film bat estreinatzea. Gustatuko zaion jendea egongo da eta baita gustatzen ez zaionik ere, eta horretan datza zinema; hau da, filmak ikusleentzako egiten dira eta ikuslea burujabea da erabakitzeke ze iritzi daukan horri buruz.

COVIDak markatu dizuete, neurri baten, agenda, ezta?

Hala da, bai; erroderako data batzuk genituen eta zientzia fikziozko odisea hau etorri zenean atzeratu egin behar izan genuen, eta askatasun apur bat eman zigutenean aprobetxatu genuen errodatzen hasteko. Bukatu eta segidan beste olatu indartsu bat heldu zen, eta beste konfinamendu bat horren eraginez; hortaz, oso zorionekoak errodatzeko aukera izan genuelako, eta, are gehiago, protagonisten artean 12 urteko lau mutiko dituzunean; izan ere, adin horretan hazten diren abiadura arazo bat izango litzateke filmarentzako erroderak atzeratu behar izan bagenu.

Protagonista nagusiak lau mutiko dira: Marcos (Asier Flores), Jose Antonio (Aitor Calderon), Paquito (Miguel Rivera) eta Toni (Hugo Garcia). Zelan moldatu zara eurekin?

Alfred Hitchcock handiak zioen ez dela hurrekin eta animaliekin errodatu behar; bada, errespetu handiz maisuari, baina hurrekin eta animaliekin errodatu dut, eta esan beharra dut esperientzia oso positiboa izan dela. Haurren *casting*-a ikaragarria izan zen, 700 haurretik gora ikusi genituen; asteak egin genituen haurrak elkarriketaz eta probak egiten. Magia sortu zen lau mutikoak agertu zirenean, nire imajinarioan ni-



Manu Gomez zuzendaria, filmeko protagonista diren haurrekin. LA CANICA FILMS

"Ez dut 'maketo' hitzarekin harreman negatiborik"

MANU GOMEZ ZINEMAGILEA

Donostia Zinemaldian aurkeztuko du Arrasatekoak 'Érase una vez en Euskadi' estreinako film luzea, irailaren 22an, Kursaallean, RTVEk antolatutako galan

tuen ezaugarriak betetzen zituzten. Oso arina, **fluidoa**, izan zen dena, ez daukat erroderako orotzpen txarrik non hurrek ez zuten pertsonaiek behar zuten dena ematen.

Zenbateraino sentitzen zarete islatuta lau mutiko horietan za eta haurtzaroko zure lagunak?

[Barre] Egia esan, gauza askotan. Filmak ñabardura autobiografiko asko ditu. Frankenstein moduko bat da; hau da, lau mutiko euren bizipenekin eratu ditugu Arrasateko nire haurtzaroko

oroitzapenetatik elikatuta. Inor ez da pertsonaia zehatz bat, ni hazi nintzeneko jende askoren emaitza dira pertsonaia.

Zenbat du filmak fikziotik eta zenbat Manuren bizipenetatik?

[Barre] Marcos txirrindularia da eta horrek asko du Manutik; izan ere, beti esaten dut txirrindularitzarekiko frustrazioaren ondoren heldu zela zinema nire bizitzara, txirrindulari profesionala izatea zen-eta nire ametsa. Kirolarekiko frustrazioa nahiko agerian geratzen da fil-

mean; hori horrela, kasu horretan, Marcos pertsonaian nire asko dago. Zenbat eta gehiago saiatu txirrindularitza arloan, orduan eta txarrago joaten zaio. **Haurtzaroko zure lagunak ere islatuta sentituko direla uste duzu?** Ba, espero dut zartakorik ez ematea filma ikusten dutenean. **Zergatik diozu hori? Larregi kontatu duzulako?**

Ez, ez dut larregi kontatu, ez; azken finean, *Érase una vez en Euskadi* fikzioa da eta hainbat lizentzia hartu behar dituzu

gidoia idazterakoan kontakizunak ikuslea harrapatu dezan.

Zer gustatuko litzaizuke publiko orokorrari transmititzea?

Gertatu zen eta gertuko den istorio bat ikus dezatela.

Eta zer garai hura bizi izan zutenei?

Ikusten da begirada atzera egin da haurtzaro oso berezia bizi izan genuela denok. Gertakari oso gogorak izan ziren, elementu gogor asko genituen inguruan: ETaren terrorismoa, punk mugimendua, jende asko aurretik eraman zuen hiesa... Horrenbestez, jolastu nintzen kaleetara itzultzea eta jaio eta hazi eta pozik bizi nintzen herrian errodatu ahal izatea esperientzia oso atsegina izan da niretzako, eta gertukoak eta garai hura bizi zutenak ere istorioarekin identifikatzea espero dut.

Maketoa sentitzen zinen? Eta gaur egun?

Kontua da garai hartan ez nintzela maketo sentitzen, baizik eta maketoa nintzela. Maketoaren definizioa oso argia da: nahiz eta Euskal Herrian jaio, gure jatorriak beste toki batzuetatik zetozela. Sekula ez dut izan harreman negatiborik *maketo* hitzarekin. Ez nuen garai hartan izan eta ez daukat gaur egun ere. *Maketo* hitza irain moduan erabiltzen zutenak bazeuden, eta gezurra esango nizuke hori bizi ez nuela esango banizu, baina nire asmoa ez da garai hartako erradiografia soziopolitiko egitea, ezta gutxiagorik ere. Hala balitz, dokumental bat egingo nuke, eta ez dut inongo gogorik ezer aldarrikatzeko aspektu horretan.

Madrilgo La Canica Films ekoiztearekin egin duzu. Aske izan zara kontatu nahi zenuen istorioa nahi zenuen moduan kontatzeko?

Aspaldiko harremana dut ekoiztearekin; izan ere, filmek denbora bat behar izaten dute ideia aurkezten duzuetik filma egiten den arte. Hasieratik gustatu zitzaion gidoia eta elkarrekin landu dugu gero; sormen askatasun osoa izan dut. Gehienetan, egin ahal dituzun filmak egiten dituzu, eta ez egitea gustatuko litzaizkizukeenak, horretan datza borroka. Ni ez naiz Almodovar eta ez ditut gura beste aste errodatzeko. Aurrekontu eta finantzaketa bat dago eta horiek dira dituzun tresnak eta baliabideak. Hori horrela, emaitzarekin oso gustura nago; nik egin nahi nuen filma da.



Gomez eta Gonzalez lehengusuak.



Zuzendaria Aron Piper aktorekin, errodatutako irudiak gainbegiratzeko.

Zenbat aldiz ikusi duzu dagoeneko?

Milaka aldiz, ez naiz esajeratzen ari. Ordu bete eta 34 minutu irauten du eta osorik askotan ikusi dut, eta baita pasarteka ere. Sekuentzia bakoitzari mila buelta eman dizkiot. Lau hila-bete muntatu dugu.

Aske sentitu zara muntatzen ere?

Bai, horixe; aurrez aipatutako mugak izan arren- COVIDa eta denbora-, oso aske sentitu naiz. **Zer dio talde teknikoak?**

Osasun krisiaren eraginez, talde tekniko jende gutxi ikusi dute, oraingo. Aktoreentzako emanaldi bat egin genuen, baina ez zuten etortzeko aukerarik izan guztiek, baina, orokorrean, feedbacka positiboa, izan zen.

Aktoreen artean zure lehengusu Yon Gonzalez bergararra dago. Beretako ere gertuko istorioa, ezta?

Hainbat urtetako aldea dugu, eta, hortaz, berak ez zituen urterik gogorrenak bizi izan -80ko hamarkadakoak-, baina istorioa gertutik sentitu du, noski.

Beste lan batzuetarako baino gutxiago dokumentatu behar izan duzu, ezta?

Ez, dokumentatu behar handirik ez dut izan, baizik eta begirada atzera botatzea.

Aurreratuko diguzu filmean agertzen den pasarteren bat?

Asko borrokatu nintzen Alai zineman errodatzeagatik, han gaztetxe bat egin gura nuen; izan ere, 80ko hamarkadan Gurea zinema izan zen Arrasateko lehen gaztetxea. Gogoan dut gaztetxe hartara sartzen ginela eta nola garai baten zinema zena nola zegoen gaztetxe bihurtuta. Oso gogoan dut Gurea zineman zapatuero filmak ikusten nituela. Gogoan ditut zine hartako leihatilako emakumeak. Oso presente ditut haurtzaro garai-toki guztiak, beti izan ditut,

baina orain, han errodatuta, are gehiago. Oroitzapen batek bestera eramaten zaitu, eta hala dago filma eginda, oroitzapen batek beste batera eramanda dute horiek lotuta.

Gurea gaztetxea agertzen da, hortaz?

Barruko irudirik ez da ikusten filmean, une batean mutikoetako bat gaztetxe kanpoan dago, eta Barricada taldearen doinuak entzuten dira. Badakizu non egin nuen gaztetxea? Garai bateko Otamendi diskoteka zen tokian, hango eskailera horiek agertzen dira filmean.

Zer geratzen da mutiko hartatik, Manu?

Ilusioa, lan honetan ezinbestekoa dena, txirringularitzarekiko zaletasuna, ez dago ikusten ez dudana lasterketarik. Bi bizikleta ditut, mendikoa eta errepidekoa. Eta herrimina eta herrira bueltatzeko beharra. Niretzako bizitza perfektua da, Udalako Larrinetxen itsas zapo bat jatea. Askotan noa hara, harremana dut eurekin. Errodaje egunetan ere lantaldekoekin joan nintzen hara hainbat alditan. Faltan igartzen dut Udala.

Sarritan etortzen zara Arrasatera?

"NIRE ASMOA EZ ZEN GARAI HARTAKO ERRADIOGRAFIA SOZIOPOLITIKOA EGITEA FILMAREKIN"

"NIRETZAKO BIZITZA PERFEKTUA DA UDALAKO LARRINETXEN ITSAS ZAPO BAT JATEA"

Bai, ahal dudan guztietan. Ama dut Arrasaten bizi izaten, arreba, koinatua eta nire bi loba ere bai, eta haurtzaroko nire lagunak.

Zein da zure plana Zinemaldian?

22an helduko naiz Donostiara eta 10:00etan hasi eta 22:00ak arte, elkarrizketa asko ditut egiteko. Ordu bete bat dut libre, bazkaltzeko. Hurrengo egunean, 23an, berdin. Zoramena.

Ona da hori, Manu, zure filmak kuriositate sortu duen adierazle.

Pozik nago, bai. Foroetako komentarioak ere onak dira. Diote eztabaida sortzen duela filmak, eta hori ona da filmarentzako. **Filma politizatuko edo politikoki erabiliiko den beldurrik baduzu?**

Ez, beldurrik ez. Publikoa subiranoa da eta nahi duenari buruzko iritzia eman dezake, eta nik ez dut ezer negatiborik sentituko; alderantziz, adierazpen askatasuna bandera da niretzako, eta filma ere bai.

Zinemetan urriaren 29an estreinatuko da. Arrasaten izango da ikus-teko aukerarik?

Ez dut oraingo gonbidapenik jaso, baina oso pozik joango nintzateke! Banatzailea ari da egunotan emanaldiak lotzen.

Zinemagile eta zinema irakasle

25 urtetik gora daroa kameran atzean; zuzendari-laguntzaile jardun du, bereziki. 'Hilarri' izan zen bere lehen film laburra eta nazioarteko sari asko lortu zituen gero 'Das Kind'-ekin. "Pozik" ari da Madrilgo Zinema Eskolan irakasle lanetan ere.

Debagoieneko sortzaileen lan gehiago Donostiako jaialdian

Asier Altunaren 'Hondalea' eta Iban Del Camporen 'Serendepia' filmak, eskainiko dituztenen artean

A. A. ARRASATE

Gaur, egubakoitza, hasi eta irailaren 25era bitartean egingo dute 69. Donostia Zinemaldia, eta oraingoan ere Asier Altuna Bergarako zuzendariak eta Arrasateko Iban del Campok lan bana aurkeztuko dute. Cristina Iglesias artistak Donostiako Santa Klara uharterako sortu duen obra ardatz du Bergarakoaren dokumentalak, eta koronabirusaren aurkako txertoaren bila ari den euskal biologo baten istorioa jaso du Arrasatekoak *Serendepia* film laburrean.

Euskal Zinemaren Galan, irailaren 21ean, estreinatuko da *Hondalea*, eta Euskal Zinemaren Irizar Saria eskuratzeko lehian dago. Aipatutako saria erabakitzeko epaimahaikideen buru da aurten Aitor Arregi Oñatiko zinemagilea. Mireia Gabilondo bergararrak film formatura moldatu duen Kepa Errasti aretxabaletarak idatzitako *Erlauntza* antzezlan ere izango da Zinemaldian, lehiak kanto bada ere.

Kimuak egitasmoari aitortza

Jaialdiaren programazioan parte hartuko duen baina Euskal Zinemaren Irizar Saria irabazteko lehian egongo ez den beste ekoizpen bat *Heltzeak* da. Mikel Gurrea donostiarrak zuzendu du Haizea Oses Arrasateko eskalatzailea protagonista duen film laburra. Zabaltegi-Tabakaleran emango da, Veneziako zinema-jaialdiko Orizzonti sailleko film laburren lehiaketan parte hartu ondoren. Ikusmira

Berriak egonaldi-programan egon zen zinemagile donostiarrak, eta indarkeria politikoko testuinguru batean nor bere mugak gainditzeari buruzko istorioa kontatzen du. Aurtengo Kimuak katalogoan dagoen filmetako bat da Gurrearena.

Euskal zinemaren nortasun, programa edo erakunde nabarmen baten ibilbideari ematen dioten ohorezko aitortza da Zinemira Saria, eta aurten Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, Euskadiko Filmategiak eta Etxepare Institutuak bultzatzen duen Kimuak euskal film laburrak babesteko programa emenduko du irailaren 21ean Victoria Eugenia Antzokian.

Goiena, Zinemaldian

Imanol Gallego izango da aurten ere Donostia Zinemaldian Goienako berriemaile. Goiena telebistako *Hemen Debagoiena* saioan eskainiko dituzte erreportajeak irailaren 22an eta 23an; *Hondalea*-ren estreinaldiari buruzkoa lehenengoa eta Gomezen filmari buruzkoak bestea. Arrasate Irratikiko datoren asteko *Uda giroan* saioek ere tokia egingo diote jaialdiari eta *Goiena.eus* atarian ere atal berezia izango du.

'HONDALEA', SERENDEPIA', 'HELTZEAK' ETA 'ERLAUNTZA' FILMAK ERE IKUSGAI



Asier Altunaren 'Hondalea' dokumentalaren fotograma bat. TXINTXUA FILMS

ESKER ONA

Maria Dolores Anduaga Zelaia

Jose Urzelainen alarguna



2021eko abuztuaren 2an hil zen, 95 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Ondra meza zapatuan izango da, irailaren 18an, 19:30ean, Oñatiko Agustindarren elizan. Bertaratuko zaretenoi alde zurretik eskerrik asko.

Oñatin, 2021eko irailaren 17an.

ESKER ONA

**Maria Pilar Igartua Astigarraga**

2021eko irailaren 6an hil zen, 77 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi, familiaren izenean.

Ondra meza zapatuan izango da, irailaren 18an, 19:30ean, Oñatiko Agustindarren elizan. Bertaratuko zaretenoi alde zurretik eskerrik asko.

Oñatin, 2021eko irailaren 17an.

ESKER ONA

Donato Biain Guridi

Rosario Madinaren alarguna



2021eko irailaren 9an hil zen, 98 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Ondra meza zapatuan izango da, irailaren 18an, 19:30ean, Oñatiko Agustindarren elizan. Bertaratuko zaretenoi alde zurretik eskerrik asko.

Oñatin, 2021eko irailaren 17an.

ESKER ONA

**Agustina Romaratezabala Badiola**

2021eko irailaren 11n hil zen.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Eskoriatzan, 2021eko irailaren 17an.

ESKER ONA

**Maria Luisa Villar Narbaiza**

'Luxita Lasturritxakoa'



2021eko abuztuaren 14an hil zen, 91 urte zituela.

Beti izango zaitugu gogoan, amama.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2021eko irailaren 17an.

ESKER ONA

**Juan Manuel Garate Iturbe**

(Fundiciones Rekalde)



2021eko irailaren 10ean hil zen, 69 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Urak dakarrena, urak darama zuk emandakoa, gurekin gelditzen da.

Bergaran, 2021eko irailaren 17an.

ESKER ONA

**Arantxa Olabe Leibar**

2021eko irailaren 15ean hil zen, 74 urte zituela.

Enuzketan zuk ereindeko hazitek loratuko dau.

Hileta elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, bihotzez eskerrik asko sendikoen izenean.

Arrasaten (Gesalibar), 2021eko irailaren 17an.

OROIGARRIA

**Arantxa Olabe Leibar**

2021eko irailaren 15ean hil zen, 74 urte zituela.

Gesalibarko Enuzketan sortua emakume baserritarra ama, amama, alaba, iloba bihotz onekoa eta eskuzabala barren-barrenean gordeta zugandik jasotako dana beti gogoratuko zaut.

Zure besuetakue.
Arrasaten (Gesalibar), 2021eko irailaren 17an.

MEZA

**Roberto Maiztegui Celaya**

2020ko urriaren 17an hil zen, 73 urte zituela.

Haren aldeko meza zapatuan izango da, irailaren 18an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokan.

Aldez aurretik, mila esker etorriko zaretenoi.
Oñatin, 2021eko irailaren 17an.

URTEURRENA

**Maria Aranzazu Igartua Arana**

Gines Maciasen alarguna



2020ko irailaren 29an hil zen, 94 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, irailaren 19an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokan.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Bergaran, 2021eko irailaren 17an.

URTEURRENA

Maria Josefa de la Granja Ugarte

2020ko irailaren 23an hil zen, 92 urte zituela.

Ama, hiru desio eskainiko balizkigute, hiru aldiz aukeratuko zintuzkegu.

Urteurreneko meza domekan izango da, irailaren 19an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokan.

Bertaratuko zaretenoi alde zurretik eskerrik asko.
Bergaran, 2021eko irailaren 17an.

Oroilore

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Gure artean agurtutako guztiei euren bidea aurkitzen lagundu diegu, orain arte bezala, eta guztiek izango dute agur berezia Oroiloren.

Gure eskerrik beroenak guran izan duzuen konfiantzagatik eta maitasunagatik.

Ion, Mario, Iban eta Maribi

Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

TXUTXU-MUTXUAK



1

1. Denboraldirako arropa berriak

Eskoriatza Kirol Elkarteko saskibaloia eta areto futbol taldeek 2021-22 denboraldian kamiseta berriak erabiliko dituzte; babesle berriekin, gainera.



2

2. Jaietan Atzeko kalean

Arantzazuko Ama Birjinaren egunaren bueltan egiten dituzte jaiak Oñatiko Atzeko kalean. Besteak beste, mus txapelketa eta artisau azoka egin zituzten.



3

3. 37 lagun mendi irteeran


Bergarako Pol Poleko beteranoek Burgos aldera egin zuten ikasturteko lehen mendi ibilaldia. Gustura ibili ziren Frias inguruetan. Hurrengo Jacara egingo dute, urrian.



4

4. Kurtzebarri Eguna

Aurreko domekan ospatu zuten aretxabaletarrek eguna, Kurtzebarrira igota. Goian, Imanol Etxeberriak egindako salda, eta gazta eta txorizoa eduki zituzten.



5

5. Bihar ezkonduko dira, Ibarraundin

Yaiza Expositok eta Iker Gutierrezek Gure Ametsan ospatuko dute. "Azkenean, eguna heldu da! Ondo pasa eta izan zoriontsu! Besarkada bana, familien partetik!".

6. Saria, Antzuolara

Antxintxikako Triatloi taldearen saria Estebe Olaortua antzuolarrak irabazi du. Lacturale produktuz osatutako sorta ederra jaso du Joseba Azkarateren eskutik.



6

7. Tomate lehiaketako irabazleak

Aretxabaletako azokaren baitan, Josu Azkarate eskoriatzarrak irabazi zuen tomate barietate handienaren saria, eta Kurtzebarri eskolako tomatea izan zen itsusia.



7

ZORION AGURRAK



OÑATI
Iker eta Aimar Zabaleta
Irailaren 16an, Ikerrek 45 urte eta 20an, Aimarrek 9 urte. Zorionak, bikote, eta ondo-ondo pasatu zuen egunian. Patxo handi bana, familia osoaren partetik.



ARRASATE
Finn Nilsson
Irailaren 18an, urtebete. Zorionak, amama Anttoniren, gurasoen, arreba Naiaren eta Donostiako familia osoaren partetik!



BERGARA
Izaro Loiola Lopez
Irailaren 18an, 7 urte. Zorionak etxeko erreginari! Egun politx-politxa pasakou! Askok maitxe zaitzugu! Zorionak, batez be etxeko beste bi sorginen partetik!



OÑATI
Ane Arregui Unamuno
Irailaren 18an, 6 urte. Zorionak, Ane! Ondo pasatu zure seigarren urtebetetzean. Ze handi egiten ari zaren! Askok maite zaitugu. Patxo handi bat etxeko guztien partetik.




ELORRIO
Malen eta Oinatz Bergaretxe Garitaonandia
Gure printzeak, abuztuaren 23an, 4 urte eta gure printzesak, irailaren 18an, 8 urte. Jarraitu horrela eta muxu potolo bana aitaxoren eta amatxoren partetik.




ESKORRIATZA
June Aguirre Gandarias
Irailaren 17an, 9 urte. Zorionak, June! Egund ederra pasatu, maitia. Besarkada handi bat eta patxo potoloa etxeko partetik. Segi izaten zaren bezalakoa. Askok maite zaitugu!



BERGARA
Julen Bolibar Sanchez
Irailaren 17an, 9 urte. Zorionak, Julen! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Besarkada eta patxo handi-handi bat etxeko danon partetik!



BERGARA
Alex Mendiarez Paya
Irailaren 17an, 7 urte. Zorionak, Alex! Ondo pasatu zure urtebetetzea! Muxu handi bat familia osoaren partetik.



BERGARA
Hodei Gallastegi Lete
Irailaren 17an, 5 urte. Zorionak, mutil handi! Ondo pasatu zure eguna. Mila besarkada eta txokolateko bost muxu goxo, etxeko partetik.



ARETXABALETA
Noa Gomez Miranda
Irailaren 16an, 2 urte. Zorionak, pitxin! Primeran ospatukou zure eguna! Muxu eta besarkada handi bat etxeko guztien partetik!



ARETXABALETA
Urko Arkauz Vitoriano
Irailaren 15an, 5 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo ospatu zure eguna eta patxo handi bat danon partetik!



OÑATI
Noa Montero San Vicente
Irailaren 14an, 10 urte. Zorionak, Noa! Topera disfrutatu zure urtebetetzea! Askok maite zaitugu! Mundiala zara!



ARETXABALETA
Kepa Rodriguez Alberdi
Irailaren 14an, 2 urte. Zorionak, 'bixito'! Kandelak ipini eta ospatuko dou! Muxu potolo bat etxeko guztien eta, batez ere, Laiaren partetik!



BERGARA
Haizea Iturrospe Arondo
Irailaren 14an, 10 urte. Zorionak, Haizea! Ondo-ondo ospatu zure urtebetetze eguna. Patxo bat.




ARETXABALETA
Nikole Atxa Urrutia
Irailaren 14an, 5 urte. Zorionak, Nikole! Ederro pasatu zure egunian! Besarkada handi bat etxeko danon partetik. Maitxe zaitugu!



Oñati
Maialen Cortabarría
Irailaren 13an, 9 urte. Zorionak, politt hori! Zelako gogua zeukan zure eguna allaitteko! Ondo-ondo pasatu! Askok guru!



BERGARA
Itziar Ibarra Udabe
Irailaren 13an, urtebetetzea. Zorionak, amama Itziar! Oso ondo pasatu zure egunean! Besarkada eta muxu handi bat, bihotzez, maite zaituen familia osoaren partetik. Bereziki, Agate, Inar eta Kerman.



DONOSTIA
Mikel Agirre Pinacho
Irailaren 12an, 5 urte. Zorionak, Arrasateko amama Anttoniren, gurasoen, arreba Maialen, izeba-osaba Amaia eta Hakanen eta lehengusina Naiaren partetik!



OÑATI
Anje Barrena eta Iraje Agirrebalzategi
Anjek irailaren 12an, 5 urte eta Iraiek 19an, urtebetetzea. Urte askotarako, bikote! Ondo pasatu zuen urtebetetze egunak. Muxu bana familiaren partetik.




BERGARA
Leire Ugarte Juaristi
Irailaren 11n, 23 urte. Zorionak, printzesa, kuadrillakoen partetik! Segi beti bezain zoriontsu eta eder. 23 muxu erraldoi!

ZORIONTZEKO HIRU BIDE

- Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurra> helbidean sartu.
- Mezua bidali zorionagurra@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.
- Zatoz Goienara batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.



OÑATI
Eider eta Izaro Arrizabalaga Madinadinagoitia
Irailaren 11n, 4 urte Izarok eta 23an, 8 urte Eiderrek. Zorionak, bikote, familia osoaren partetik. Askok maite zaituztegu. Ondo pasatu zuen urtebetetzeetan. Muxu erraldoi bat etxeko partetik.



ARRASATE
Luisa Ormaetxea
Irailaren 11n, 90 urte. Zorionak eta ondo ospatu familiarekin.



BERGARA
Maialen Esteban Laskurain
Irailaren 17an, 8 urte. Zorionak, printzesa! Egund zorionsua pasatu eta patxo handi bat, aittaren, amatxoren eta aitaxoren partetik. Askok maite zaitugu.



ESKORRIATZA
Maialen eta Narroa Altuna
Irailaren 22an, 16 urte. Egund polita euki! Patxo potolo bat familiako danon partetik.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 17

OÑATI Aurpegi margotzea eta 'Jauzgailua'

Ludotekaren ikasturte hasierakoak. Haurrak, gurasoen ardurapean. Eurria bada, arkupeetan. *Errementari plazan, 16:30etan.*

ESKORIATZA Ate irekiak gaztelekuan

12-17 urte arteko gaztetxoendako askotariko ekintzak egongo dira. Gaurtik domekara arte, zerbitzua ezagutzeko ate irekiak. *Errementari plazan, 16:30etan.*

BERGARA Xaxauren programa

17:00etan, txil mojito festa; 17:30ean, Katarsia, Udazken taldea eta June Odriozola; 19:30ean, kartelak jartzea; eta 22:00etan, Skabidean taldea. *San Martin plazako gunean, 17:00etan.*

ARRASATE 'Gaztetxokero galduaren bila' talde jolasa

Gaztetxoendako. *Gazte Informazio Bulegoaren ondoan, 18:00etan.*

OÑATI Aitor Bengora 'Poli'-ren argazki erakusketa

Hainbat musika emanalditan egindako erretratuak ikusgai, hilaren 26ra arte. *Gaztelekuan, 18:00etan.*

ARAMAIO Joyful Gospel Choir taldea

Gospel doinuak, Gasteizko taldearekin. *Parkean, 19:00etan.*

ARRASATE Professor Cunningham And His Old School taldearen swing doinuak

Merkataritza Berdearen Astearen baitan. Gainera, bailarako produktuz osatutako otzarak zozketatuko ditu Ibai-arteak. *Herriko Plazan, 19:00etan.*

ESKORIATZA Errekan Gora: Swingtronics

Atxorrotx Kultura Elkartearen eskutik. Edukiera mugatua. *Fernando Eskoriatza plazan, 19:30etan.*

ARRASATE Bizarro eta Saia Goiait taldeak

Oñatiko eta Mutrikuko taldeen emanaldia. Sarrerak, zazpi euro, leihatilan edo 'Agako.eus' atarian. *Gaztetxean, 20:00etan.*

ZAPATUA 18

OÑATI Oñatiko mendi martxa

Bi ibilbiderekin: 33,4 kilometrokoa bata eta 23,4koa bestea. *Foruen plazan, 07:00etan.*

ELGETA Baserritarren azoka

Herriko ekoizleekin egindako azoka. *Mendizaleen plazan, 09:00etan.*

ARRASATE Baserritarren azoka

Hileko hirugarren zapatuko azoka. *Seber Altuben, 09:00etan.*

OÑATI San Martin jaiak

10:00etan, gaztetxoendako orientazio proba; 12:30ean, herri kirol erakustaldia; 17:00etan, artisaun azoka; 18:00etan, Martintxorekin eta Mojasororekin 'photocall'-a; 18:00etan, paperezko hegazkinen txapelketa; eta, 22:00etan, Lukiek eta Joseba Irazoki eta Lagunak taldeak. *San Martinen.*

DEBAGOIENA Artisaunen eta baserriko produktuen azoka Elorregin

Oñatiko, Arrasateko eta Bergarako postuak egongo dira. *Biribilgunearen aparkalekuan, 11:00etan.*

BERGARA Xaxauren programa

12:00etan, marianito festa; 13:00etan, 'No name tiriti'; 14:30ean, 'txomingeroen' bazkaria; 20:00etan, 'Toc'; eta 22:00etan, Ibil Bedi taldea. *San Martin plazako gunean.*

ESKORIATZA Errekan Gora: The Allnighters

Atxorrotx Kultura Elkartearen eskutik. Edukiera mugatua. *Fernando Eskoriatza plazan, 13:00etan.*

ARETXABALETA Skate jaiak

17:00etan, skate teknika berezien ikastaroa; 18:00etan, lehiaketa; eta

19:30ean, erakustaldia. 12-17 urte artekoendako. *Skate parkea, 17:00etan.*

ARRASATE 'Badaki ala ez daki' taldea jolasa

Gaztetxoendako. *Gazte Informazio Bulegoaren ondoan, 18:00etan.*

BERGARA 'Bergarako erraldoi taldea' erakusketa

Hilaren 26ra arte ikusgai. *Aroztegin, 18:00etan.*

ESKORIATZA Errekan Gora: Broken Brothers Brass Band

Atxorrotx Kultura Elkartearen eskutik. Edukiera mugatua. *Herriko kaleetan zehar, 19:00etan.*

ARRASATE Pettiren 'Manipulazio estrategiak' emanaldia

Sarrerak, hamabost euro. *Amaia antzokian, 19:00etan.*

ESKORIATZA Errekan Gora: Wood Strings

Atxorrotx Kultura Elkartearen eskutik. Edukiera mugatua. *Fernando Eskoriatza plazan, 22:30etan.*

DOMEKA 19

OÑATI Orientazio-jolasa

Ezkutatutako pistak topatzeko jolasa, familiendako. Izenak: 943-78 28 94 edo 'arantzazu@gipuzkoanatura.eus'. *Parquetxean, 11:00etan.*

ARRASATE Besaide Oroimen Eguna

11:00etan, oroimen ekitaldia; 12:00etan, presidentearen hitzak; eta, ostean, mokadutxoak. *Besaiden.*

ARRASATE Faxismoaren aurkako mobilizazioa

'Gora Arrasate, faxistak kanpora!' leloarekin egingo dute. *Jose Maria Arizmendiarieta plazan, 13:00etan.*

ESKORIATZA Errekan Gora: Idoia Asurmendi

Atxorrotx Kultura Elkartearen eskutik. Edukiera mugatuarekin.



MOONSHINE WAGON

ESKORIATZA Moonshine Wagon taldea

Errekan Gora ekimenaren baitako azken emanaldia izango da. 2013an Gasteizen sortutako taldeak heavy-bluegrass doinuak lantzen ditu. Debalde, edukiera mugatuarekin. *Etzi, domeka, Fernando Eskoriatza plazan, 19:00etan.*

Lete auzora autoz ez joatea eskatu dute antolatzaileek.

Santa Luzia ermitan, 13:00etan.

ARRASATE 'Art Challenge' talde jolasa

Gaztetxoendako. *Gazte Informazio Bulegoaren ondoan, Arrasate 18:00etan*

ESKORIATZA Errekan Gora: Moonshine Wagon

Atxorrotx Kultura Elkartearen eskutik. Edukiera mugatua. *Fernando Eskoriatza plazan, 19:00etan.*

BERGARA Oiaso Kamerata taldea

Irungo musikariz osatutako taldearen emanaldia. Debalde, edukiera mugatuarekin. *Santa Marina parrokiaren, 19:00etan.*

ASTELEHENA 20

OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko. *Foruen plazan, 12:00etan.*

ANTZUOLA Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko. *Herriko Plazan, 12:00etan.*

BERGARA Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko. *San Martin plazan, 12:00etan.*

ARRASATE Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko. *Herriko Plazan, 12:00etan.*

BERGARA Berdintasun Kontseiluaren batzarra

II. Berdintasun Planaren ebaluazioaren eta III. Planaren diseinuaren prozesuaren eguneraketak egin, eta azaroaren 25erako lehen urratsak zehaztuko dituzte. *Irizar jauregian, 18:30etan.*

OÑATI Yoga hastapen ikastaroa

Sanatana Dharma Oñatiko Yoga Eskolak. *Yoga eskolan, 18:00etan.*

MARTITZENA 21

OÑATI Adineko pertsonak elkarretaratzea

Begirada Adia ekimenaren baitan. *Pake Lekun, 17:00etan.*

OÑATI Umeen danborradako entseguak

18:00etan, danbor-jotzaileak eta kantinerak; eta 19:00etan, barril-jotzaileak, sukaldariak eta txalekodunak. *Eltzian.*

ELGETA 'Azaleko ipuinak'

Bigarren saioa, Saroa Bikandiren eskutik, 2021ean, 2020an eta 2019an jaiotako neska-mutikoendako. *Liburutegian, 18:00etan.*



OIASO KAMERATA

BERGARA Oiaso Kamerata taldea

Irungo musikariz osatutako taldearen emanaldia. Hari-instrumentuez baliatuta, askotariko doinuak eskainiko dituzte. Debalde, edukiera mugatuarekin. Garaiz joatea eskatu dute.
Etzi, domeka, Santa Marina parrokian, 19:00etan.

OÑATI Hirigintzako Aholku Kontseiluaren batzarra

Hiri Antolaketako Arauak berritzeko sortu den herri mailako taldearen bilera. Hasierako onespenera alegazioak formalki egiteko modua zein izango den azalduko dute.
Kultura etxean, 18:30ean.

EGUAZTENA 22**ELGETA Garbigune ibiltaria**

Egun osoan batuko dituzte herritarrek utzitako materiala.
Salbador kalean, 10:00etatik aurrera.

BERGARA Odol-ateratzea

Oporren osteko lehen deialdia egin dute.
Oxirondon, 16:30ean.

ARETXABALETA 'Beldurrak airean, irrifarra ahoan' ipuin kontaketa

3-6 urte artekoendako saioa, Miriam Mendozaren eskutik. Edukiera mugatua.
Arkupen, 18:00etan.

BERGARA Eguztenetako azoka

Herriko baseritarren sasoiko produktuak erosteko aukera.
Oxirondon, 18:00etan.

BERGARA 'La mujer del espía' pelikula

Zineklubean, jatorrizko bertsiotan eta azpigituluekin. Sarrerak, hiru euro.
Seminarixoan, 20:00etan.

EGUENA 23**OÑATI Traste zaharren bilketa eta Garbigune ibiltaria**

Egun osoan batuko dute herritarrek utzitako materiala.
Olakua auzoan, 10:30etik aurrera.

BERGARA 'Kotoiaren emakumeak' hitzaldia

Fanny Alonsok eta Ane Galarragak egingo dute berba. Edukiera mugatua.
Seminarixoan, 18:00etan.

OÑATI Umeen danborradako entseguak

18:00etan, danbor-jotzaileak eta kantinerak; eta 19:00etan, barril-jotzaileak, sukaldariak eta txalekodunak.
Eltzian.

ARRASATE Bi libururen aurkezpena

Ivan Fernandezek 'Desafecto' eta Marta Fontanaren 'La casa de Verges' liburuak aurkeztuko dituzte.
Gaztetxean, 19:00etan.

ESKORIATZA 'Ostegun Bidaiariak'

Karmelo Oñatek eta Ainhoa Arizabaletak Pirinioetan egindako arroila-jaiatsierak erakutsiko dituzte.
Zaldibar antzokian, 19:00etan.

ARRASATE 'Un paseo por la sexualidad' hitzaldia

Natalia Urteaga sexologoarekin.
Kulturaten, 19:00etan.

EGUBAKOITZA 24**ARAMAIO Hotel Ruido taldea**

Bertsioak egiten dituen Miranda de Ebroko bikotearen emanaldia.
Parkean, 19:00etan.

ARETXABALETA 'Erresistentzia arazo fisikoa da' antzezlan

Maite Aizpurrekin, euskaraz eta Jabetze Eskolaren baitan.
Parkean, 19:00etan.

BERGARA Alos Quartet eta Bergarako musika eskolako dantzariak

Debalde, edukiera mugatuarekin.
Santa Marina parrokian, 20:00etan.

BERGARA Buru Gabe, The Potes eta No Limits taldeak

Sarrerak, zortzi eurotan, Arrano tabernan.
Seminarixoko karpan, 21:00etan.

ZAPATUA 25**BERGARA 'Bergara monumental' bisita gidatua**

Edukiera mugatua, izen-emate hurrenkeraren arabera.
Parkean, 19:00etan.

ARRASATE 'Maestrissimo' ikuskizuna

Yllana taldearen azken lana. Sarrerak, 20 eurotan, 'Arrasate.eus' atarian. Edukiera mugatua.
Amaia antzokian, 19:00etan.

ZINEMA**ARRASATE****AMAIA ANTZOKIA**

Nora
Astelehena: 19:00

Spirit
Domeka: 16:00

OÑATI**KULTURA ETXEA**

A todo tren. Destino Asturias
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:30.

Maia erlea
Zapatua eta domeka: 17:00.

EIBAR**COLISEO**

Maligno
Zapatua eta domeka: 17:00.

Nora
Zapatua eta domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

Con quién viajas?
Zapatua eta domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

ANTZOKIA

Maligno
Zapatua eta domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

Oltxiak
Zapatua eta domeka: 17:00.

GASTEIZ**BOULEVARD**

Dune
Egubakoitza eta zapatua: 21:00, 22:00.
Egunero: 17:45, 18:45.
Egubakoitza, astelehena eta eguena: 17:00, 20:15.
Zapatua, domeka eta eguaztana: 15:45, 16:45.

Ninja a cuadros
Zapatua eta domeka: 16:10.
Egunero: 18:10.

Shang Chi
Zapatua, domeka eta eguaztana: 16:00, 19:00, 22:00.
Egubakoitza, astelehena eta

eguena: 18:00, 21:00.
Martitzena: 18:00.

Maligno
Zapatua, domeka eta eguaztana: 19:00, 21:30.
Egubakoitza, astelehena, martitzena eta eguena: 17:00, 19:30, 22:00.

Con quién viajas?

Egunero: 17:15.
García y García
Egunero: 19:15.

Worth
Egubakoitza eta zapatua: 21:30.

Quién es quién?
Egunero: 20:10.

El bebe jefazo
Zapatua eta domeka: 16:30.

After
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Egunero: 18:10, 20:20.
Zapatua eta domeka: 16:00.

A todo tren
Egunero: 20:00.

La patrulla canina

Egunero: 18:00.
Zapatua eta domeka: 16:00.

Candyman
Egubakoitza eta domeka: 22:15.

Descarrilados
Martitzena eta eguena: 22:15.

Scape room 2
Zapatua, astelehena eta eguaztana: 22:15.

D'Artacan
Zapatua eta eguaztana: 15:50.

Free guy
Egubakoitza eta zapatua: 22:15.
Egunero: 17:15, 19:45.

Gunpowder
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.

El club del paro
Zapatua eta domeka: 16:30.
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Egunero: 18:30m 20:30.

KRITIKA**Siempre contigo**

Zuz.: Nir Bergman. **Herr.:** Israel (2020). **Aktoreak:** Sha Avivi, Noam Imber, Smadi Wolfman. **Iraupena:** 94 minutu. ★★★★★

Burua eta bihotza**ANTONIO ZABALA**

Urik autismo arazoa du. Bere aitak dena alde batera utzi du, buru-belarri, semearen zaintzaz arduratzeko. Tamarak, Uriren amak, semea egoitza espezializatu batean sartu nahi du, bere garapenerako hobe den ustean. Gurasoak bananduta daude, eta norberak semearen zaintzari eta heziketari buruz duten ikuspuntua kontuan hartuz, erraz suposa genezake gatazka hori banaketaren arrazoi nagusia izan dela. Aitaren eta semearen arteko harremanak oso estuak dira. Badira tirabira eta tentsio momentuak, baina, orokorrean, oso ondo konpontzen dira. Hori bai, bikotearen bizitza bizitza isolatua da. Hor dago istorioaren gatazka: gehiegizko babesa kaltegarria izan

daiteke. Bihotzaren eta buruaren arteko norgehiagoka. Aita-semeek bidaia egingo dute. Semeak ez du egoitzara joan nahi, eta aitak ez du gura semea sufrizten ikusi. Bidaia horretan duten topaketarekin, Aaronen aurreko bizitza nolakoa zen sumatu dezakegu. Zuzendariak, Chaplinen 'El Chico' filmari keinu egiten dion arren, ez du melodraman erori nahi. Egoerei, ahal den neurrian, naturaltasuna eta errealismoa ematen die. Aktoreen lana ederra da, eta horrek filmari ukitu hurbila ematen dio. Ondo heltzen zaizkigu pertsonaien sentimenduak. Baina melodramatik ihes nahi nahiak filma nahiko laua izatea dakar. Pipermin apur bat falta zaio, gutziz borobila izateko.



AZKEN BERBA

MIKEL IRIZAR

Joerak

Pandemiaren astinduak lagunduta, globalizazioaren joerak areagotu egin dira: gero eta botere handiagoa dute demokratikoki hautatzen ez ditugun pertsonak, gero eta aberatsago dira eliteak eta zabalagoak arrakala sozialak, gero eta larriagoa da klimaren bilakaera, gero eta tresna gehiago eskaintzen digute bakarka joka dezagun... Nabarmen ari dira hedatzen beldurra eta norberekeria.

Haatik, kontrako norabidean ere antzeman daiteke zenbait joera, hain agerikoak ez badira ere. Dinamika alternatiboak indartzen ari dira energia sortzeko, elikatzeko, kontsumitzeko eta antolatzeko, planetaren osasuna eta hurbileko garapena zainduz. Lankidetzaren berriak ari dira eraikitzen hainbat ekimen aurrera ateratzeko, elkartzaren sareak ehuntzen interes komunak dituzten eragile eta pertsonen artean; abian dira gai publikoaren gobernantza partekatuzko esperientziak, komunitate aktibatua eta hurbileko erakundeak erantzukide bihurtuta.

Badago zeri heldu, badago non indar egin; aurkituko dugu norekin, adostuko dugu zer eta asmatuko dugu nola. Goitik beherako joera suntsigarriari aurre egin behar diegu, oinarrizko komunitatea trinkotzen duten joerekin.

GOIENA OKM GIDA

"Zuzenbidea ikasi arren, diseinatu egin nahi nuen"

AINHOA URBIETA URBIETA SUKALDEAK ETA BAINUAK

Familiako negozioaren ardura hartu du bergararrak. Diseinuarena "dedikazio handia" eskatzen duen lana dela dio, baina betidanik jakin du horretan jardun nahi zuela

Jone Olabarria BERGARA

Hasiera batean epaitegirako bidea hartu zuen arren -Zuzenbidea ikasi zuen-, etxeko tradizioarekin jarraitu eta dekoratzaile lanetan dihardu Ainhoa Urbieta bergararrak. **'Bainuak eta sukaldeak' izenean, baina argazkian horietatik gutxi ikus dezakegu...**

Bai; hasiera batean, iturgintza lanetara eta bainugelak berri-terera dedikatzen ginen. Azken urteetan, baina, barne diseinua eta eraberritze osoak ere lantzen ditugu.

Konturatu gara gure etxeak utzita genituela, eta orain, berritzeen eztanda?

Horrenbeste denbora etxean egonda, itxialdian, txoko asko berritzeko beharra bistaratu du. Etxe goxoa izateak posibilitasuna ematen digula konturatu gara; eta funtzionala izan dadila.

Eta zer dago modan?

Espazio zabalak eta bateratuak; sukalde eta egongela bateratuak, esaterako.

Janari usaina etxe osora ez al da zabaltzen horrela?

Askoren kezka izaten da, baina ez. Gaur egun, oso erauzgaile potentek daude merkatuan.



Ainhoa Urbieta, Ibargarai kalean duten dendan eta erakustokian. JAGOBA DOMINGO

Bazkaltzera gonbita, estreinatzeko

"Orain dela gutxi, sukalde baten eraberritze lana amaitu, eta bezeroak lanarekin oso gustura geratu zirela-eta eskertzeraz etorri ziren. Azken gauza bat eskatu zidaten, baina, sukalde nirekin estreinatu nahi zutelara, eta bazkari batera gonbidatu nahi ninduten! Ba, azkenean, hara joan nintzen, beraiekin jatordua egin eta euren sukalde berria estreinatzerara! Detalle polita izan zen; bereziki gogoratzen dut, eta oso esker onekoa da!"

Zuk ere etxea txukun eduki behar duzu, aldizkarietakoak bezala... Ume txiki batekin etxean... Aldizkarietakoaren antz gutxi askotan... Neuretzat aukeratzea, akaso, gehiago kostatu zitzaidan, eta nobedadeak jasotzen ditudan bakoitzean zerbait aldatzeko gogoia sartzen zait.

Familiako negozioa duzue hau. Zure kasuan, tradizioarekin jarraitu gura zenuen ala horrela tokatu zaizu?

Horrela suertatu da; etxean betidanik ezagutu dut ofizioa. Zuzenbide ikasketak bukatu nituen arren, berehala konturatu nintzen diseinuaren munduan lan egin gura nuela, gaztetatik jakin dut.

Zer baloratzen duzu gehien lanetik? Eta gutxien?

Espazio eta estantzia ezberdinak diseinatu eta bezeroak norberak egindako diseinu hori gustuko izatea. Hori baloratzen dut gehien. Okerrena, aldiz, dedikazio handiko lana dela hau.

Noren etxea dekoratu nahiko zenuke? Edo nolakoa?

Oso itsaso eta kosta zalea naiz; hortaz, kostaldeak, itsasotik gertu dagoen etxe bat dekoratu gurako nuke, aukeran. Norena, ba... ez dakit, ez dut inor bereziki gogoan. Etxe handiek aukera asko ematen dute, baina etxebizitza txikiek goxotasun aukera handiak dituzte.

Nola moldatu duzue negozioa Internetera?

Bagabiltza, poliki-poliki, gure lanak sareetan erakusteko ahalgina egiten, Instagramen, Facebooken, webgunean...

Goiena Okm
Gidaren
eskaintza
osoa

goiena
Okm
gida

KIROL DENBORALDIA HASI DA

GOIENA TELEBISTA, 'HARMAILATIK'

IRAILAREN 20AN, ASTELEHENEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN

UDA-BERGARA DERBIA, MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN LEHEN PARTIDUA, LEINTZ-ARIZMENDI FUTBOL TALDEAREN DENBORALDI HASIERA ETA TXIRRINDULARITZAKO OÑATI SARIA



DESKARGATU
GOIENA
APP BERRIA!

goiena
Zu hemen zaude.

